
LAG

EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen
Berrikuspenaren Aurrerapenaren

**Aurretiko Gizartearen Parte-hartze
Prozesuaren Azken Txostena**

DOT

**Informe Final del Proceso de
Participación Social Previo al
Avance de la Revisión de las Directrices
de Ordenación Territorial de la CAPV**

Urtarrila 2017 Enero

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

Vitoria-Gasteiz. 2017ko urtarrila

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA ETA AURREKARIAK	7
2. LURRALDE MAILAKO PARTE-HARTZEA. ESPARRU KONTZEPTUALA	9
2.1. Herritarren parte-hartzeari buruzko hurbilketa kontzeptuala	9
2.2. Parte hartzeko prozesuetarako oinarritzko baldintzak	12
2.3. Herritarren parte-hartzea lurralde-antolamenduan	14
2.4. Berrikustea ez da berriro hasieratik hastea	16
2.5. Erloju-sinkronizazioa eta gizarte-irekitasuna	17
3. HELBURUAK ETA EDUKIAK	19
3.1. LAGen Berrikuspenean Parte Hartzeko Prozesua	19
3.2. Jokoaren arauak: Xedeak, itzulketak eta mugak	20
3.3. Baldintzak eta oinarriak, alderdi eztabaidagarriak eta egin daitezkeen hobekuntzak	22
3.4. Oinarritzko Dokumentuaren edukiak	24
4. METODOLOGIA ETA EGITURA	26
4.1. Printzipioak	27
4.2. Oinarritzko metodologia: ZHP	28
4.3. Metodologia aplikatua eta parte hartzeko kanalak	31
4.4. Egindako prozesuaren egitura	33
5. GAUZATUTAKO EKINTZAK. GARAPENA, MATERIALAK ETA JASOTAKO INFORMAZIOA	35
1., 12. eta 17. ekintzak. Erakundeen parte-hartze espazioak	36
2. Ekintza. Prozesuaren aurretiko informazioa garatzea	40
3. Ekintza: Prozesuaren irudia sortzea	42
4. Ekintza. Zer dira LAGak? Kanpaina	44
5. Ekintza. Oinarritzko Dokumentuko eragileei kontsultatzea	48
6. Ekintza. Prozesuaren web-orria eta identitate digitala	53
7. Ekintza. Parte-hartze digitala. Irekiera eta Bilketa	59
8. Ekintza. Prozesuaren irekieraren prentsaurrekoa	65
9. eta 21. Ekintzak. Komunikazio-kanpainak	66
10. Ekintza. Herritarren postontzia	72
11. Ekintza. Jardunaldi parte-hartzaileak Eremu Funtzionaletan	73
13., 14. eta 16. Ekintzak. Jendaurreko aurkezpenak eta itzulketa	80
18. Ekintza. Ekarpenen Txostenak	82
19. Ekintza. EUSKAL HIRIA 2016 Kongresua	83


20. Ekintza. Erakusketa ibiltaria	86
6. ENTREGAGAIEN, ADIERAZLEEN ETA EKINTZEN EGIAZTAPENA	89
6.1. Entregagaiak	89
6.2. Adierazleak	92
6.3. Egutegia	94
6.4. Jarduera-memoria	95
7. PROZESUAREN ONDORIOAK ETA IKASITAKOAK	105
7.1 Hasierako erronkak	105
7.2 Ondorioak	108
7.3 Ikasitakoak	114
8. HASIERAKO ONESPENA IZAPIDETZEKO PARTE-HARTZE PROPOSAMENA	116
8.1. LALaren zehaztapenak	117
8.2. Erakundeen parte-hartzea	118
8.3. Gizartearen parte-hartzea	118
1. ERANSKINA. PARTE HARTZEKO PLANA	
2. ERANSKINA. PARTE HARTZEKO GIDA	
3. ERANSKINA. KOMUNIKAZIOA	
4. ERANSKINA. KANPAINAKO EDUKIAK: ZER DIRA LAG-AK?	
5. ERANSKINA. AURREZ AURREKO TAILERRETAKO EDUKIAK	
6. ERANSKINA. AURREZ AURREKO EKARPENEN TXOSTENA	
7. ERANSKINA. EKARPEN DIGITALEN TXOSTENA	
8. ERANSKINA. ERAKUSKETA IBILTARIKO PANELAK	
9. ERANSKINA. ENTREGAGAIK	

EREMU FUNTZIONAL bakoitzean izandako parte-hartzea, digitala zein aurrez aurrekoa

● **Presentziala**

● **Digitala**

100




- 1 Álava Central (Araba Erdialde)
- 2 Balmaseda-Zalla (Encartaciones)
- 3 Beasain-Zumarraga (Goierni)
- 4 Bilbao (Metropolitarra/ Metropolitano)
- 5 Donostia-San Sebastian (Donostialdea-Bajo Bidasoa)
- 6 Durango (Durangaldea)
- 7 Eibar (Debabehena/Bajo Deba)
- 8 Gernika-Markina
- 9 Igorre (Igorre)
- 10 Laguardia (Errioxako Araba/Rioja alavesa)
- 11 Llodio
- 12 Mondragon-Bergara (Alto Deba)
- 13 Mungia (Mungia)
- 14 Tolosa (Tolosaldea)
- 15 Zarautz (Urola Kosta)

GAI bakoitzean izandako parte-hartzea, digitala zein aurrez aurrekoa

● **Presentziala**

— **Digitala**



1. AURKEZPENA ETA AURREKARIAK

Dokumentu honek Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) berrikusteko burutu den parte hartzeko prozesua jasotzen eta azaltzen du labur-labur azken txosten bakar honetan.

Prozesu hori 2016ko martxoa eta Abendua bitartean gauzatu da eta Berrikuspenari gizaratearen eta erakundearen babesa emateko balio izan du, hala nola LAG berrien Aurrerapena ere edukiz hornitzeko.

Aurrekariak

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) EAEko lurraldearen plangintza orokorra egiteko tresna nagusia dira eta 1997an onartu ziren, orain dela bi hamarkada. Azken urteotan hainbat hurbilketa egin dira LAGak berraztertze eta birpentsatzeko, eta azkenean, 2015ean, Berrikuspena egiteko prozedura abiarazi zen.

Prozedurak hiru urte inguru iraungo zuela aurreikusi zen, eta erabaki zen administrazio-izapidetzearen mugarriek (Hastapenak, Aurrerapena, Hasierako Onespina eta Behin Betiko Onespina) urtero azaroan egiten den Euskal Hiria kongresuekin (2015, 2016, 2017 eta 2018, hurrenez hurren) bat egingo zutela.

Parte hartzeko prozesuari Euskal Hiria 2015 kongresuan eman zitzaion hasiera, Aurrerapenaren aurreko agiria den Oinarrizko Dokumentua aurkeztu zenean. Eta 2016ko azaroaren 21 eta 22an, Donostian egindako Euskal Hiria kongresuan, aurrez ezarrita zegoen bezala, LAGen Berrikuspenaren Aurrerapena aurkeztu zen.

Hala, kongresu bien arteko denbora-tarte horretan, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenerako dokumentu berria (Aurrerapena) sortzeko beharrezkoak diren izapidetzeak egin dira, dokumentua idatzi da eta parte hartzeko prozesua garatu da.

Parte hartzeko prozesu zabala

Eusko Jaurlaritzak 2015eko uztailaren 27an LAGen berrikuspena abiarazteko erabakia hartu zuen eta horrekin batera, parte hartzeko prozesu zabal baten baitan egin behar zela ere erabaki zuen.

Parte hartzeko prozesua Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak zuzendu du, Administrazio eta Lurralde Plangintza Sailburuordetzaren eta Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritzaren eskutik. Horrez gain, erakundeen parte-hartzeari dagozkion eginkizunak ere bere gain hartu ditu eta parte-hartzetik erauzitako eduki teknikoak Aurrerapenaren dokumentuan txertatu ditu.

Parte hartzeko prozesurako lehiaketa-prozedura irekia abiarazi zen eta prozedura horretan, Paisaje Transversal enpresa izan zen esleipenduna. Azken txosten honek kontratua nola gauzatu den jasotzen du.

Txostenaren egitura

Txostena 7 ataletan banatu da. Lehenik eta behin, “1. Aurkezpena eta aurrekariak” atalean, prozesuaren abiapuntua deskribatzen da; “2. Lurralde mailako parte-hartzea. Esparru kontzeptuala” atalean, lana bere testuinguru teorikoan kokatzen da, eta “3. Helburuak eta edukiak” eta “4. Metodologia eta Egitura” ataletan lanaren hasierako proposamena deskribatzen da. Gero, “5. Gauzatutako ekintzak. Garapena, materialak eta jasotako informazioa” atalean, egindako lanaren berri ematen da luze eta zabala; “6. Entregagaien, Adierazleen eta Ekintzen Egiaztapena” atalean, aurrez ezarritako helburuak bete ote diren egiaztatzen da. Amaiera gisa, “7. Prozesuaren ondorioak eta ikasitakoak” atalean, proiektutik ondorioztatutakoaren berri ematen da eta sortutako aldaketak azaltzen dira. Horrez gain, “8. Hasierako onespina izapidetzeko parte-hartze proposamena” atalean, parte-hartzeari dagokionez, metodologia bat eta zenbait ekintza proposatzen ditugu berrikuspenearen hurrengo urratsetarako. Lan honetan prestatu diren dokumentu garrantzitsuak Eranskinetan daude jasota.

2. LURRALDE MAILAKO PARTE-HARTZEA. ESPARRU KONTZEPTUALA


Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) Berrikuspenerako Parte Hartzeko Prozesuak mugarría jarri du EAEko lurralde-antolamenduaren baitan. Prozesu hau aitzindaria izan da, ez soilik hartzen duen lurralde-mailagatik -Autonomia Erkidego oso bat-, baita parte-hartzearen alde egiten duen apustu irmoagatik ere, parte-hartzea gobernantza eta lurralde-kultura berri bat sustatzeko funtsezko elementutzat hartuta.

Zalantzarik gabe, prozesu hau, prozesuaren beraren ezaugarriengatik, erronka handia izan da euskal herritar guztiontzat, herritarrengandik motibazio eta konpromiso handia eskatzen duelako. Prozesu hau aitzindaria izanik, parte hartzeko, hausnartzeko eta eztabaidatzeko modu berriak ezarri zituen EAEko lurralde-kultura eta herritarren heldutasun politikoa aberasteko eta osatzeko. Halaber, nabarmendu nahi dugu Berrikuspen honen helburua hurrengo 20 urteetako EAE ikuskatzea dela, eta ondorioz, prozesu honek jarraian deskribatuko ditugun zenbait berezitasun izan ditu.

2.1. Herritarren parte-hartzeari buruzko hurbilketa kontzeptuala

Gaur egun, “herritarren parte-hartze” terminoak hainbat adiera du. Hain zuzen, egungo zenbait praktikak eta prozesuk bere esanahia eta zentzua indargabetzen dute. Beraz, Parte Hartzeko Prozesua abiarazi baino lehen, herritarren parte-hartzeaz ari garenean zer esan nahi dugun argitzeko oinarriak ezarri behar izan genituen.

Helburu horrekin, Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriak jasotzen dituen parte-hartzearen hiru dimentsioak hartu genituen abiapuntutzat, prozesu gisa, eskubide eta betebeharrak gisa, eta jarrera gisa:



1. Herritarren parte-hartzea ikaskuntza- eta garapen-prozesu pertsonal eta kolektibo bat da. Harremanak, erantzunak, ekintzak eta abar aldatu nahi ditu, eta hala, pertsona guztiei tokia eta ahotsa ematen die balio publikoari eragiteko ahalmena eta erantzukizuna izan dezaten.
2. Parte-hartzea pertsona guztiek berengan eragina duten jarduera eta erabaki publiko guztietan modu aktiboan parte hartzeko duten eskubide bat da. Gainera, «publikoa denaren aurrean dagoen nolabaiteko klientelismoa» kontuan hartuta, argi dago, une hauetan, parte hartzea inoiz baino beharrezkoagoa dela eta, horregatik, parte hartzea herritarron betebeharrak bat ere bada, nahiz eta borondatez eta nahi dugulako egiten den zerbait izan behar duen beti.
3. Jarrera gisa, parte-hartzeak autonomia, askatasuna eta erantzukizuna esan nahi du. Konponbidearen parte izateko interesa izatea eskatzen du, eta beraz, interesik ezean, onartu egin beharko genuke norbaitek parte hartu nahi ez izatea.

EZ DU NORANZKO BAKARREKOA IZAN BEHAR

- Ez da nik nahi dudana galdetzea
- Ez da erantzun zuzena izatea
- Ez da hondatutakoa konpontzea
- Ez da iritzia edo aholkua eskatzea, ezta iritzia ematea ere
- Ez da soilik galderei erantzutea
- Ez da beldur izatea / babestea
- Ez da "zertan da nire gaia?"

EZ DU MAKILLAJE EGINTZA BAT IZAN BEHAR

- Ez da maniobra politiko bat
- Ez da manipulazioa
- Ez da motibazio partidistekin egindako herritarren instrumentalizazioa
- Ez da kosmetika-lan bat, erakusleio bat...
- Ez da propaganda
- Ez da klientelismoa
- Ez da populismoa

EZ DA DESOREKAK SORTZEA

- Ez da emakida bat
- Ez da inposizio bat
- Ez da botere-erlazioa
- Ez da eskuordetzea
- Ez da lehendik hartutako erabakiak justifikatzea
- Ez da inposatzea
- Ez da adostasunaren bilaketa obsesiboa
- Ez da noranzko bakarrekoa

EZ DA BAT-BATEKO ZERBAIT

- Ez da araurik gabeko prozesu bat
- Ez da egintza jakin eta puntual bat
- Ez da zentzua eta ezta mugak ere argi ez dauden prozesu batean inplikatzeko
- Ez da itxaropen faltsuak sortzea

EZ DA MODA BAT

- Ez da moda bat
- Ez da marketina, ezta publizitatea ere
- Ez da iritzi-kultura
- Ez da prozesu elitista bat
- Ez da administrazioak sortutako zerbaitekin
- Ez da ez burokrasia, ez izapideak
- Ez da inoren jabetzakoa, ezta ezein alderdi politiko-rena

EZ DA GAUZA SINPLEA

- Ez da sinplea, konplexua da
- Ez dira monosilaboak, elkarrizketa, iritzia eta kontrasteak behar ditu
- Ez da helburu bat, bitarteko bat da. Baina ez da soilik bitarteko bat: filosofia bat da
- Ez da gonbidapen abstraktu bat
- Ez da helburu bat, helburu horretara iristen garen modua da

Labur esanda, parte-hartzea ezin da ondorengo galderaren erantzuna izan: "eta nirea zer?" Eta, era berean, ezin dio pertsona edo talde jakin baten interes partikularrei erantzun. Parte-hartzeak esan nahi du, gai eta arazo baten aurrean, guztion artean hausnarketa egitea, eztabaidatzea eta adostutako helmuga bat zehaztea, eta bide horretan, guztion artean hori lortzeko konponbideak, estrategiak edo ekintzak diseinatzea eta eraikitzea.

Hortaz, parte hartzeko prozesuek gai bati buruz dauden jakintzak eta ikuspuntuak ezagutarazteko mekanismoak izan behar dituzte. Hori lortzeko, elkar entzutea, elkarrizketa eta ikasketa kolektiboa sustatu behar dira, betiere berdintasuna, tolerantzia eta aniztasunaren (gizarte-, kultura-, genero-aniztasuna) errespetua begien bistatik galdu gabe.

Herritarren parte-hartzean elkarren oso desberdinak diren interesak, jarrerak, iritzia eta nortasunak nahasten dira, eta horien arteko eragin-truketik liskarrak eta eztabaidak sortzen dira... gatazka sortzen da. Beraz, parte-hartzeak gatazka kudeatzeko eta alderdien arteko bitartekari izateko mekanismoa izan behar du, eta ez, ordea, gatazka desagerrarazteko edo jarrera nagusiak legitimatzeko; horren ordez, parte-hartzeak partekatzen ditugun alderdiak

identifikatzeko, adostasunak zehazteko eta, ahal bada, guztion artean irtenbideak diseinatzeko tresna izan behar du.

Beraz, garrantzitsua da erreferentziazko esparruak izatea eztabaida kokatzeko eta aurretik dauden liskar pertsonalak, identitarioak edo elektoralistak gainditu ahal izateko. Batez ere prozesu horietan heldu beharreko gaiak oso abstraktuak eta orokorrak direnean; eta horixe gertatzen da, hain zuzen, LAGekin.

2.2. Parte hartzeko prozesuetarako oinarritzko baldintzak

Parte hartzeko prozesu bat zehazteko orduan, beharrezkoa da ondorengo puntu hauek behintzat kontuan hartzea, gorago azaldu ditugun konplexutasunei erantzun ahal izateko:

- Borondate ona ez da nahikoa: Parte-hartzea gauzatzeko metodologiak eta tresnak behar dira. Askotan, parte-hartzeari buruzko zenbait oinarritzko gauza kontuan hartzen ez dituen asmo oneko jarrera naif batetik abiatzen dira prozesuak eta horrek, azkenean, parte-hartzea indargabetzen du eta beharrezkoak ez diren gatazkak sortzen ditu. Metodologia eta tresna horiek ez dituzte zertan komunitateetatik kanpoko eragileek aplikatu; hori komunitatearen autoantolakuntzarako gaitasun soziopolitikoaren araberakoa izango da. Garrantzitsua da ahalduntze-maila orekatuak dituzten egoerak lortzen saiatzea beti. Izan ere, gerta liteke prozesu batzuetan pertsona batzuk, haien gaitasunei esker edo gainerakoekin alderatuta duten ahalduntze-mailari esker, talde bateko erabakiak gidatzea edo beste batzuekin batera hartzea. Beraz, parte-hartzeak botere-oreka egoteari eta botere-mailaren arteko neurritasun bati bide eman beharko dio. Hau da, Tomás R. Villasantek “ahalduntze” esaten dionaren mekanismoak askatzeko aukera eman behar du.
- Parte-hartzearen testuingurua ongi ezagutu behar da: Edozein prozesu hasi aurretik, parte hartuko duten eragileak ez ezik, haien arteko harremanak eta parte hartzeko guneak zein diren zehaztu beharra dago. Prozesu arrakastatsu baten oinarriak ezartzeko, ondo dago eragileen mapa on bat edo soziograma on bat egitea, zer gatazka dauden ezagutzea eta prozesuari ekin aurretik lantzea.
- Jokoaren arauak zein diren zehaztu behar da: argi egon behar du hasiera-hasieratik zein diren xedeak, itzulketak eta mugak. Hala, ez da etorkizunean itxaropen faltsurik edo desengainurik izango. Parte hartzen duen taldeak argi izan behar du zertan parte

hartuko duen, nola parte hartuko duen, zertarako eta bere denbora horretan emateagatik zer lortuko duen trukean. Arauak aldeaz aurretik egon daitezke ezarrita edo, aukera badago, denon artean sor ditzakegu. Baina beti egon behar dute hor, eta prozesuak irauten duen bitartean jorratzea ere interesgarria da, horiek gainditzeko estrategiak ezartzeko bada ere. Alde horretatik, ariketa ona da prozesuaren mugetatik sortzen diren taldearen beldurrak eta zalantzak azalaraztea. Izan ere, horiek onartu ostean, errazago pentsatuko dugu nola egin horiei aurre.

- Parte-hartzea prozesu gisa: Parte hartzeko prozesuetan garrantzitsua da garapenari berari eta sortzen diren egoera aldakorrei adi egotea. Egindako urratsak ebaluatzeko eta zuzentzeko ahaleginak egin behar dira, baita minutu gutxian bada ere (zer egin antolatutako jarduera batera jende gutxi azaltzen bada?). Ebaluatu egin behar dugu, egiten ari garenarekin kritikoak izan behar dugu eta sortzen diren egoerak edo gatazkak nola bideratu proposatu behar dugu.
- Berdintasuna, eraldaketa eta ikasketa kolektiboa: parte-hartzeak berdintasunaren arloan ditugun gaitasun soziopolitikoak garatzeko prozesua ere izan behar du. Ekitatearen eta gizarte-justiziaren ikuspuntutik, aurretik dauden botere-harremanak eraldatzeko tresna bat. Ikaskuntza- eta kontzientzia hartze-prozesu den heinean, ezinbestekoa da entzute aktiboa, errespetua eta tolerantzia sustatzea. Eraldaketarako tresna gisa, parte-hartzea gatazka kudeatzeko tresnatzat hartu behar da eta, ahal dela, denon artean irtenbideak topatzeko tresnatzat (nahiz eta zenbaitetan ezinezkoa den).
- Denbora, arreta eta afektuak errespetatzea: oso arretatsuak izan behar dugu parte hartzen duten pertsonen denborarekin, denbora oso baliotsua baita. Gainera, lanaren eta familiaren bateragarritasuna ere errespetatzen duen ikuspegi batetik ulertu behar dugu parte-hartzea. Halaber, taldekideen arteko afektuak zaindu behar ditugu eta hartara, tirabirak lasaitzen edo gatazka pertsonalak konpontzen lagunduko dugu, eta taldearen barne-loturak sendotuko ditugu.
- Zabalkunde, kanal eta dinamika egokiak: “jendeak ez du parte hartzen” leloaren aurrean, zergatik ez duen parte hartzen galdetu behar diogu geure buruari. Eta, normalean, jendeak ez du parte hartzen prozesuak ez direlako behar bezala komunikatzen, edo ez direlako kanal, gune edo metodologia egokiak erabiltzen. Behar bezala komunikatzea eta taldean parte hartzeko formatu egokiak izatea (herritarrentzat

erakargarri bihurtuko duten elementu ludikoak gehitzea, adibidez) mantra hori indargabetzeko abiapuntu egokia dira.

- Trazabilitatea eta gardentasuna: beste edozein ekintza demokratikok bezalaxe, parte-hartzeak trazabilitatearen eta gardentasunaren gutxieneko estandar batzuk bete behar ditu. Lehenengoari dagokionez, pertsona oro nahi duenean batuko da prozesura eta hartutako erabakien garrantzia nabarmenduko da eta berreskuratzeko aukera egongo da (noiz, nola eta zergatik hartu ziren), prozesura berriki sartu direnak erabaki horiek indargabetzen saiatzekotan. Eta gardentasunari dagokionez, edozein pertsonak izan behar du informazio hori ikusteko aukera, eta informazio horrek erraz ulertzeko eta lortzeko modukoa izan behar du.
- Parte hartzen ekinez ikasten da: parte hartzea, ororen gainetik, ekitea da. Baina, zoritxarrez, ekinbide horretan ez dugu eskarmenturik gizarte gisa. Parte hartzeko kultura sortzeko edo areagotzeko modu bakarra praktikan jartzea da: prozesuak abiarazteko eta horietan parte hartzeko beldurra alde batera uztea, huts egiteari beldurrik ez izatea (okerrik ez egitea ezinezkoa baita), baina jakinik egindako akatsak denon hutsegiteak direla eta horiek konpontzeko irtenbidea ere denon artean bilatuko dugula.

Bi epigrafe horien edukiek parte hartzeko prozesua diseinatzen hasteko oinarri teorikoa ezartzeko bidea eman ziguten, eta jarraian ikusiko dugunez, lurralde-mailara egokitu behar izan genituen.

2.3. Herritarren parte-hartzea lurralde-antolamenduan

Lurralde-antolamenduari eta -plangintzari ezarritako herritarren parte-hartzeak berezko bi alderdirekin lotuta dauden zenbait berezitasun ditu: Jorratuko diren gaien abstrakzio-eskala eta -maila. LAGen kasuan, egoera hori are nabarmenagoa da, dokumentuaren izaeratik beragatik, etorkizunerako proiektzioa duen dokumentu estrategikoa baita.

Beraz, parte-hartzeak EAE osoari eragiten dioten gaiei lotua egon behar du beti, eta horrek agerian uzten du interes partikularrak alde batera uzteko premia eta eztabaida ikuspegi orokor batetik begiratzeko premia. Horrek ez du esan nahi prozesuan lurraldeko ikuspegi eta esperientzia partikularretatik ekarpenik egin ahal izan ez denik edo prozesuak ez dionik

arretarik jarri gai edo errealitate zehatzagoei. Baina, hori bai, gero LAGen esparru zabalagoan aztertu eta ezarri ziren horiek.

Halaber, parte-hartzea ez zenez gai zehatzen inguruan egituratu, alderdi pedagogikoei eta sentsibilizazio-alderdiei arreta berezia jarri behar izan diegu. Hala, osagai dibulгатzailea nabarmentzeaz gain, garrantzia eman diogu, orobat, mezua behar bezala itzultzeari eta helarazteari; horretarako, herritarrek erraz ulertuko dituzten hizkuntza eta kodeak erabili ditugu.

Horren ondorioz, erakundeek eta profil teknikoa duten pertsonak modu aktiboagoan parte hartu zuten. Halako egoeraren aurka egin ahal izateko, gizarte osoaren parte-hartzea sustatu zen eta horretarako, teknikoa ez den hizkuntza inklusiboa erabiltzen duten ekintzak egin ziren, xedea gizarte osoak bere burua islatuta ikusten duen eredua sortzea baita.

Gainera, prozesuaren eskala kontuan hartuta (EAE osoa), parte hartzeko hainbat kanal eta gune aktibatu behar izan genituen, parte-hartzearen ordena kuantitatiboa eta kualitatiboa bateratu ahal izateko.

Parte hartzeko prozesuak parte-hartzaile kopuruaren arabera edo parte hartzen duten herritarren ehunekoa soilik kontuan hartuta neurtzea ez da guztiz egokia. Hala ere, halako prozesu handietan, beharrezkoa da EAEko herritar gehienek parte-hartzea ahalbidetzen duten kanalak eta guneak ezartzea. Eta horregatik, plataforma eta tresna digitalak asko erabili genituen, eta lurraldean genituen parte hartzeko guneen (fisikoen) sarea ere luze eta zabal erabili behar izan genuen (erakundeek izan zein ez, ahal zen guztietan) bertako arduradunekin koordinazioan.

Parte-hartzearen ordena kualitatiboari dagokionez, helburua zen ikuspuntu estrategikoagoak eta orokorragoak atera ahal izatea. Beraz, jorratu ziren gaiei buruz jarrera eta iritzia osatuagoa duten eragileek parte-hartzeari zuzendutako guneak izan dira, lurraldeari buruz hausnarketa egin dutela erakutsi dutenentzako guneak. Hala, lurralde-antolamenduekin lotutako gai jakin batzuei buruz ikuspegi argia zuten pertsonen eta taldeen zuzendutako parte-hartzea zen. Pertsona eta talde hauen ikuspegia gogoeta kritiko eta teorikoen ondorio zen eta diskurtso osatua eta fidagarria zuten, eta horrez gain, lurraldean praktika sendoak, garrantzitsuak (eta egiaztatuak) zituzten.

Ikuspegi horretatik ondoriozta daiteke Gobernantza oso garrantzitsua dela lurraldea modu demokratikoagoan kudeatzeko palanka izan daitekeelako. Gure iritziz, Lurralde Gobernantza berri bat eratzeke, beharrezkoa da parte hartzeko gune eta kanalak diseinatzea eta finkatzea; horietan, lurraldeko erakunde, eragile eta pertsona guztiek ahotsa izango dute eta haien lurraldea eraldatzen lagundu ahal izango dute. Lurralde Gobernantza guztien artean eraikitzeke eta ikasteko prozesua da, zeinaren bitartez hainbat ikuspegi eta iritzi jartzen baitira jokoan proiektu komun baten mesedetan.

Ondorioz, eta EAEko funtzionamenduan Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek berebiziko garrantzia dutela ikusita, haien Berrikuspena lurraldearen arautze-sistema hobetzearen aldeko apustu irmotik sortu behar da.

Horrenbestez, prozesu honen erronkarik handiena da, indarrean dauden lurraldeko tresnen multzoa abiapuntu hartuta, lurralde-eredu berria, eguneratua, adostua eta etorkizuneko ikuspegia duena proposatzea.

Hala, Parte Hartzeko Prozesu honen hasierako helburu nagusiak honako hauek izan ziren:

- LAG berrien eraketan, ahalik eta EAEko gizartearen laginik adierazgarrienek eta orekatuenek parte hartzea.
- Pertsona eta kolektibo guztietara irekia dagoen prozesu inklusiboa garatuko dela bermatzea, generoaren ikuspegiari eta gizarte-egoera ahuleko taldeei arreta berezia eskainiz.
- Gizarte-eragileekin eta eragile ekonomikoekin adostutako prozesua izatea eta hartutako erabakiak gardenak izatea.
- EAEko lurraldearen errealitatea ardazten duten ikuspegiak eta mailen arteko koordinazioa ahalbidetzea.

2.4. Berrikustea ez da berriro hasieratik hastea

LAGak berrikusteko erreferentziazko esparru honen baitan, oso garrantzitsua da lortu ditugun helburuetan, eta kasu eta inplementazio arrakastatsuak dituztenetan, atzerapausoak ez ematea. Asmo horrekin, Berrikuspenerako zenbait abiapuntu proposatu behar dira eztabaida daitezen, finka daitezen eta, hala badagokio, berrets daitezen.

Aipatzekoak dira azken 18 urteotan, 1997 eta 2015 urteen bitartean, idatzitako lurralde-plangintzaren garrantzia eta eraginkortasuna.

Egungo antolamenduaren blokea (LAG+ LPP+ LPS+ HAPO) osatzen duen egitura trinkoaz gain, beharrezkoa da gaur egungo sistemarekin kontraesanean ez dauden baina sistema eguneratzen eta hobetzen duten zenbait proposamen orokor eta sektorial egitea. Proposamen horiek parte hartzeko prozesuan eztabaidatuko litekeen hobetzeko esparrua osatuko lukete. Halaber, parte hartzeko prozesuarekin hasi aurretik, ezinbestekoa da zenbait proposamen metodologiko mahai gainean jartzea.

Lurralde Plan Partzialek, LPPEk, EAEko lurralde osoa estali dute eta Eremu Funtzional bakoitzerako 1997ko LAGen proposamenak zehaztu dituzte honako gai hauei dagokienez: ingurune fisikoaren babesa, hirigune eta jarduera-eremuen garapenerako logika eta neurria, garraio-azpiegituretan egin beharreko ekintzak, etab.

Lurralde Plan Sektorialek, LPSek, EAEko lurralde osoan garrantzi handiena duten gaiei heltzen diete, hala nola, jarduera ekonomikoa, ibaialdearen babesa, kostaldearen antolamendua, energia eolikoa, edo trenbide-sarearen berrantolamendua eta modernizazioa. Herrialde osorako lurralde-ikuspegiak eskaintzen dituzte eta, hala, Eremu Funtzionalen ikuspegitik behar bezala ulertu eta proiektatu ezin diren alderdien osagarri dira.

Aurreko guztia kontuan hartuta, nabarmendu nahi dugu 1997ko LAGen Berrikuspenaren prozesuak ez duela esan nahi inondik inora “berriro hastea”, garrantzi handiena duten zenbait alderdiosatzea, hobetzea eta eguneratzea baizik.

2.5. Erloju-sinkronizazioa eta gizarte-irekitasuna

Berrikuspenaren prozesua azken bi hamarraldietan egindako lanaren berri emateko eta dokumentu bakar, koherenteago eta laburrago batean jasota uzteko aukera paregabea da. Tresnen kateamendu sekuentzialak hainbat desfase sortu ditu, eta beraz, honako hau une egokia izan daiteke administrazioen, sektoreen eta tresnen eskalen “erlojuak sinkronizatzeko”.

Hirigintza eta lurralde-antolamendua gizartean interes txikia pizten duten arlo teknifikatuak dira gaur egun oraindik ere, pertsonen eguneroko bizimoduan garrantzi handia izanagatik ere.

Kontuan izanik lurralde-egitura trinkoa dugula eta EAEko nortasuna sendoa dela, oso positiboa izango da herritar guztiei irekia dagoen parte hartzeko prozesu berritzaile bat proposatzea.

Egia esan, ongi diseinatutako eta kudeatutako parte hartzeko prozesu bat lagungarria izango litzateke. Izan ere, hala, etorkizuneko Lurralde Antolamenduaren Gidalerro berrikusiak adostutako gidalerroak izatea lortuko genuke eta errazago ulertuko genuke haien edukiak eta inplikazioak zein diren.

Une hau bereziki aproposa da EAEk epe ertainean eta epe luzean dituen lurralde-erronken eta horiei erantzuteko proposatutako lan-lerroen inguruko lan pedagogiko eraginkorra egiteko. Halaber, une egokia da pixkanaka-pixkanaka kontzientzia ekologiko barneratua sortzen joateko, hau da, lurralde-politika horien arrakastan gizarte osoa erantzunkide egiteko.

3. HELBURUAK ETA EDUKIAK

3.1. LAGen Berrikuspenean Parte Hartzeko Prozesua

LAGen Berrikuspenean Parte hartzeko Prozesua Eusko Jaurlaritzak EAEko lurralde-eredu berriaren oinarriak gizartearen parte-hartzearekin definitzeko helburuaz sustatutako kontzertazio publikorako mekanismoa da. Berrikuspenak irauten duen denbora guztian garatuko da prozesua eta Aurrerapenerako eta Hasierako zein Behin Betiko Onespenerako bideak, kanalak eta guneak ere ezarriko ditu. Beraz, parte hartzeko prozesua Berrikuspenaren prozedurak irauten duen hiru urteetan garatuko da modu integratuan.

Aurrerapena idazteko parte hartzeko prozesuari dagokionez, 2016ko martxoa eta azaroa bitartean gauzatu da, eta Lurralde Antolamenduaren Gidalerro (LAG) berrien Aurrerapen-dokumentuaren idazketari bultzada ematea izan du helburu.

Parte hartzeko hasierako prozesu hau bi eremuren inguruan egituratu da: erakundeen parte-hartzea eta gizartearen parte-hartzea. Erakundeen parte-hartzea Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak eraman du eta hainbat bilera, elkarrizketa eta topaketa egin dituzte EAEko zenbait erakunde-organorekin. Besteak beste: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordea (EAELAB) eta EAEko Lurralde Politikarako Aholku Batzordea. Bertan, Eusko Jaurlaritzako zenbait Sailek, hiru aldundiek, EUDEL Euskadiko Udalen Elkartek, Estatuko Gobernuaren ordezkariak eta lurralde-gaien adituek hartzen dute parte.

Halaber, kontsultarako organo kolegiatuekin ere mintzatu dira, hala nola: Ingurumen Saileko Ingurumen Batzordea, Ingurumenerako Batzorde Aholku-emailea, Naturzaintza, Urdaibaigo Patronatua eta Euskadiko Garraio Agintaritza, Legebiltzarreko Ingurumenaren eta Lurralde Politikaren Batzordea, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea (EGAB), UPV/EHuko Kultur Paisaia, Lurraldea eta Ondarea izeneko Unesco Katedra eta UPV/EHuko ehuGune, unibertsitatearen eta gizarte zibilaren arteko eztabaida-gunea.

Gizartearen parte-hartzeari dagokionez, Parte Hartzeko Plan zabal batean eta Parte Hartzeko Gida batean oinarritu da. Dokumentu horietan, gizartearen parte-hartzearen nondik norakoak

zehazten dira. Lehenengoan, modu operatiboagoan, eta bigarrenak, aldiz, beharrezko esparru kontzeptuala ezartzen du.

Esan behar dugu, halaber, Sailak, gaia oro har testuinguruan kokatzeko asmoz, Gidalerroen Berrikuspenaren “Oinarrizko Dokumentua” sortu duela parte hartzeko prozesuari ekarpena eginez. Hala, parte hartzeko prozesua dokumentu horren edukietan oinarritu da eta ondorioak gizartearen parte-hartzearen ekarpenen azken dokumentu batean jasota geratu dira, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak idatziko duen Berrikuspenaren Aurrerapenean kontuan hartuko dira.

Azkenik, LAGen Berrikuspen osoa onartzeko izapidetzea aipatu behar dugu; horretarako, EAEko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak ezarritako izapideak hartuko dira kontuan.

3.2. Jokoaren arauak: Xedeak, itzulketak eta mugak

Gorago aipatu dugunez, prozesu orok ditu bere «jokoaren arauak» eta haiei esker zehaztu dezakegu prozesuaren irismena eta garapena nolakoak izango diren. Hala, parte hartzen duen taldekideen artean ez da etorkizunean itxaropen faltsurik edo desengainurik sortuko Baldintza horiek eztabaida kokatzen laguntzen dute eta guk xede, muga eta itzuleren bitartez definituko ditugu hemen:

Jarraian, Parte Hartzeko Prozesuak oinarrian hartutako «jokoaren arauak» zein diren adieraziko dugu.

Xede orokorra

LAGen Aurrerapen-dokumentuan prozesuaren baitan egiten diren ekarpenak gehitzea, eta hartara, lurralde-estrategia berri bat ezartzea parte hartzen duten pertsona eta eragile guztien artean.

Berariazko xedeak

- LAGak idazteko parte-hartze osoaren oinarriak ezartzea. Prozesua Aurrerapenarekin batera hasiko da, eta Hasierako Onespena eta Behin Betiko Onespenarekin jarraituko du (azken hau 2018ko azaroan izatea espero da).

- EAEko lurralde-plangintzaren etorkizuneko blokerako erreferentziazko esparru berriaren oinarriak guztion artean pentsatzea, eztabaidatzea eta eraikitzea.
- Herritarrek LAGekin lotutako gaien inguruan sentsibilizatzea eta horretarako, ikasketa kolektiborako beharrezkoak diren guneak eta kanalak ezartzea.
- 2016ko apirila eta azaroa bitartean garatutako LAGen Aurrerapenarekin lotutako parte hartzeko prozesuaren jokoaren arauak eta edukiak zehaztea.

Mugak

Mugak ez ditugu zehaztapen estatiko gisa ulertu behar, parte hartzeko prozesuaren silueta marrazten laguntzen duten baldintza-multzo gisa baizik. Horien helburua da gaizki-ulerturik eta itxaropen faltsurik ez sortzea. Beraz, prozesua osatzen duten ezaugarriak direla esan dezakegu. Hainbat gairi erantzuten diete:

Denborazkoak:

- LAGen berrikuspena hiru urte inguruko prozesua da eta oraingo prozesu honekin lotuta dagoen Aurrerapena idaztearekin batera hasten da.
- Prozesu honek Aurrerapena idaztea du helburu, eta 2016ko apirila eta azaroa bitartean garatuko da.

Edukiak:

- Garatuko den parte hartzeko prozesua LAGen berrikuspenaren Aurrerapenari dagokio. Egindako ekarpenak dokumentu horretan gehituko dira. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritzari dagokio dokumentu hori idaztea.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak Oinarrizko Dokumentu bat idatzi zuen. Dokumentu horrek hainbat eduki jasotzen ditu eta prozesuaren abiapuntu gisa erabil daiteke. Eduki horiek parte hartzeko prozesuan eztabaidatu eta aldatuko ditugu.
- Prozesuaren abiapuntuko gaiak eta edukiak beherago daude zehaztuta. Horietan Oinarrizko Dokumentuaren edukiak jasotzen dira labur-labur, eta baita lurralde-antolamenduaren tresnen bidez (LAG 97, 15 LPP eta 8 LPS) jasotako ekarpenak ere.
- Ekarpenak LAGen gaietara mugatu behar dira.

- Gai guztiak gogoetagai eta eztabaidagai izan badaitezke ere, batzuek LAGen esparrua gainditzen dute. EAEko Administrazioaren eskumenek, EAEko lurraldearen inbariante fisikoek eta bere errealitate sozioekonomikoak berak jarriko dituzte mugak.
- Lurraldeak baditu alde aurretik hainbat ezaugarri baldintzatzaile eta, orobat, lurralde-antolamenduak 20 urteko ibilbidea du, eta hori guztia ezin dugu alde batera utzi. Alde horretatik, prozesua ez da hutsetik hasten.

Itzulketak

Parte hartzeko prozesu baten itzulketak dira prozesuaren ostean espero daitezkeen lorpenak eta sortuko diren entregagaiak eta produktuak. Bi motakoak izan daitezke, hautemangarriak eta hautemangaitzak.

Hautemangarriak:

- Prozesuaren ondotik hartutako erabakiak LAGen berrikuspenearen Aurrerapen dokumentuan jasoko dira idatziz.
- Parte Hartzeko Planean daude zehaztuta zein diren prozesuan sortu beharreko dokumentuak. Dokumentu guztiak publikoak izango dira eta formatu digitalean egongo dira eskuragarri.

Hautemangaitzak:

- Prozesuaren inguruan komunitatea sortzea: prozesuan parte hartzen duten gainerako pertsonak ezagutzea eta haiekin harremanak estutzea.
- Lurraldeari buruz ikastea eta gogoeta egitea: lurralde-gaietan adituak direnekin edo interesa dutenekin eztabaidatzeko aukera.
- EAEko lurralde-kultura areagotzea eta lurraldearen gobernantza berri baterako oinarriak ezartzea.

3.3. Baldintzak eta oinarriak, alderdi eztabaidagarriak eta egin daitezkeen hobekuntzak

Orain arte azaldutakoarekin jarraituz, atal honetan parte hartzeko prozesuaren esparru kontzeptualari eta gai-esparruari helduko diogu. Lehenago ere esan dugunez, erabakiak

hartzeko eta eztabaidatzeko prozesu orok aurretik lortu nahi ditugun helburuak, abiapuntuko baldintzak eta alderdi eztabaidagarriak zein diren ezartzea eskatzen du. Hona hemen horiei buruzko edukiak, LAGen Berrikuspenean zehaztu bezala.

Baldintzak

Aldaezinak diren inbarianteak. Prozesuan aldatuko ez diren eta nahiko agerikoak edo frogatuak diren zenbait kontzeptu proposatzen dira.

- Lurralde eta esparru fisiko bera: Lurralde txikia, bertako topografia maldatsuak asko mugatzen duena. Baliabide mugatuak.
- Biztanleria egonkorrari dagokionez, guztira 2 milioi eta laurden biztanletik behera bizi da.
- Antolamenduaren eta plangintzaren blokea ezarrita eta osoa dago: Egungo egitura administratibo eta politikoa.
- LAG eta LPPen erabaki lotesle gehienak: Gune babestuak, errepide-sareak, abiadura handiko trenaren ibilbidea, eta telekomunikazio-azpiegiturak, azpiegitura elektrikoak, etab.
- Egungo lurralde-ereduaren onarpen kritikoa.
- Egungo egitura administratibo eta politikoa.

Oinarriak - Betetako helburuak

Dagoeneko betetako eta onuragarriak izan direla frogatutako helburuak eta azken urteotan adostu diren antolamenduaren alderdi orokorrak. Azken 20 urteotan Lurralde Antolamenduak EAEn lortu dituen aurrerapausoak dira; hortaz, helburua da horietatik abiatzea eta hauek oinarri hartuta aurrera egin ahal izatea. Aipatutako egiaztapen-prozesuak oinarri horiek zein diren adieraziko luke eta komunikazio-, pedagogia- eta sentsibilizazio-ekintzen bidez esplizitatuko lituzke. Azken finean, lorpen baten atzean dauden oinarritzko kontzeptuak dira; lurralde-kultura bat, zeinetan oinarrituta, gauza berriak eraiki, moldatu eta egokitu baitaitezke.

Alderdi eztabaidagarriak

Lurralde-antolamenduan badaude eztabaida sortzen duten erabakiak eta kontzeptuak, eta ikuspuntu oso desberdinak azaltzen dira horien gainean. Era berean, planetan adostu ezin izan diren beste kontzeptu batzuk aurkitzen ditugu; presentzia handirik ez badute ere,

beharrezkoa iruditzen zaigu kontzeptu horiek parte hartzeko prozesuan sartzea, etorkizuneko jardueren norabidea zehazteko.

Atal honek eztabaidatu beharreko funtsezko alderdiak jasotzen ditu. Haien izaera kontuan hartuta, eragileen iritziak argi erakusteko aukera ematen duten prozesu arretatsuagoak behar dira horientzat.

Egin daitezkeen hobekuntzak

Parte hartzeko prozesuaren baitan, funtsezkoa da irudimena sustatzen duten eta etorkizuna modu positiboan pentsarazten duten proposamen berritzaileak eta aurreratuak egitea. Egin daitezkeen hobekuntza horiek denon artean adostu eta zehaztu behar dira.

Atal honek beste batzuek baino askatasun handiagoa izan behar du, hartara, parte hartzen duten eragileek lurralde-antolamenduarekin lotutako alderdiak, kontzeptu berriak eta proposamen berritzaileak proposa ditzaten.

3.4. Oinarrizko Dokumentuaren edukiak

Azaldu ditugun baldintza horiez gain, LAGen berrikuspenean Parte Hartzeko Prozesu honen abiapuntu gisa, Eusko Jaurlaritzako Administrazio eta Lurralde Plangintza Sailburuordetzako zerbitzu teknikoek, Eusko Jaurlaritzako beste Sailen ekarpenekin, Oinarrizko Dokumentua idatzi zuten, LAG berrien eduki proposamenen dokumentu teknikoa, alegia. Horren xedea, beraz, parte hartzen eta iritziak ematen hasteko edukiak ematea zen.

Dokumentua eskuragarriagoa izan zedin, ikuspegi teknikitik oraindik, Dokumentu Exekutibo izeneko bertsio laburtua egin zuten. Orobat, dokumentuaren laburpen bat dakargu hona, parte hartzeko prozesurako balioko duelakoan.

Oinarrizko Dokumentuaren edukiak gaika eta azpigaika sailkatu ziren, honako aurkibide honen arabera:

- Zeharkako gaiak
 - Genero-ikuspegia
 - Klima-aldaketa
 - Osasuna
 - Euskara

- Lurralde-erlazioa
- Paisaia
- Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea
 - Ingurune fisikoaren antolamendua
 - Azpiegitura berdea
 - Azpiegitura berde integratua eta Ekosistemen zerbitzua
 - Naturagune babestuak
 - Korridore ekologikoak
- Landa-ingurunea
- Hiri-ingurunea
 - Hiriaren birgaitze eta berroneratzea
 - Lurraldearen Jasangarritasuna Jarduera Ekonomikoen erabileran
 - Hiri Hazkundearen Perimetroa (HHP)
 - Metropolialdeak eta Eraldaketa Ardatzak
 - Bizitegi-kuantifikazioa
 - Bigarren Etxebizitza eta Baliabide Turistikoak
 - Plangintzen Bateragarritasuna
- Mugikortasun jasangarria
 - Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
 - Bide-mugikortasuna
 - Portu-, trenbide- eta aireportu-mugikortasuna
 - Mugikortasun kolektibo multimodala
 - Eredu logistikoa
- Ura
- Energia
- Gobernantza
 - Parte-hartzea
 - Gobernantza
 - Lurralde- eta hirigintza-adierazleak

Oinarrizko Dokumentuaren edukiek Parte Hartzeko Prozesuaren jarduerak gauzatzeko balio izan zuten.

4. METODOLOGIA ETA EGITURA

Komunikatzeko bide berriek aldatu egin dute elkarrekin harremanetan egoteko modua; izan ere, esparru birtualeko logika askok esparru fisikoaren gizarte-arauak aldatu dituzte, eta alderantziz; komunikatzeko bide berriek bitartekotza-prozesuak eraldatu dituzte, esparru kontzeptual eta harremanetarako esparru horizontalagoak ezartzen dituztelako; lotura zuzenagoak eta gertukoagoak sortzen dituzte; eta, ondorioz, pertsonen arteko harremanak biziagotzen dituzte. Hori guztia horrela dela ulertzen badugu, gizarteak oso aldaketa sakona izan duela onartzeko gai izango gara. Beraz, lurralde mailako prozesuen inguruan pentsatzean, bilakaera hori oso kontuan izan beharko dugu.

Erabilitako metodologia azaltzeko, lehenik eta behin lau kontzeptu bereizi nahi genituzke, horiek ezinbestekoak iruditzen baitzaizkigu lurraldeari ikuspegi garaikide batetik begiratzeko eta hala, proiektuetan arrakasta lortzeko; ondoren, guk geuk garatu dugun metodologia deskribatuko dugu.

- Diziplinartekotasuna. Lurralde-plangintzak integrala izan behar du eta hortaz, lurraldean eragina duten gai nagusien ikuspegi koordinatua izatea komeni da: soziologia, geografia, paisajismoa, zuzenbidea, hirigintza, ekologia, ekonomia, etab.
- Gizartearen parte-hartzea. Ingurunea aldatzeko protagonismoa herritarrek izan behar dute, hori baita proiektuak bere egiteko eta prozesuetan gardentasuna lortzeko modua.
- Tresna digitalak. IKTek (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia) eta garapen teknologikoak prozesuak modu eraginkorragoan garatzeko aukera ematen digute, kostuak eta denborak murrizten direlako.
- Bitartekoen ekologia. Ekologiaren ikuspegitik egin behar da lan bere dimentsio guztietan, eta hala, prozesuak jasangarritasunean eta ekologian oinarrituko dira.

Parte-hartzearen ikuspegitik ere, ikusi dugu plangintza (hirigintza- edo lurralde-plangintza) konbentzionala ez dela nahikoa gure lurraldeek dauzkaten arazoei aurre egiteko.

Teknikariaren zereginak birdefinitzea haien zereginak dibertsifikatzea esan nahi du. Hala, teknikariak, esku-hartze proiektuak garatzeaz gain, horiek modu eraginkorrean garatuko direla bermatzen duten aurretiko azpiprozesu guztietan ere parte hartuko dute. Prozesua bera beste osagai batzuekin osatu beharra dago: ikusgarritasuna emateko estrategiak, kontzientziazio-estrategiak eta estrategia pedagogikoak; halaber, herritarrek prozesua bere egin behar dute.

Parte hartzeko prozesu bat garatzeak ez du ezertarako balio, lehenik eta behin, konpondu behar ditugun gatazkak zein diren ez badakigu, edo ez badugu lortzen herritarrek nahikoa adierazgarriak diren erakundeetan parte hartzea, edo lan pedagogiko sakona egin ez badugu.

Horiek horrela, herritarren parte-hartzea sustatuko duen metodologia bat proposatzen dugu, estrategia partzialen bitartez garatzen dena baina, eraginkorrak izan daitezen, osoko ikuspegi baten baitan kokatzen direnak. Hala, lurraldearen premiak zein diren detektatzera bideratuta dagoen parte hartzeko prozesu bat diseinatu dugu eta, horietan oinarrituta, ekarpen zehatzak jasoko ditugu ikuspegi integral batetik.

4.1. Printzipioak

Halako ezaugarriak dituen proiektuak eskatzen du diziplinaz gaindiko lan teknikoak egitea eta erakunde zein gizarte mailako eragileen arteko koordinazioa ezartzea. Hortaz, proiektuaren egitura metodologikoak bere konplexutasunaren arabera izan behar du.

Metodologia honako printzipio hauetan oinarritzen da:

- **Eragileen arteko lankidetzak:** ezinbestekoa da, negoziazioari, lankidetzari eta baterako helburuen eta estrategien definizioari bidea errazten dioten espazioen eta mekanismoen bitartez, eragile desberdinek parte hartzea -udaleko, Foru Aldundietako zein Autonomia Erkidegoko erakundeak, eragile ekonomikoak, kulturalak eta gizarte-eragileak.
- **Diziplinarteko ikuspegia:** proiektuaren izaera kontuan hartuta, gauzatuko diren jardueretan parte hartuko duten diziplina edo sail anitzetako eta desberdinetako eragileen arteko lan koordinatua erraztuko duen ikuspegi metodologikoa proposatzen dugu; besteak beste: ingurumena, jarduera ekonomikoa, kultura eta turismoa, hirigintza eta mugikortasuna, eta ondarea.
- **Proiektuen zabalkundea eta ikusgarritasuna:** proiektua garatzeaz gain eta haren ezinbesteko osagarri gisa, prozesuaren emaitzak ikusgai egingo dira. Helburu horrekin, fase guztietan zabalkunderako eta komunikaziorako tresnak baliatuko dira eta, horien bidez, dibulgaziozko ekintzak eta komunikazio-kanpainak egingo dira eta Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko web-orrian prozesuan sortutako dokumentuak jarriko dira.

- **Herritarren parte-hartzea:** hurbileko ingurunean arrakasta izango duela bermatzeko, proposatzen dugun metodologiak herritarren parte-hartzea eta proiektuaren balioen inguruko sentsibilizazioa sustatzen ditu. Hala, sentsibilizaziorako ekintzak eta ekintza pedagogikoak garatuko ditugu jasangarritasunaren balioa eta lurraldearekiko nortasuna sustatzeko, betiere herritarrengan interesa piztuko duen ikuspegi ludiko eta erakargarri batetik.
- **Ebaluazioa eta jarraipena:** denboran luzatzen diren halako proiektuak garatzeko, beharrezkoak dira jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak. Izan ere, horiek aukera ematen dute egindako urratsak ikusgai egiteko, egindako jarduerak ikuskatzeko eta babesa emateko eta gerta litezkeen halabeharren aurrean hartutako erabakiak moldatu ahal izateko. Horretarako, teknikarien eta herritarren ikuspegiak barne hartzen dituzten sistemak proposatzen ditugu. Hala, lurralde antolamenduan parte hartzen duten hainbat eragile barne hartzen dituzten jarraipen-taldeak eratuko dira.

4.2. Oinarrizko metodologia: ZHP

Parte hartzeko metodologia batetik abiatzen da, baina gero, metodologia hori egokitu egiten da lurralde-antolamenduaren berezitasunetara oro har eta LAGen Berrikuspenaren prozesura bereziki.

Proposatzen den metodologiaren garapenak lurralde-antolamenduaren arloko zenbait protokolo berrikusgarri zehaztea du helburu, hartara erreplikagarriak izan daitezen. Metodologia hau hiru kanaletan dago egituratuta, denboran paraleloak baina edukian transbertsalak diren hiru estrategiatan. Bakoitzak elkarren osagarriak diren zenbait helburu lortu nahi ditu baina, oro har, osotasuneko ikuspegi batetik heltzen diote proiektuari: Zabalkundea (Z), Herritarrak (H) eta Parte hartzeko proiektua (P)

(Z) ZABALKUNDEAREN KANALA

Proposamenen ikusgarritasuna lortu nahi du, bai tokian tokiko mailan bai maila orokorrean; orobat, proposamenen gardentasuna bultzatu nahi du sare sozialek eta zabalkunderako tresna digitalek eskaintzen dituzten aukerak baliatuz nagusiki, baina, hargatik, komunikabide tradizionalak alde batera utzi gabe.

Proiektu integraletan, zabalkundeak proiektuarekiko konpromisoa hartu duen tokiko taldea handiagotzea lortzen du eta, kanpoan duen oihartzunari esker, maila orokorragoan iritzi-trukaketa gertatzea lortzen du; hartara, proposamenak aberastu egiten dira. Bigarrenik, zabalkundeak ematen duen gardentasuna presio kolektiboa egiteko tresna bihurtzen da eta, hala, proposamenak pentsatu bezala egiten eta betetzen ari diren ala ez ikuskatzeko aukera ematen du.

- Aplikazio praktikoak: Proiektuekin lotutako identitate digitala sortzea (profilak hainbat sare sozial birtualetan), prozesuei ikusgarritasuna emateko eta horiek ikuskatzeko; blogak sortzea eta beste sare sozial batzuetan profilak sortzea, Twitter edo Facebooken adibidez, edukiak zabaltzeko eta sarean feedbacka sortzeko eta, hala, kanpoko ekarpenei esker, proposamenak aberasteko; eta iruditeria bat sortzea (logotipoak, esloganak, diseinuak, etab.), zeinarekin komunitatea identifikatuta sentituko baita, herritarren parte-hartzea sustatzeko eta herritarrek proiektua bere egin dezaten laguntzeko.
- Jarduerak, hala nola: Sare sozialak eta blogak kudeatzea, foro profesionalen artean informazioa emateko eta zabaltzeko georreferentziatutako plataformak sortzea, besteak beste, hitzaldiak, jardunaldiak edo online foroak, argitalpenak, ikus-entzunezko erreportajeak, etab.

(H) HERRITARREN KANALA

Pedagogia eta informazioa baliatuz, parte-hartzearekiko, espazio publikoarekiko edo ekologiarekiko kontzientziazioa ez ezik, erkidego-nortasuna ere jorratzen du kanal honek.

Hala, hiri-eremuaren gainetik erkidego-nortasuna indartzen duen gizarte-egitura bat sortzea lortzen da. Bereziki, elkarlaneko mugimendua, espazio publikoaren balioak, jasangarritasunaren printzipioak eta tresna digitalek prozesuak errazteko duten ahalmena sustatzen dira.

- Aplikazio praktikoa: Sentsibilizaziorako eta jolaserako jardueren programazioa (tailerrak, hitzaldiak, batzarrak, bilerak, jolasak, etab.), herritarren artean lurralde-pedagogia bat sortzeko bide ematen dutenak.
- Jarduerak, hala nola: Herri-ekitaldiak; espazio publikoarekiko, ekologiarekiko eta parte-hartzearekiko sentsibilizazioa ikastetxeetan, zahar-etxeetan eta gizarte-etxeetan; tokiko nortasuna sustatzeko jarduerak, tailerrak edo estrategiak; etab.

(P) PARTE HARTZEKO PROIEKTUAREN KANALA

Tokian-tokian zein oro har, diziplinarteko plangintza-eredu parte-hartzaileak proposatzeaz arduratzen da, eta teilakatu daitezkeen bi fasetan egiten du: proposamenen eta parte-hartzearen diagnostikoa, eta proposamen pilotuak, azken proposamen integralarekin amaitzeko.

Proposamen pilotuak egitura malguak dira, erraz programatu, desprogramatu eta birprogramatu daitezkeenak. Irtenbideak aldi baterako martxan jarri eta probatzeko balio duten laborategi-proba txikiak dira bere horretan, eta azken irtenbidea behin betiko praktikan jarri behar ez izateko aukera ematen dute. Izan ere, horrek inbertsio ekonomiko askoz handiagoa eskatuko luke, baina arrakasta izango duelako bermerik gabe. Aplikatu ahal izateko, Parte hartzearen kanalak ezinbestekoak ditu beste bi kanalak: zabalkundea eta herritarrak.

- Aplikazio praktikoa: Unean uneko esku-hartzeak diseinatzea eta gauzatzea, sortzen dituzten efektuen arabera, berrikus daitezkeenak. Ekintza horiek proposamena garatzen duen talde teknikoak helarazitako proiektu eta ikuspegi oso baten baitan egon behar dute. Ez da une baterako adabakia, esparru oso eta zabalago baten baitan kokatuta dauden ekintza zehatzak baizik. Bestalde, jarduera horiek erkidegoaren laguntzarekin diseinatuko eta, egoerak hala agintzen badu, gauzatuko dira.
- Jarduerak, hala nola: Elkarlanean egindako jarduerak, besteak beste, bideo-mapaketak, herritarrekin, unibertsitateko ikasleekin eta teknikariekin elkarlanean egindako diseinutailerrak, iraupen gutxiko esku-hartzeak, etab.

Hiru kanal horiek denboran paraleloak diren arren, prozesuan duten garrantzia aldakorra da. Hasierako faseetan, Zabalkundearen eta Herritarren kanalei garrantzi handiagoa ematen zaie. Izan ere, helburua da parte hartzen duen taldea handitzea, prozesuari ikusgarritasuna ematea eta gizarte-kohesio eta identitate handiagoa sortzea. Prozesuak aurrera egin ahala, Parte hartzeko proiektuaren kanalak garrantzi handiagoa hartzen du, erabakitzeko prozesuak antolatzeke eta esku-hartzeak lehenesteko.

4.3. Metodologia aplikatua eta parte hartzeko kanalak

ZHP metodologian oinarrituta, LAGen eskalari, edukiei eta ezaugarriei egokitutako lan-prozedura bat garatu zen. Hala, kanal batzuk berrikusi eta berregokitu egin ziren, eta berriak aurkeztu ziren.

Honela, bost kanaletan oinarritutako ekintzen inguruan egituratutako metodologia bat diseinatu zen. Denboran paraleloak baina edukian transbertsalak diren bost estrategia. Bakoitzak elkarren osagarriak diren zenbait helburu lortu nahi ditu baina, oro har, osotasuneko ikuspegi batetik heltzen diote proiektuari: Zabalkundea edo ikusgarritasuna, Herritarrak edo Pedagogia, Parte-hartzea edo Adostasuna, Gobernantza edo Erantzunkidetasuna eta Dokumentazioa edo Erregistroa.

Metodologia orokorrean lehenago azaldu ditugun Zabalkundea, Herritarrak eta Parte-hartzea kanalekin batera, Gobernantza eta Dokumentazioa kanalak deskribatuko ditugu jarraian:

Gobernantza

Gizartearekiko erantzunkidetasunerako mekanismoak ezartzen ditu. Nahiz eta prozesua Administrazioak bultzatzen eta babesten duen, bertan parte hartuko duten eragileek, direla erakundeak edo gizabanakoak, ez dira prozesuaren baitan egongo soilik haien iritzia eman dezaten, baizik eta prozesuaren beraren partaide bihurtu daitezten.

Dokumentazioa

Prozesuaren trazabilitatea eta gardentasuna ondorengo hauen mende daude: jorratutako eduki guztien erregistroa eta dokumentazioa (eta baita zabalkundea ere), gordetzeko eta filtratzeko sistema eta geroko integrazioa.

Alde batetik, akta batek ekintza bakoitzaren emaitzak jasoko ditu ateratako ondorioak batuz. Informazio hori web-orrian dago ikusgai eta eskalaren, gaiaren eta eragile edo taldearen arabera antolatuta agertzen da.

Dokumentazio-prozesuaren gakoetako bat ekitaldien artean dagoen erlazioari egingo zaion jarraipenean edo trazabilitatean oinarritzen da. Hala, argi utzi behar dugu zer informazio pasatzen den zer ekintzatik zer ekintzara, eta zer kontakizun doan bestearen ondotik azken proposamena eraikitzen ari garela; izan ere, azken proposamena aurreko guztien batura da.


Halako ezaugarriak dituen prozesu batean, parte hartzen duten eragileak hainbeste eta hain anitzak izanik -batzuek elkarrengandik oso urrun dauden iritziak dituzte-, funtsezkoa da jasotzen diren iritziei, gai gatazkatsuei edo izan litezkeenei, eta parte hartzeko hainbat estrategiaren emaitzei gardentasuna emango dieten mekanismoak ezartzea.

4.4. Egindako prozesuaren egitura


Parte hartzeko Prozesua lau fasetan antolatu da. Prozesuaren hasierako prestakuntzaren (1. Fasea) ondoren, kontsulta (2. Fasea) egin dugu ahalik eta erakunde eta eragile gehienekin prozesua baliozta zezaten, eta Parte Hartzeko Gida eta Parte Hartzeko Plana idatzi dira. Horrekin batera, Gizartearen Parte-hartze Prozesua (3. Fasea) ireki da herritar guztientzat eta, azkenik, LAGen Berrikuspenaren Aurrerapena idatzi du Sailak, prozesu osoan egindako lanaren ondorioak kontuan hartuta (4. Fasea).

Faseak azaletik deskribatuko ditugu jarraian:

- 1. Fasea: Prestakuntza. Prozesua ikuspegi guztietatik planifikatzeko eta prozesuaren oinarriak finkatzeko hasierako etapa: parte-hartzearen egitura, ekintzak, zabalkundea edo komunikazioa, eragileen arteko koordinazioa eta informazioa biltzea.
- 2. Fasea: Kontsulta. Garrantzi handiko fase honetan, eragile parte-hartzaileek plangintza baliozkotu dute. Horrek prozesua modu egiaztatuagoan eta partekatuagoan garatuko dela bermatzen du. Geroko parte-hartze fasearen ikusgarritasunari ekiten zaio.
- 3. Fasea: Parte-hartzea. Etapa honetan, proposamenak adosteko lana egin da eragile-talde guztiekin hainbat mailatan: Eremu Funtzionala, Lurralde Historikoa eta EAE.
- 4. Fasea: Amaiera. Amaierako etapa honetan, egindako lan guztiaren itzulketa egin da eta Aurrerapena osatu duten ondorioak idatzi dira.



Proposatutako kronograma



Gauzatutako ekintzak

5. GAUZATUTAKO EKINTZAK. GARAPENA, MATERIALAK ETA JASOTAKO INFORMAZIOA

Jarraipena errazagoa izan dadin, gauzatutako ekintza bakoitza azalduko dugu banan-banan: hasierako helburua, planteamendua, eraginkortasuna eta beharrezko materialak, eta baita parte hartzeko ekintza bakoitzean lortutako informazioa eta iritziak ere.

Ondorengo taula honetan hasieran pentsatutako ekintzak eta haien txosteneko azalpena azaltzen dira zerrendatuta, gauzatutako ekintzen arabera sailkatuak edo aldatuak.

HASIERAKO EKINTZAK

- 1 Erakundeen parte-hartze espazioak >
- 2 Prozesuaren aurretiko informazioa garatzea >
- 3 Prozesuaren irudia sortzea >
- 4 Zer dira LAGak? kanpaina >
Oinarrizko Dokumentuko eragileei
- 5 kontsultatzea>
- 6 Prozesuaren web-orria eta identitate digitala >
- 7 Parte-hartze digitalaren irekiera >
- 8 Prozesua irekitzeko jardunaldia >
- 9 Komunikazio-kanpaina prentsan >
- 10 Herritarrentzako postontzi eta panelak >
- 11 Parte-hartze jardunaldiak EFTan
- 12 Parte hartzeko bilerak >
- 13 Jendaurreko aurkezpenak >
- 14 Gaikako mahaia >
Sare sozialetako informazioa biltzea eta
- 15 prozesatzea
- 16 Iritziak erkatzeko azken saioa
- 17 Parte hartzeko espazioekin azken erkatzea >
- 18 Azken Dokumentua garatzea >

GAUZATUTAKO EKINTZAK

- 1 12 17 Erakundeen parte-hartze espazioak
- 2 Prozesuaren aurretiko informazioa garatzea
- 3 Prozesuaren irudia sortzea
- 4 Zer dira LAGak? kanpaina
Oinarrizko Dokumentuko eragileei
- 5 kontsultatzea
- 6 Prozesuaren web-orria eta identitate digitala
- 7 15 Parte-hartze Digitala. Irekiera eta Bilketa
- 8 Prozesuaren irekieraren prentsaurrekoa
- 9 21 Komunikazio-kanpaina
- 10 Herritarrentzako postontzia
- 11 Parte-hartze jardunaldiak EFTan
- > 1
- 13 14 16 Jendaurreko aurkezpenak eta itzulketa
- > 13
- > 7
- > 13
- > 1
- 18 Ekarpunen txostena

Lurraldearen Eguna EUSKAL HIRIA 2016

19 kongresuan >	19	Euskal Hiria 2016 kongresua
20 Dibulgaziorako espazio ibiltaria >	20	Erakusketa ibiltaria
21 Tokiko informazio-kanpaina >	> 9	

1. FASEA: PRESTAKUNTZA

Parte hartzeko prozesuaren lehenengo fase honen helburua zen, prozesua arrakastaz abiarazteko, beharrezko dokumentuak sortzea eta plangintza egitea. Horrek esan nahi du:

- Prozesua garatuko den esparru orokorra definitzea (helburuak, mugak eta prozesuan jasotako ekarpenak txertatzeko sistema).
- Komunikazio-lanak, eragileen arteko koordinazioa eta ekintzak abian jartzeko beharrezkoak diren baliabideak planifikatzea.

1., 12. eta 17. ekintzak. Erakundeen parte-hartze espazioak

Helburua

Konfiantzazko lan teknikorako espazioak sortzea, Zuzendaritza Teknikoak eta Aholku Taldeak prozesuaren faseetan lortutako emaitza partzialen lehenengo datuak eta balorazioa jaso ahal izan ditzaten.

Hainbat erakundek Oinarrizko Dokumentuaren inguruan Sailak antolatutako bileren bitartez emandako iritziak eta egindako ekarpenak jasotzeaz arduratu da bereziki helburu hau.

Nola planteatu eta gauzatu den

Prozesuak duen garrantzia ikusita eta politikan zein gizartean duen eragina ikusita, dagoeneko egon badauden bideak baliatu eta horiekin konfiantzazko teknikari eta profesionalen lan-taldeak sortzea proposatu da, Oinarrizko Dokumentuari buruzko balorazioa egin zezaten. Prozesu hau “gizartearen parte-hartze” delako beste ekintza batzuekin batera gertatu da, 2016ko urtarrila eta azaroa bitartean, hau da, LAGen Aurkezpenetik bertatik Aurrerapenera arte ia.

Ekintza hau guztion parte-hartzearekin gauzatuko zela proposatu bazen ere hasiera batean, azkenean, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak garatu du oso-osorik. Guztira 14 bilera eta lan-foro antolatu dira eta horien sustapena Izaskun Iriarte Irureta Administrazio eta Lurralde

Plangintzako sailburuordeak egin du honako hauen laguntzarekin: Fernando Uriondo Ispizua Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren zuzendaria; Jesús Mari Erquicia Olaciregui Lurralde Antolamenduaren eta Plangintzaren zerbitzuburua; eta Rafael Sánchez Guerras Arabako Lurralde Antolamenduaren arduraduna.

Organoak EAEko Lurralde Politikarako Aholku Batzordea eta EAELABeko Lantalde Teknikoa izatea proposatu da, Sailaren gainerako kontrol-erakundeekin batera. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Talde Teknikoak bi hilean behin bilerak egitea erabaki zuen, LAGen Berrikuspenari buruzko gai guztiak ebaluatzeko.



Ekintza honen saiorik garrantzitsuenak EAELABeko Lantalde Tekniko baten eraketari esker gertatu dira. Bertan, Eusko Jaurlaritzako zenbait Sailek, hiru Foru Aldundiek, EUDEL Euskadiko Udalen Elkartek eta Estatuko Gobernuaren ordezkariak hartu dute parte. Horrekin batera, Lurralde Politikarako Aholku Batzordearen saioak antolatu dira eta bertan, besteak beste, profesionalak eta lurralde-gaietan adituek hartu dute parte.

Horrez gain, erakundeen parte-hartzea kontsultarako organo kolegiatuen bidez sustatu da, hala nola: Ingurumen Saileko Ingurumen Batzordea, Ingurumenerako Batzorde Aholku-emailea,

Naturzaintza, Urdaibaigo Patronatua, Euskadiko Garraio Agintaritza eta Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea (EGAB).

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumenaren eta Lurralde Politikaren Batzordea ere mintzatu zen LAGen berrikuspenari buruz, eta zuzenean eman zen Irekia telebista-katean. [Hona hemen prozesuari buruz Legebiltzarrean erakutsitako aurkezpen-bideoa.](#)

Halaber, Sailak UPV/EHUKo ehuGuneren foro bat antolatu zuen ekainaren 8an unibertsitatearen eta gizarte zibilaren artean eztabaida pizteko. Bertan, beste pertsona eta erakunde batzuen artean, UPV/EHUKo Kultur Paisaia, Lurraldea eta Ondarea izeneko Unesco Katedrak hartu zuen parte. Ekitaldien hasieran, adituen eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkarien aurkezpenak egin ziren, eta ondoren, gonbidatutako pertsona guztiek haien ekarpen partikularrak egiteko txanda ireki zen. [Hauxe izan zen foroaren programa.](#)



Materialak

EAELABeko Lantalde Teknikoaren eta Lurralde Politikarako Aholku Batzordearen bilera bakoitzerako, Sailak gai-zerrenda, deialdia eta amaierako aktaren dokumentua prestatu du. Dokumentazio guztia ondorengo esteka hauetan dago kontsultagai:


[EAEko Lurralde Politikarako Aholku Batzordea](#)

[Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen lantalde teknikoa](#)

Jasotako informazioa

Antolatutako bileren eta ekitaldien ondotik, ekarpenak jasotzen dituzten 68 dokumentu sortu dira guztira, luze-labur desberdinekoak eta ikuspegi desberdinekoak. [Horiek guztiak esteka honetan daude kontsultagai](#). Ekarpen horiek oso baliagarriak izan dira LAGen Aurrerapena idazteko.

Erakundeen alorretik jasotako ekarpenen kronologia ikus daiteke jarraian.



2. Ekintza. Prozesuaren aurretiko informazioa garatzea

Helburua

Parte Hartzeko Gida definitzen duen edukien dokumentu bat eskuragarri izatea, lehenengo fase honetan, Zuzendaritza Teknikoarekin batera eta, ondorengo fasean, zenbait eragile-talderekin batera balioztatzeko eta doitzeko.

Nola planteatu eta gauzatu den

Egin beharreko lehenengo eginkizuna da, lehiaketara aurkeztutako eskaintzaren ondorioz, Parte Hartzeko Gidaren zirriborroan garatu den proposamena balioztatzea eta doitzea da; horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Aholku Taldeak eta Zuzendaritza Teknikoak zenbait bilera egin dituzte. Aldi berean, parte-hartzeari buruzko metodologiaren eta edukien dokumentu baten inguruan lan egin da. Hasiera batean, Parte-hartzearen Esparrua izena hartu bazuen ere, zenbait aldaketaren ostean, Parte Hartzeko Gida izena hartu zuen.

Dokumentu horiek prestatzea helburu hartuta, lan-saioak honako hauek lortzera zuzenduta egon dira:

- Parte hartzeko ekintzen programa zehatz-mehatz definitzea, besteak beste, eragileak zein diren, non eta noiz egin den.
- Prozesuan jasoko den informazioa biltzeko eta prozesatzeko zer sistema erabiliko den erabakitzea eta informazioaren trazabilitate-sistema zein izango den ezartzea.
- Erabiliko den metodologia eta parte hartzeko prozesuaren xede izango den egitura tematikoa doitzea.

Doitze eta definizio zehatz honetatik abiatuta, behin betiko Parte Hartzeko Plana eta Parte Hartzeko Gida prestatu dira.

Halaber, bilera hauei esker, aholku-taldeak prozesurako baliagarria zen informazio eskuragarria jaso ahal izan zuen.

Parte Hartzeko Planak, prozesuaren ibilbide-orria den heinean, proposatutako egitura eta gauzatu beharreko ekintzak zein diren adierazten ditu. Hala, jarduera bakoitzean eragileak zein diren eta non eta noiz egingo den zehazten du eta, orobat, informazioa nola jasoko den eta trazabilitatea zein izango den ere deskribatzen du.

Bestalde, Parte Hartzeko Gidak metodologiari buruzko atal bat du eta bertan, herritarren parte-hartzeak nolakoa izan behar duen eta prozesu honen berezitasunak zein diren zehazten dituen oinarriak ezartzen dira. Tamaina handikoa den parte hartzeko lehen prozesu honetan, Zuzendaritza Teknikoa gidatzeko erreferentzia izan nahi du dokumentu honek.

Atal honen edukiak osatzen lagundu duen erreferentzia garrantzitsuetako bat Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriaren argitalpena izan da. Programa honek (guk azken fasean parte hartu dugu) hainbat eduki metodologikoren ekarpena egin du eta prozesua Eusko Jaurlaritzaren beste prozesu batzuekin lotzen du.

Bigarrenik, Parte Hartzeko Gidak parte hartzeko prozesuak eztabaidagai izan zitzakeen LAGen mugak eta edukiak erakusten ditu. Hau aldagai garrantzitsua izan da hasiera batean; izan ere, eztabaidatuko ziren gaiei buruzko ziurgabetasunaren ondorioz, beldurrak eta zalantzak sortzen ziren. “Mugak, Oinarriak eta Gai eztabaidagarriak eta berritzaileak” izeneko egitura bat proposatu da eta, eroso dela ikusi denez, prozesu osoan mantendu da. Ondorio benetan positiboa izan da ikustea eztabaidak konstruktiboak izan direla ia beti eta halako errezelarik izatea ez zela beharrezkoa.

Prozesuaren aurretiko informazioa prestatzeko ekintza honen baitan, Zuzendaritza Teknikoak eta Aholku Taldeak prozesurako Eragileen Mapa oso bat osatu dute eta entregagaietan gehitu da: 9. Eranskina.

Materialak

Parte Hartzeko Plana eta Parte Hartzeko Gida dokumentu honen 1. eta 2. Eranskinean daude.



EZ DU NORANIZO BAKARREKOA IZAN BEHAR	EZ DU MAKILLAJE EGINTZA BAT IZAN BEHAR
- Ez da nik nahi dudana galdetzea - Ez da erantzun zuzena izatea - Ez da horietatikoa konpontzea - Ez da iniziatza edo aholkua eskatzea, eta iniziatza ematea ere - Ez da soilik galderei erantzutea - Ez da beldur izatea / balbetea - Ez da "bertan da nire gau?"	- Ez da manipulazio politikoa bat - Ez da manipulazioa - Ez da manipulazio partidistekin egindako herritarren instrumentalizazioa - Ez da manipulazio-lan bat, erakusleho bat... - Ez da propaganda - Ez da manipulazioa - Ez da manipulazioa
EZ DA DESOREAK SORTZEA	EZ DA BAT-BATEKO ZERBAT
- Ez da emakidea bat - Ez da inposizio bat - Ez da botere-erlazioa - Ez da enkuartizazioa - Ez da lehendik hartutako erabakiak justifikatzea - Ez da inposizioa - Ez da adostasunaren bilaketa obsesioa - Ez da norandiko bakanrekoa	- Ez da arauik gabeko prozesu bat - Ez da egintza jakin eta puntual bat - Ez da zentzua eta esta mugak ere argi ez dauden prozesu batean inplikazioa - Ez da ibarropen fetsuak sortzea
EZ DA MODA BAT	EZ DA GAUZA SINPLEA
- Ez da moda bat - Ez da marketa, eta publikitate ere - Ez da iniza-kultura - Ez da prozesu elitista bat - Ez da administrazioak sortutako zerbitu - Ez da ez burukoia, ez inposizioa - Ez da inoren jabetzakoa, eta ez inen alderdi politiko-rena	- Ez da sinplea, konplexua da - Ez dira monosilabak, elkarrizketa, iniziatza eta manipulazioak behar ditu - Ez da helburu bat, bitarteko bat da. Baina ez da soilik bitarteko bat: filosofia bat da - Ez da gonbidapen abstraktu bat - Ez da helburu bat, helburu horretara iristen garen modua da

3. Ekintza: Prozesuaren irudia sortzea

Helburua

Proiektu guztirako irudi koherentea sortzea, LAGak berrikusteko prozesuaren eta hasten den parte hartzeko prozesuaren balioak adierazten dituena.

Ekintza gauzatzen zen bitartean, prozesuaren logotipo edo marka-irudirik ez sortzea erabaki zen, beharrezkotzat jo ez zelako. Hargatik, identitate estetiko koherente bat sortu zen.

Nola planteatu eta gauzatu den

Zuzendaritza Teknikoarekin batera erabaki da sortutako irudiaren irismena, printzipioz, parte hartzeko prozesu honi bakarrik lotuta egongo dela. Halaber, prozesurako marka edo logotipo bat ez sortzea erabaki da, eta horren ordez, prozesurako material guztiak barne hartzen dituen irudi grafiko orokor bat sortu da.

Prozesuan gauzatuko diren komunikazio eta ekintza guztietan ideia bateratua eta ezaguterraza adierazten duen irudi bat diseinatu da. Dokumentu guztien artean koherentzia egon dadin ahalegindu gara eta, horregatik, Sailaren eta Eusko Jaurlaritzaren irudi korporatiboan oinarritu gara.

Irudi hori komunikazio publiko guztietan erabili da, besteak beste, informazio- eta dibulgazio-kanpainak egiteko baliatu diren web-orrian, liburuxketan, material grafikoetan eta bideoetan, eta baita parte-hartze jardueretan ere.

Elkarrizketarako eta ekarpenetarako prozesu bat dela-eta, irudiak testu-bunbuiloiz betetako mosaiko bat du atzean, berde koloreko hainbat tonutan, horixe baita euskal lurraldearekin lotutako kolorerik adierazgarriena (Euskal Lurraldea), eta kolore hori nabarmendu nahi izan da iraganean maizago erabili izan den hiriaren koloreen gainetik (Euskal Hiria). Gainean, Helvetica letra erabili da, Eusko Jaurlaritzak erabiltzen duen letra mota delako, eta Black eta Light tipoak erabili dira nabarmendutako izenburuetarako eta testu arrunterako.


Materialak

Jarraian, ereduazko dokumentua eta ereduazko atala osatu duten oinarritzko materialak eta parte-hartze jardueretarako erabilitako gai bakoitzarekin lotutako 5 koloreak zein izan diren erakutsiko dugu. Orobat, Jatorrizko formatuan gehitu ditugu (Entregagaiak atalean).

Ereduzko atzealdea eta mosaikoa



Ereduzko dokumentua eta ereduzko azala



4. Ekintza. Zer dira LAGak? Kanpaina

Helburua

Herritarrei EAEko Lurraldearen Antolamenduaren Gidalerroen eta EAEko Lurraldearen balioen berri ematea eta horien inguruan sentsibilizatzea.

Nola planteatu eta gauzatu den

Fase honen amaieran eta hurrengo faseari lotuta, komunikazio-kanpaina bat diseinatu da komunikabide tradizionaletan eta digitaletan, adituak ez diren herritarrei Lurralde Antolamenduaren balioak eta, zehatzago, LAGen balioak ezagutarazteko asmoz.

LAGak zer diren eta haien berrikuspena zertan datzan azaltzeko helburuaz, zenbait eduki diseinatu dira hainbat formatutan eta prentsa-oharren, sare sozialen, Eusko Jaurlaritzaren web-orriaren bidez eta intereseko eragileekin harremanetan jarritz eman da haien berri.


Diseinatutako bi liburuxkek, 3 minutu irauten duen bideoak eta web-orriko artikuluek eta edukiek, horiek guztiek, EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak zer diren, zer arautzen duten eta lurralde-antolamenduaren beste figurekin zer erlazio duten, zergatik berrikusten diren, izapidetzea zer nolakoa izango den, eta parte hartzeko prozesuan nola parte hartu azaltzen dute.

Nori zuzendua doan kontuan hartuta, kanpainak hizkuntza ulerterraza erabili du eta LAGak EAEko lurralderako zeinen mesedegarriak izan diren nabarmendu du. Era berean, nazioartean erreferentzia direla eta hasiko den parte hartzeko prozesuan oso garrantzitsuak direla nabarmendu du.

Materialak

Hona hemen sortutako materialak (entregatzeko atalean atxiki dira):

- Zer dira LAGak? izeneko dibulgaziozko liburuxka



- Zer gaitan har daiteke parte? izeneko dibulgaziozko liburuxka



- [LAGak zer diren, nola funtzionatzen dute eta zergatik eta nola berrikusten diren azaltzen duen bideoa.](#)



- Ohiko 10 galdera eta Lurralde Antolamenduari buruzko grafikoa jasotzen dituen dokumentua, [web-orrian](#) kontsultagai.

BILATU KONTAKTUA [euskadi.eus](#)

< Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

Zer dira LAG? Maiz egiten diren galderak

Zer dira Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG)?

Zer arautzen dute LAGek?

Nola eragiten didate LAGek egunerokotasunean?

Zein gai hartzen ditu barne?

Orduan, LAGek lurraldeari eragiten dioten gai guztien gainean erabakitzen dute?

Bizitegi kuantifikazioa arautzen duen 4/2016 dekretua aurten urtarrilean onetsi zen, halere eztabaida eta berrikuspenerako gaita al da bizitegi kuantifikazioa?

Zer dira Lurralde-plan Partzialak (LPP) eta Eredu Funtzionalak (EF)?

Zer dira Lurralde-plan Sektorialak (LPS)?

Nork prestatzen ditu LAGak? Eusko Jaurlaritzako sail batek bakarrik?

LAGek, zehazki, naturaguneen babesa, bizitegi-gune edo industrialde handien kokapena edo birmoklaketa, zenbait azpiegitura handiren gubir gorabeherako trazadura eta haiek lurraldean duten funtzioa (bideak, errepideak, trenbideak, portuak, aireportuak, eta abar), oro har, politika publikoen norabidea landa-eremuetan eta hiri-eremuetan, eta baita uraren zein energiaren kudeaketa ere, besteak beste, arautzen dituzte.

Lurralde Antolamendua

Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legea (1990)

- 1990an onartua
- Lurralde-antolamendurako esparru juridikoaren oinarria ezartzen du
- Lurralde-antolamendurako fresnak definitzen eta arautzen ditu

LAG: Lurralde Antolamendurako Gidalerroak (1997)

- Indarrean diren Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak 1997an onartu ziren. EAE 15 eremu funtzionalak (EF) zatitzen dute
- LAGek hiru funtzio betetzen dituzte
 1. Lurraldea orekatzea bermatzeko interes orokorreko irizpideak eta arauak eratzea
 2. lurraldeen antolamendu nahiz erabilerarako erreferentziako esparru bat eraikitzea
 3. Estatuarekin edo beste autonomia-erkidego batzuekin egiteko baterako ekintzak eskatzen dituzten lurralde-ekintzak aurreikustea

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen aurkakoak diren Lurralde-plan Sektorialak zehaztapenak baliozkoak izango dira. Horrela, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak lehenesten dira, ondoren Lurralde-plan Partzialak hartuko Lurralde-plan Sektorialak

ira-lag-maiz-egiten-diren-galderak/web01-s2img/eu/#8707

euskadi.eus eman iritzia!

- Prentsarako eta blogerako artikulua



► Iniciar sesión ► Hazte socio

eldiarionorte.es INFORMACIÓN CERCANA

Última hora Territorios ▼ Sociedad Política Economía Cultura ▼ Opinión ▼ Ir a edición Navarra

eldiarionorte Euskadi / Euskadi

Gobierno vasco abre la revisión de las Directrices de Ordenación del Territorio a un proceso participativo

► Las DOT van a definir la gestión del territorio vasco y las actividades naturales, sociales, rurales y urbanas de las próximas décadas

EUROPA PRESS - VITORIA

25/04/2016 - 14:05h





EAEko Lurralde Antolamendurako Gidalerroen

MÁS EN ELDIARIONORTE.ES

Gobierno vasco abre la revisión de las Directrices de Ordenación del Territorio a un proceso participativo - 25 de Abril

Gobierno vasco organiza un encuentro para la revisión de las Directrices de Ordenación del Territorio de Donostialdea - 20 de Mayo

El proceso revisión de las Directrices de Ordenación del Territorio de Euskadi continúa en verano a través de Internet - 8 de Julio

Gobierno vasco celebrará el próximo lunes una reunión para que la ciudadanía aporte ideas sobre el futuro de Tolosa - 23 de Junio

eFaber

2. FASEA: KONTSULTA

Fase honek gero prozesuan planteamendutik bertatik parte hartu duten eragileak konprometitzea izan du helburu, eta, hasieratik, haien ekarpenei eta iradokizunei tokia utzi die.

Fase honen beste helburu metodologikoetako bat zen, prozesua herritar guztiei ireki aurretik, gertukoagoak ziren erakundeekin zer edukiren gainean parte hartuko zen eta parte hartzeko sistema zein izango zen balioztatzea eta probatzea.

5. Ekintza. Oinarrizko Dokumentuko eragileei kontsultatzea

Helburua

Parte Hartzeko Gidaren laguntzaz, Oinarrizko Dokumentuari buruz Intereseko Eragileek egindako ekarpenak eta iritziak jasotzea.

Nola planteatu eta gauzatu den

Ekintza hau da 2. Fasean egin den lan nagusia. Berrogeita hamarretik gora elkarte, instituzio eta, herri administrazioetik kanpokoak izanagatik ere, LAGen prozesuan interes zuzena eta EAE osoan eragina duten erakunderekin egin dira harremanak.

Gizarte-eragileei, eragile teknikoei eta ekonomikoei deitu eta ekarpenak egiteko eta iritzia emateko eskatu zaie. Erkatze-lan honetarako, hainbat bilera antolatu dira apropos ikusi duten erakunde guztiekin, eta ondorengo eduki hauek jorratu dira:

- Parte Hartzeko Planaren eta bertako edukien aurkezpena: planteamendu metodologikoa, egitura tematikoa, trazabilitaterako eta gardentasunerako sistema eta ekintzen egutegia.
- Bertaratutako pertsonen eta ordezkatzeten dituzten erakundeek Oinarrizko Dokumentuaren eta LAG berrien inguruan aurkeztutako ikuspegiaz emandako balorazioen bilketa.

Bilera eta hartu-eman horietan oinarrituta, erakunde horietako askok [Oinarrizko Dokumentuari ekarpen ofizialak](#) egin dizkiete eta horiek LAGak aberasteko balio izan dute.

Hartu-emanetan aritutako erakundeen taula erantsi da (Entregagaien 9. Eranskina). Guztira 57 erakunderekin jarri gara harremanetan e-postaz zein telefonoz, eta horietatik 18k ekarpenen

bat egin dute eta 10ekin bilera bat antolatu da. Hartu-emanak ondoz ondoko hiru txandatan egin dira, eragileak prozesura gehitu ahala.

1. Txanda

1. Mondragon Unibertsitatea
2. COAVN. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala. Orokorra
3. COAVN. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala. Arabako ordezkari-tza
4. COAVN. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala. Bizkaiko ordezkari-tza
5. COAVN. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala. Gipuzkoako ordezkari-tza
6. AVNAU. Hirigileen elkarte-a
7. Arabako Abokatuen Elkarte-a
8. Bizkaiko Abokatuen Elkarte-a
9. Gipuzkoako Abokatuen Elkarte-a
10. Bide Ingeniarien Elkarte-a. Euskadi
11. Geografoen Elkarte-a
12. Geologo-en Elkarte-a
13. Euskadiko Ekonomialarien Elkarte-a
14. Euskadiko Soziologia eta Zientzia Politikoaren Elkarte-a
15. Euskadiko Biologo-en Elkargo Ofiziala
16. GARAPEN. Garapen Agentzien Euskal Elkarte-a
17. Euskadiko Energia Klusterra
18. ACLIMA. EAEko Ingurumeneko Industrien Kluster Elkarte-a
19. ERAIKUNE. Eraikuntza klusterra
20. MLC ITS Euskadi. Euskadiko Mugikortasun eta Logistika Klusterra
21. Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera
22. Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbera
23. Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbera Ofiziala
24. Euskadiko Parke Teknologikoen Sarea
25. EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA
26. ARABAKO EMAKUMEEN ASANBLADA/ ASAMBLEA DE MUJERES DE ÁLAVA
27. BIZKAIKO EMAKUMEEN ASANBLADA
28. Bilboko Auzo Elkarte-en Federazioa
29. FAVA. ARABAKO AUZO ELKARTEEN FEDERAZIOA (F.A.V.A.)
30. Ekologistak Martxan. Ecologistas en Acción
31. Desazkundera. Desazkunderaren Euskal Herriko Kolektiboa
32. Greenpeace Euskadi

33. Eguzki. Euskal Herriko talde ekologista eta antinuklearra

34. CEA. Ingurugiro Gaietarako Ikastegia

35. Cristina Enea

36. Wikitoki

2. Txanda

37. ENEEK. Euskadiko nekazaritza eta elikadura ekologiaren kontseilua

38. EHNE. Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna

39. ENBA. Euskal Nekazarien Batasuna

40. UAGA. Arabako Nekazarien Elkartea

41. CCOO. Comisiones Obreras

42. UGT. Unión General de Trabajadores

43. ELA. Eusko Langileen Alkartasuna

44. LAB

45. CONFEBASK. Euskal Ugazabak

46. FCAVN. Aurrezki Kutxen eta Finantza Erakundearen Federazioa

47. ERKIDE. Kooperatiben federazioa

48. Gizarte Ekintzaren Hirugarren Sektoreko Erakundeak

49. Merkataritza eta Industria Ganberak

50. ASLE. Lan sozietate anonimoak

51. ANABAC. Arrantza erakundeak

52. EKA, EKE. Kontsumitzaileen elkarteak

3. Txanda

53. Ondartez. Ondare Enpresa Eusko Jaurlaritzaren Sailaren izenean

54. DEUSTU. DEUSTU City Lab katedra

55. Tecnalía

56. Sprilur. Euskadiko Industri Lurzoruaren Sozietatea

57. IOHLEE. Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkartea

Jasotako informazioa

Egindako ekarpen guztiak gizarte-ekarpenen web-orrian daude eskuragarri:

http://www.euskadi.eus/web01-s2ing/es/contenidos/informacion/rev_dot_aportaciones_sociales/es_def/index.shtml

Ekitalde Udalsarea

Horrez gain, azkenik, Ekitalde bat (lantalde teknikoa) sortu da Udalsarea jasangarritasunerako udalerrien euskal sarearekin batera, tokian tokiko adituen iritzia jasotzeko. 2016ko maiatza eta ekaina bitartean 2 lan-saio egin ziren eta horietan, 10etik gora udalerritako ordezkariak hartu zuten parte. Lan-saio horietan, 100 ekarpen baino gehiago jaso ziren landutako 5 gaietarako.

Tailer hauetan eremu funtzionaletako tailerretan jasotako proposamenen antzekoak jaso dira, lanerako materiala berbera izan baita. Hargatik, lan-saio hauen balio erantsia da parte-hartzaileek egunerokoaren kudeaketari buruzko ezagutza dutela.



6. Ekintza. Prozesuaren web-orria eta identitate digitala

Helburua

Prozesuari jarraipena egin ahal izateko eta haren gardentasuna eta irekitasuna bermatzeko gune digitala eratzea. Gune bikoitz hori, web-orria eta bloga, Irekia gunean (Bloga) eta Eusko Jaurlaritzaren beraren webgunearen azpidomeinuan (web-orria) egongo da kokatuta.


Funtzionamendu-sistema zela-eta, “blogak” Irekiaren ezaugarrietara egokitu behar izan zuen, eta, horregatik, ez du bitakora baten funtzionamendua izan.

Nola planteatu eta gauzatu den

Prozesua abiarazi eta ireki aurretik, jarraipena egin ahal izateko beharrezko azpiegitura digitala eraiki da, web-orriaren eta parte-hartzearen eta ekarpenen orriaren bidez.

- **Web-orria:** <http://www.euskadi.eus/revision-dot>

Prozesuaren espazio digital ofiziala da eta Eusko Jaurlaritzaren Sailaren baitan dago. Behin betiko edukiak jasotzen ditu eta erreferentzia-puntu digitala da.



Web-orriaren egiturari eta edukiei buruzko zenbait proposamen aztertu, bi hilabetez lan egin eta hainbat aldaketa eta zuzenketa egin ostean, zenbait atal zabalgarri dituen web-orri jarraitu bat egin da: Zer dira LAGak?, Parte Hartzeko Prozesua, Nola har dezaket parte?, Prozesua jarraitzea eta Deskargak, dokumentazioa eta parte-hartzearen emaitzak.

> Zer dira LAG?

+ Aurrerapena. Tramitazioa.

+ Parte-hartze prozesua

+ Nola hartu dezaket parte?

+ Prozesua jarraitzea

+ Deskargak, dokumentazioa eta parte-hartzearen emaitzak

Prozesuaren berrikuspena azaltzeko sarrera orokor baten ondoren, lehenik eta behin, atal bereizi batean, Ohiko 10 Galdera erantzuten dira eta horietan, LAGen eta lurralde-antolamenduaren sistema osoaren funtzionamendua (grafikoa beheago) eta Berrikuspen prozesua bera eta Parte Hartzeko Prozesua azaltzen dira.

Parte hartzeko prozesua deskribatzeko, zehatz-mehatz bereizten eta azaltzen dira Erakundeen parte-hartzea eta Gizartearen parte-hartzea. Orobat, prozesua jarraitzeko Egutegi zehatza jarri da eskuragarri.

	MARTXOA	APRILA	MARTXOA	AKARUA	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA	URRIA	AZARUA	ABENDUA
	1. HILA	2. HILA	3. HILA	4. HILA	5. HILA	6. HILA	7. HILA	8. HILA	9. HILA	10. HILA
1. FASEA: PRESTAKUNTZA										
01 Erakundeek parte-hartze espazioak sortzea										
02 Prozesuaren aurretiko informazioa garatzea										
03 Prozesuaren irudia sortzea										
04 Zer dira LAGak? informazio- eta sentsibilizazio-kampaia										
2. FASEA: KONTSULTA										
05 Oinarriko Dokumentuko eragileei kontsultatzea										
06 Prozesuaren web-orria eta nortasun digitala sortzea										
07 Parte-hartze digitala irekitzea										
08 Prozesua irekitzea										
09 Promozioa: komunikazio-kampaia prentsan										
3. FASEA: PARTE-HARTZEA										
10 Herriarreen postontzi eta panelak										
11 "Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak Eredu Funtzionaltasun" parte hartzeko jardunaldiak										
12 Erakundeek eta gizarteak parte hartzeko bilerak										
13 Aurkezpen publikoak: Lurralde Historikoetan										
14 Mahai teknikokiak										
15 Sareetako informazioa jasotzea eta prozesatzea										
16 Auker Egiaritzea-saltoa										
4. FASEA: AMAIERA										
17 Auker egiaritzea erakundeek eta gizarteak parte hartzeko espazioetan										
18 Parte-hartzearen emaitzen Auker Dokumentua garatzea										
19 Lurraldearen Eguna EUSKAL HIRIA 2016 kongresuan										
20 Dibulgazio-espazio ibiltaria										
21 Bertako informazio-kampaia										

Deskargak izeneko atala prozesuaren gardentasunaren biltegi gisa erabil daiteke. Bertan, honako hauek aurkituko ditugu:

Dokumentu Orokorrak: Berrikuspenerako erreferentziazko dokumentuak, adibidez, Oinarrizko Dokumentua eta prozesuaren proposamena. Geroago, Aurrerapenaren dokumentuak eta prozesuaren barne-ebaluazioak gehitu dira.

- Parte-hartzearen emaitzak: parte hartzeko prozesuan jasotako informazio guztia, erakundeen eta gizartearen ekarpenak bereiziz. Dokumentuak sortu ahala gehitu dira ekarpenak web-orria, kontsultatu ahal izan daitezen. Institutuzioen 60 ekarpen baino gehiago eta erakunde zein espezialisten 20 ekarpen baino gehiago jaso dira. Horiei eremu funtzionaletako 16 tailerrak eta ekarpen digitalak ere gehitu behar zaizkie.

BILATU

< Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

Gizarteak parte hartu izanaren ekarpenak

Elkarte eta erakundeei egindako konsultak

- > 161018_Euskadiko Geologoen Elkargo Ofiziala Arrisku geologikoak (PDF, 342 KB)
- > 160928_Euskadiko Portu, Ubide eta Bideetako Ingeniarien Kolejioa (PDF, 532 KB)
- > 160914_EAE LAG Kontseilua UEMA (PDF, 188 KB)
- > 160812_EHNEren ekarpenak (PDF, 322 KB)
- > 160728_Bilboko Portua (PDF, 2 MB)
- > 160728_Ekologistak Martxan (PDF, 339 KB)
- > 160720_Ondartez (PDF, 106 KB)
- > 160713_ENEEK Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua (PDF, 600 KB)
- > 160624_Euskadiko Biologoek Elkargo Ofiziala (PDF, 416 KB)
- > 160613_ACLIMA (PDF, 255 KB)
- > 160613_Betsaide Elkartea (PDF, 237 KB)
- > 160613_Wikitoki (PDF, 127 KB) Parte-hartzea
- > 160606_ELA sindikatua (PDF, 72 KB)
- > 160530_Euskadiko Parke Teknologikoak (PDF, 134 KB)
- > 160523_EHAEO Bizkaia Ondare Komisioa (PDF, 1 MB)
- > 160520_Euskadiko Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala (PDF, 298 KB)
- > 160520_Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala (PDF, 203 KB)
- > 160519_EHAEO Gipuzkoa Jasangarritasun Komisioa (PDF, 856 KB)

Linean parte hartu izanaren ekarpenak

- > 161130 EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspena: parte-hartzea digitalaren txostena (PDF)

< [Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila](#)

Partaidetza instituzionalaren ekarpenak

Partaidetza instituzionalaren ekarpenak Aurrerapenari buruz (2017)

 [170320_Sustapen Ministerioa \(PDF, 4 MB\)](#)

 [170320_Bilbao Port Bilboko Portuko Agintaritza \(PDF, 1 MB\)](#)

 [170223_LPOA_Ekonomia eta Aurrekontu Sailburuordea \(PDF, 101 KB\)](#)

Partaidetza instituzionalaren ekarpenak Aurrerapena idazteko (2016)

Eusko Jaurlaritzako Sailak

 [161027_Ingurumen Sailburuordetza Zorua \(PDF, 450 KB\)](#)

 [161010_EVE-Energiaren Euskal Erakundea Energia \(PDF, 498 KB\)](#)

 [161006_Euskal Trenbide Sarea-ETS Mugikortasuna \(PDF, 1 MB\)](#)

 [160928_LPOA_Etxebizitza Zuzendaritza \(PDF, 892 KB\)](#) 11. Atala

 [160912_Justizia Sailburuordetza \(PDF, 398 KB\)](#)

 [160809_Ekonomia eta Aurrekontu Sailburuordetza \(PDF, 547 KB\)](#) Testuinguru sozioekonomikoa

- Parte-hartzearen eta ekarpenen orria: <http://www.irekia.euskadi.eus/es/debates/1056>

Hasiera batean, web-orri alternatiboa bitakora izateko zegoen pentsatua, baina IREKIAra egokitu behar izateak agerian utzi du web-orriak, ezinbestean, LAGen Berrikuspenari buruzko eztabaida eta elkarrizketa aberastera bideratuta egon behar zuela, eta ez hainbeste, ordea, ekintzak jasotzera; izan ere, informazio hori jada sare sozialetan eta orriko egutegian zegoen islatuta. Beraz, parte-hartzearen orri hau Irekiaren egitura eta funtzionaltasunera egokitu da.

Ireakiako eztabaida-orrialdeek 4 fitxa dituzte eta kronologikoki aktibatzen dira. Lehenengoa “Aurkezpena” da eta prozesua zer den azaltzen du; bigarrenak, “Eztabaida”, elkarrizketa irekiak jasotzen ditu (kasu honetan, LAGen Oinarrizko Dokumentuari buruzkoak); eta hirugarrenak, “Ekarpenak”, Dokumentua editatzeko eta dokumentuari aldaketak egiteko aukera ematen du. Azken bi horiek irekita mantendu ziren urriaren 5era arte, iritziak jasotzeko bidea emateko. Azkenik, laugarren fitxak eztabaidaren “Ondorioak” jasotzen ditu eta prozesua bukatutakoan irekitzen da.

The screenshot shows the IREKIA website interface. At the top, there's a navigation bar with the IREKIA logo, language options (es, eu, en), and links for contact, accessibility, and electronic services. Below this is a main menu with categories like 'Participación', 'Departamentos', 'Agenda', 'Noticias', 'Vídeos y fotos', 'Redes Sociales', and 'Programa de Gobierno'. A prominent orange button labeled 'PLANES ESTRATÉGICOS' is visible. The main content area features a section for 'Revisión de las Directrices de Ordenación Territorial (DOT) de la CAPV'. This section includes a 'COMPARTIR' button and a list of tags: #DOT_Euskadi, 48 participaciones, and DOT - Directrices de Ordenación del Territorio. Below this, there's a timeline of events: 'PRESENTACIÓN' (30 de julio de 2015 to 25 de abril de 2016), 'DEBATE' (25 de abril de 2016 to 5 de octubre de 2016), 'APORTACIONES' (29 de abril de 2016 to 5 de octubre de 2016), and 'CONCLUSIONES' (6 de octubre de 2016 to 22 de diciembre de 2016).



Aurkezpenaren atalak aurreko fasean diseinatutako bideoa jasotzen du eta baita Berrikuspenari eta prozesuari buruzko sarrera eta azalpena ere, Zer dira LAGak izeneko triptikoarekin eta Lurralde Antolamenduaren grafikoarekin batera.

Bestalde, Eztabaida eta Ekarpinak izeneko atalak 5 gai eta 21 azpigaitan egituratu dira (Oinarrizko Dokumentutik ateratakoak), parte-hartzea horiei buruzkoa izatea proposatu baitzen hasieratik. Gai horiek Zer gaitan har daiteke parte? izeneko dibulgaziozko liburuxkan daude azalduta. Liburuxka web-orrian dago kontsultagai eta antolatu diren parte-hartze tailerretan ere banatu da.

Abenduan ekarpen digital guztiak jasotzen dituen txostena igo zen web-orrira, Ondorioak atalera.

Materialak

Irekia web-orrirako ez da aparteko edukirik garatu, baina Oinarrizko Dokumentuaren edukiak berrantolatu egin dira.



Jasotako informazioa

Irekia plataforman jasotako askotariko informazioa hurrengo ekintzan dago azalduta, parte-hartze digitalari buruzkoan hain zuzen.

7. Ekintza. Parte-hartze digitala. Irekiera eta Bilketa

Helburua

Herritarrek prozesuan duten parte-hartzea zabaltzea eta, horretarako, tresna digitalak eta IKTak (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak) baliatzea.

Nola planteatu eta gauzatu den

Web-orria eta gainerako parte hartzeko prozesua abiaraztearekin batera, Sailaren profil digitalak sortu dira eztabaida digitalari bide emateko eta ekarpenak jasotzeko.

Internet eta sare sozial digitalen bitartez herritarren ekarpenak jasotzeko eta erregistratzeko aukera ematen duen parte-hartze digitalerako estrategia garatzea zen helburua. Parte-hartze digitalerako, ondorengo kanal hauek erabili ziren:

- Irekia

Irekia plataformako web-orriaren baitan, parte-hartze digitalerako hainbat mekanismo abiarazi dira. Hala nola: gaikako eztabaida-orrialdea, dokumentuari buruzko ekarpenen orrialdea eta orrialdearen oinean eginiko ekarpen orokorrak.

Ekarpen zuzenen orrialdeak Irekiak sortutako edizio-sistema baten bitartez funtzionatzen du eta, horren bidez, zuzenean alda edo iruzkindu daiteke dokumentu bat. Oso sistema baliagarria da eta lege bat edo agiri ofizial bat elkarlanean aldatzeko diseinatu zen.

Revisión de las directrices de ordenación territorial de la CAPV. Capítulo I

0 Debates, Ver por: localización

COMPARTIR ESCUCHAR LA PÁGINA

Comentar

Comentario nuevo
El comentario se aplicará a la siguiente selección:
Aún no ha realizado ninguna selección

Nombre de usuario:
Dirección de correo electrónico:
Título:
Contenido:

1.- La política de la ordenación del territorio en la capv y su marco jurídico

La política de la ordenación del territorio en la CAPV comienza legalmente en 1990 con la aprobación de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de ordenación del territorio del País Vasco que incorpora a nuestro ordenamiento jurídico los instrumentos de ordenación territorial.

Los instrumentos de ordenación territorial previstos en la citada Ley son tres –las Directrices de Ordenación Territorial (DOT), los Planes Territoriales Parciales (PTP) y los Planes Territoriales Sectoriales (PTS)–, están interrelacionados entre sí y constituyen lo que se ha denominado como el “bloque de planificación territorial”¹, porque entre los tres conforman el marco jurídico y las bases de la política de la ordenación del territorio de la CAPV, máxime cuando tanto las DOT como los PTP y los PTS se aprueban por una norma jurídica como es la figura del Decreto.

El presente capítulo realiza un repaso, en primer lugar, del marco jurídico de los

Bestalde, gaikako eztabaida-orrialdeak gai edo azpigai bakoitzaren inguruan eztabaidak sortzeko aukera ematen zuten, aldeko iritzia edo kontrako iritzia emanez.

Directrices de Ordenación del Territorio (DOT) de Euskadi

#DOT Euskadi
3 participaciones
Tags: DOT - Directrices de Ordenación del Territorio, #DOT_residencial

PRESENTACIÓN
20 de julio de 2015
19 de noviembre de 2015

DEBATE
27 de noviembre de 2015
1 de diciembre de 2017

CONCLUSIONES
28 de diciembre de 2017
15 de noviembre de 2018

100 % a favor
2 votos (2/0)

Pincha aquí para ver el video

El 27 de julio de 2015 el Consejo del Gobierno Vasco acordó iniciar el procedimiento de revisión de las Directrices de Ordenación Territorial (DOT) de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobadas por el Decreto 28/1997, de 11 de febrero, y encomendar al Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial la dirección y preparación de dicha revisión de acuerdo con lo establecido en el artículo 10 de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco (LOT).

Asimismo, a través del mencionado Acuerdo, el Gobierno Vasco también determinó que el proceso de revisión iniciado se lleve a cabo en el marco de un amplio proceso de participación, de acuerdo con el compromiso recogido en el actual Programa de Gobierno y en consonancia con las resoluciones adoptadas por el Parlamento Vasco al respecto en la presente X Legislatura.

El hecho de que el proceso formal de revisión de las DOT se plantee al mismo tiempo como un proceso participativo supone la adaptación de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco a las nuevas circunstancias. Fruto de ello es, precisamente, el "Documento Base" que se presenta, cuyo principal cometido no es otro que el de recoger en un documento el enfoque o las propuestas que desde el Gobierno Vasco se presentan en el marco del proceso de revisión de las DOT, que sirva de primer punto de partida para la puesta en marcha del proceso de participación y para llegar a un documento de "Anexo de Directrices", que sea fruto de un proceso de participación.

MODELO TERRITORIAL

El Modelo de las DOT vigente se estructura en torno a tres ejes: el medio físico o base del territorio, el sistema de asentamientos o zonas pobladas y las infraestructuras o conexiones.

El nuevo Modelo de la Revisión se basa en el anterior pero incorpora la mirada hacia un Territorio Inteligente, Sostenible, Social e Innovador, Interconectado y Participativo. Para ello se propone que las nuevas DOT se organicen en los 8 bloques siguientes: Cuestiones transversales, Paisaje, Medio Físico e Infraestructura Verde, Medio Rural, Medio Urbano, Movilidad Sostenible, Agua y Energía.

Tener en cuenta el sistema de planeamiento en cascada de la CAPV con sus mecanismos de regulación y control.

CUESTIONES TRANSVERSALES

Cambio climático

- Continuar con la Estrategia de Cambio Climático 2050 del País Vasco, reduciendo la emisión de gases de efecto invernadero y asegurando la capacidad del territorio vasco de enfrentarse y sobrepasar a nuevos desastres y amenazas naturales (Medidas en páginas 47 y 48 Documento Ejecutivo).

- Integrar el calentamiento global, la lucha contra el cambio climático y la sensibilización en sostenibilidad en los planes urbanísticos y territoriales.

Perspectiva de género

- Tener muy en cuenta y de manera activa el objetivo de igualdad de mujeres y hombres en la elaboración de planes y programas públicos.

- Integrar la seguridad en el espacio público como uno de los derechos fundamentales de la ciudad.

- Promocionar que existan usos y actividades diversos en los barrios e impulsar los valores de la ciudad cercana.

- Twitter

Hasieratik, sareetan prozesua mobilizatzeko, berriazko profil bat sortzen ez duen estrategia bat proposatu da. Azkenean, Sailak hala erabakita, @lurraldea_eus profila sortu da prozesua dinamizatzeko eta berrikuspenera buruzko eztabaida sustatzeko. Proposamenei erreferentzia egiteko, hainbat eztabaida-etiketa sortu dira (hashtag), besteak beste, #DOT_Euskadi #LAG_Euskadi edo #Lurraldea2040. Egindako kanpainetan, gaiak, galderak eta iruzkinak egin zaizkie LAGetan interesa duten beste pertsona batzuei, jakin-mina eta eztabaida pizteko asmoz. https://twitter.com/lurraldea_eus

- Facebook

Facebooki dagokionez, Sailak bazuen jada bere kontua, eta kontu hori erabili da eztabaida pizteko eta jarraitzaile-kopurua handitzeko. Informazio eta iritziak Lurraldea profilean idatzitako sarrerei eta igotako argazkiei egindako iruzkinen bidez jaso dira.

<https://www.facebook.com/lurraldea>

- Herritarraren postontzia edo inkesta digitala

Geroagoko 3. Fasean (10. Ekintza), inkesta digital bat abiarazi da iritziak jasotzeko. Bertan, iritziak Irekia plataforman baino modu irekiagoan eman daitezke, ez baita beharrezkoa izena ematea.

Kanpainak

Sare sozialetako parte-hartzea dinamizatzeko, 3 kanpaina egin dira: prozesuaren hasieran, udan eta udazkenean. Hain zuzen, kanpainei ahalegin handiagoa eskatu dute, jasotako erantzuna ez baita espero zena izan. Ondorioetan sakon heltzen zaio gai honi.

Udako eta udazkeneko kanpainak espezialistek dinamizatu dituzte berariaz sortutako edukien bitartez, eta “Materialak” atalean daude jasota (Entregagaietan gehitu da, 9. Eranskina). Hona hemen Facebook orriak izan duen erantzun-maila urtean zehar.

Prozesu honen amaieran estatistiken eta online ekarpenen txosten bat idatzi da: Dokumentu horrek prozesuak izandako parte-hartze digitalari buruz bildutako informazio hautatua jaso du. Idatzizko testuaz gain, dokumentuak estatistikak ere baditu, bildutako informazioa ulerterrazagoa izan dadin. Dokumentua 7. Eranskinean (Ekarpen Digitalei buruzko Txostena) dago gehituta.

Materialak

Uda hasieran, diseinu erakargarria zuten zenbait galdera gidatu bota ziren eztabaida sortzeko asmoz eta parte-hartze digital aktiboagoa lortzeko asmoz.



LAG



Jasotako informazioa

7. Eranskinean gehitutako Ekarpen Digitalei buruzko Txostenak kanpainen garapen guztia, sare sozialen azterketa eta jokabidea, eta ekarpen horien edukia jasotzen ditu labur-labur azalduta.

Espazio digitalen araberako parte-hartzea




5% facebook



8% irekia




49% inkesta




38% twitter


Guztira, 672 iritzi baino gehiago jaso dira: Irekia plataforman 52 jaso dira; Facebook eta Twitterren, konektatu diren pertsonen 265 iruzkin eta ekarpen egin dituzte, horiek erantzuna jaso dute eta bildu egin dira; eta inkesta digitalean 35 pertsonak erantzun dute eta horietatik, 355 proposamen erauzi dira.



Gai garrantzitsuenak, parte-hartze digitalaren emaitzen arabera, eremu funtzionala aintzat hartuta



Gai garrantzitsuenak, parte-hartze digitalaren emaitzen arabera, generoa aintzat hartuta



8. Ekintza. Prozesuaren irekieraren prentsaurrekoa

Helburua

Hurrengo fasean garatuko den erabaki eta parte-hartze irekiaren prozesua ezagutaraztea eta haren helburuen, egituraren eta faseen berri ematea.

Nola planteatu eta gauzatu den

Parte hartzeko prozesuari hasiera emateko jardunaldi gisa, prentsaurreko bat antolatu zen 2016ko apirilaren 25ean. Bertan, Eusko Jaurlaritzaren arduradun politikoei gizartearen parte-hartze prozesuari formalki hasiera ematen zaiola jakinarazi eta prozesuaren xedeak zein diren azaldu zuten.

Helburua oihartzun mediatikoa sortzea izanik, jardunaldia politikari teknikoei zuzenduta zegoen.

Hala, ekitaldiaren aurretik eta ondotik prentsa-oharrak igorri ziren edukiaren eta aurkezpenaren nondik norakoen berri emanez. Horrez gain, komunikazioa proiektuaren sare sozialen bidez ere egin zen.

Agerraldiaren bideoa honako esteka honetan ikus daiteke:

<http://www.irekia.euskadi.eus/es/news/32228-oregi-proceso-participativo-para-revision-las-directrices-ordenacion-del-territorio-dot-impulsa-una-nueva-gobernanza-cultura-territorial>

Jasotako informazioa

Prentsaurrekoaren ondotik sortutako albisteak hurrengo ekintzan daude jasota, prentsa-ebakinen bilduma gisa (clipping).

9. eta 21. Ekintzak. Komunikazio-kanpainak

Helburua

Erabaki eta parte-hartze irekiaren prozesua ezagutaraztea eta haren helburuen, egituraren eta faseen berri ematea.

Nola planteatu eta gauzatu den

Hainbat komunikazio-kanpaina egin dira berrikuspenaren prozesua eta gauzatu diren ekintzak zabaltzeko.

Lehenengoa parte hartzeko prozesuari hasiera emateko kanpaina izan zen. Ekintza hau aurreko ekintzarekin (prentsaurrekia) erlazio zuzena duen ekintzatzat proposatu da; izan ere, bien helburua parte hartzeko prozesuaren hasieraren berri ematea da. Komunikabide tradizionalei, proiektuaren sare sozialei eta EAEko lurraldeko beste komunikabide digitalei zuzendutako kanpaina bat proposatu da.

Kanpaina nagusia Eremu Funtzionaletako tailerretan parte hartzen duten pertsonak mobilizatzeko helburuaz egin da; 16 kit eta prentsa-ohar prestatu ziren, tailer bakoitzeko bana. Halaber, tailerren emaitzen azterketaren prentsa-ohar bat igorri da eta horren jarraipena egin da.

Itzulketaren faserako, hiru hiriburuetan emaitzak aurkezteko deialdiak eta dagozkien aurkezpenak igorri dira.

Honako hauek izan dira, labur-labur, gauzatutako ekintzak:

- Prozesua aurkezteko prentsa-ohar bat igortzea eta haren jarraipena egitea.
- Eremu funtzional bakoitzean egindako parte-hartze tailerrei buruzko prentsa-oharrak igortzea eta haien jarraipena egitea. (16 prentsa-ohar)
- Parte-hartzearen azterketari buruzko ohar bat igortzea eta haren jarraipena egitea.
- Hiriburuetan emaitzak aurkezteko deialdiak igortzea. (3 deialdi)
- Aurkezpenen deialdia igortzea. (3 deialdi).

Jasotako informazioa

Jarraian zerrendatzen dira prozesuan zehar prentsan agertu diren albisteen estekak:

- http://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2016-04-25/hemeroteca_articles/las-dot-y-la-regeneracion-urbana
- http://www.naiz.eus/eu/iritzia/debate/lurralde-antolaketa?debate_collaboration_id=17
- http://www.eldiario.es/norte/euskadi/Gobierno-Directrices-Ordenacion-Territorio-participativo_0_509199491.html
- <http://www.diariovasco.com/politica/201604/25/gobierno-vasco-revisa-ordenacion-20160425132407.html>
- <http://www.elcorreo.com/bizkaia/sociedad/201604/25/gobierno-vasco-inicia-revision-20160425120312.html>
- <http://www.noticiaspres.es/2016/04/oregi-el-proceso-participativo-para-la-revisin-de-las-directrices-de-ordenacin-del-territorio-dot-impulsa-una-nueva-gobernanza-y-cultura-territorial-2/>
- <http://www.eitb.eus/es/noticias/politica/detalle/4012838/gobierno-vasco-revisara-directrices-ordenacion-territorio/>
- <http://www.20minutos.es/noticia/2730595/0/gobierno-vasco-abre-revision-directrices-ordenacion-territorio-proceso-participativo/>
- http://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2016-04-12/hemeroteca_articles/el-futuro-se-dibuja-en-las-dot
- <http://www.noticiaspres.es/2016/05/zalla-primer-encuentro-participativo-para-la-revision-de-las-directrices-de-ordenacion-del-territorio-2/>
- http://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2016-05-12/hemeroteca_articles/zalla-acogera-el-primer-encuentro-participativo-sobre-las-dot
- http://www.naiz.eus/eu/iritzia/debate/lurralde-antolaketa?debate_collaboration_id=20
- http://www.naiz.eus/eu/iritzia/debate/lurralde-antolaketa?debate_collaboration_id=16
- http://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2016-05-17/hemeroteca_articles/las-dot-se-abren-a-la-fase-de-participacion-social-en-enkarterri
- <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2016/05/22/economia/el-primer-sector-colabora-con-las-dot>
- <http://www.europapress.es/euskadi/noticia-gobierno-vasco-organiza-encuentro-revision-directrices-ordenacion-territorio-donostialdea-20160520171204.html>

- <http://www.noticiaspres.es/2016/05/el-sabado-21-de-mayo-encuentro-participativo-para-la-revision-de-las-directrices-de-ordenacion-del-territorio-area-de-donostialdea-2/>
- <https://www.noticiaspres.es/2016/05/la-revision-de-las-directrices-de-ordenacion-del-territorio-del-area-de-donostialdea-recoge-ideas-de-agentes-sociales-y-vecinales/>
- <http://www.elcorreo.com/bizkaia/duranguesado/201605/19/mancomunidad-organiza-jornada-para-20160519002903.html>
- <http://goierri.hitza.eus/2016/05/25/gaur-lurralde-antolamendurako-gidalerroak-berrikusteko-bilera/>
- <http://www.noticiaspres.es/2016/05/la-comarca-de-zumarragabeasain-aporta-iniciativas-en-la-revision-de-las-dot/>
- <http://www.noticiaspres.es/2016/06/el-workshop-ehugune-aportara-a-la-revision-de-las-directrices-de-ordenacion-del-territorio-la-contribucion-de-la-universidad/>
- <http://etakitto.eus/berriak/lurralde-antolamenduari-buruzko-bilera-egingo-da-gaur.html>
- <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2016/06/01/vecinos/debabarrena/lakua-convoca-en-eibar-a-los-vecinos-de-debabarrena>
- <http://www.elcorreo.com/bizkaia/costa/201606/08/markina-cita-vecinos-uhagon-20160607200617.html>
- <http://lea-artibaietamutriku.hitza.eus/2016/06/08/lagren-berrikuspenerako-parte-hartze-tailerra-gaur-uhagonen/>
- <http://www.noticiaspres.es/2016/06/las-personas-asistentes-a-los-talleres-participativos-para-la-revision-de-las-dot-sugieren-en-vitoria-gasteiz-mas-equilibrio-de-lo-urbano-con-lo-rural/>
- <http://radiollodio.com/2016/06/13/programa-de-13-a-14-147/#>
- <http://www.lavozdelanzarote.com/articulo/politica/acto-ley-suelo-reune-7-partidos-fcm-incluidas-alcaldesas-psoe/20160616233755107812.html>
- <http://www.lavozdelanzarote.com/articulo/politica/mantras-cc-defender-ley-suelo-contestados-uno-son-falsos/20160617112456107832.html>
- http://www.eldiario.es/norte/euskadi/Gobierno-celebrara-reunion-ciudadania-Tolosa_0_529847767.html
- <http://www.deia.com/2016/06/27/bizkaia/vecinos-de-gernika-sugieren-delimitar-la-capacidad-turistica>

- <http://www.noticanarias.com/2016/06/28/nueva-canarias-fuerteventura-insta-a-clavijo-a-facilitar-una-mayor-participacion-y-debate-sobre-la-ley-del-suelo-2/>
- http://www.berria.eus/paperekoa/4670/012/001/2015-11-25/lurraldea_antolatzeko_ardatz_berriak.htm
- <http://lea-artibaietamutriku.hitza.eus/2016/06/08/lagren-berrikuspenerako-parte-hartze-tailerra-gaur-uhagonen/>
- <http://www.diariovasco.com/alto-deba/arrasate/201606/14/taller-para-participacion-ciudadana-20160614012845-v.html>
- <http://www.noticiaspres.es/2016/06/como-quieres-que-sean-igorre-y-su-entorno-dentro-de-20-anos-contribucion-ciudadana-a-la-definicion-de-la-estrategia-de-diseno-y-usos-del-territorio/>
- http://www.eldiario.es/norte/euskadi/Gobierno-Directrices-Ordenacion-Territorio-Donostialdea_0_517948968.html
- <http://karkara.eus/aiaorio/1466000910123>
- <http://zallainfo.zalla.org/2016/05/lurralde-antolamenduaren-gidalerroak.html>
- <http://www.zuin.net/?p=8261>
- <http://ataria.info/tolosa/1465807056386>
- http://www.dendartean.com/eu/berriak/albiste-interesgarriak/item/2032-eaeko-lurralde-antolamenduaren-gidalerroen-berrikuspena-lag/2032-eaeko-lurralde-antolamenduaren-gidalerroen-berrikuspena-lag#.V3o_ZBKdf7s
- <http://www.hauxeda.com/wp-content/uploads/2015/03/Hauxe-Da-567.pdf>
- <http://busturialdea.hitza.eus/2016/06/30/ingurumena-babesteko-eskatu-dute-herritarrek/>
- <http://www.deia.com/2016/07/02/bizkaia/arratia-nervion/igorre-quiere-menos-camiones-en-la-n-240>
- <http://www.noticiaspres.es/2016/06/participacion-ciudadana-en-la-revision-de-las-dot-igorre-proponen-reducir-el-transporte-de-gran-tonelaje-por-la-240-con-la-alternativa-de-la-intermodalidad-2/>
- <http://www.diariovasco.com/costa-urola/zarautz/201606/19/revision-pensemos-futuro-nuestro-20160619004009-v.html>
- Radio Rioja Alavesa: http://www.ivoox.com/taller-dot-laguardia-audios-mp3_rf_11893316_1.html
- <http://goiena.eus/arrasate/1465999176523>

- <http://www.gitb.eus/azken-berriak/8521-lag-ei-buruzko-tailerra>

3. FASEA: PARTE-HARTZEA

Lanaren fase hau izan da parte hartzeko prozesuaren ardatz nagusia. Aurreko faseetan egindako lan guztiek, funtsean, bermatu nahi zuten EAEko LAGen Berrikuspenaren hobekuntza-proposamenak adosteko prozesua –fase honetan egin zena- egokia izatea honako ezaugarri hauek betetzeagatik:

- Parte-hartzen zuen maila (informazioa, kontsulta, ebaluazioa eta adostea) edozein izanik ere, parte hartu nahi zuen EAEko lurraldeko edozein eragile edo pertsonari irekia egotea.
- Prozesu osoan eragileek emandako iritziz eta balorazioak biltzeko eta kudeatzeko sistema gardena izatea.
- Egitura metodologikoaren (gaiak, mugak eta egin litezkeen hobekuntzak) eta gauzatutako ekintzen gaineko adostasuna lortzea.
- Aniztasunari, sentsibilitateei eta euskal gizartearen kodeei dagokienez, inklusiboa izatea.
- Eraginkorra izatea eta, beraz, berrikuspen-prozesuan txerta daitezkeen proposamenak egiteko gai izatea.
- Berritzailea izatea eta, hortaz, Euskadi Eremu, arlo eta eragileen arteko lankidetzan oinarritutako lurraldeko kultura berri batean kokatzeko gai izatea.

Printzipio horietatik abiatuta, fase honek LAGen berrikuspenerako prozesuan aintzat hartuko diren parte hartzeko proposamenak jasotzea zuen helburu.

Prozesuaren koherentzia eta erabakien trazabilitatea gordetzearren, fasea tokiko mailan hasi da eta maila handiagotuz joan da ondorengo ekintzetan: Eremu Funtzionala, Lurralde Historikoa eta, azkenean, EAE osoa.

10. Ekintza. Herritarren postontzia

Helburua


Parte-hartzearen esparruaren berri ematea eta antolatu gabeko gizarte zibilaren iritziak eta proposamenak jasotzea.

Nola planteatu eta gauzatu den

Fase honetako lehenengo ekintza, tailerretarako ezarritako egitura tematikotik abiatuta, erregistrorik gabeko herritarren iritziak jasotzeko sistema digital bat, inkesta digital bat edo herritarren postontzi bat sortzea izan da. Inkesta webgunean eta sare sozialetan estekatu zen, eta eragile interesatuei bidali zitzaien. <https://goo.gl/forms/p8zsBzPisDZPyazp2>

Materialak

Prozesuko irudi-mota berdinarekin, online formulario bat diseinatu zen Google Forms zerbitzuaren bitartez, tailerretan egindako galderak laburbiltzeko, halako moldez, non EAEko edozein pertsonak erantzun baitzezakeen.



The image shows a map of the Basque Country (Euzkadi) with labels for various regions: ZEHARKAKO ALDERDIAK, HIRIGUNEA, URA ETA ENERGIA, MUGIKORTASUN JASANGARRIA, INGURUNE FISIKOA AZPIGOTURA BEROEA, GOBERNANTZA, LANDA - INGURUNEA, and PAISAIA. Below the map is the text "PENTSA DEZAGUN GURE LURRALDEAREN ETORKIZUNEAN" and a small icon of people. To the right is a screenshot of a Google Form titled "Institución o colectivo" and "Municipio". The form includes a section for "Paisaje, Medio Físico e Infraestructura Verde" with questions in Basque and Spanish about landscape, physical environment, and green infrastructure.

Jasotako informazioa

Inkesta digitalean 25 galdeketa oso jaso dira gaztelaniaz eta 10 euskaraz; horietatik 355 proposamen atera dira. Ekarpen horietako informazio guztia 7. Eranskinean biltzen da, Ekarpen Digitalen Txostenean.

11. Ekintza. Jardunaldi parte-hartzaileak Ereku Funtzionala

Helburua

Ereku funtzional bakoitzaren ikuspuntutik, LAGen alderdi nagusien gainean herritarrek duten ikuspegi orokorra antzematea.

Nola planteatu eta gauzatu den

Fase honetako ekintza zentral gisa parte-hartze tailerrak antolatu dira ereku funtzional guztietan. Guztira, 16 tailer planteatu eta gauzatu dira, bat ereku funtzional bakoitzeko, gehi beste bat Markina-Xemeinerako; izan ere, Gernika-Markina, nola edo hala, bi eskualde dituen ereku funtzional bat da-eta.

Antolatu diren jardunaldi guztiek 2 ordu eta erdiko iraupena izan dute. Hasiera batean, parte-hartze eta berrikuspenerako prozesua, Oinarrizko Dokumentua, lan-eremuaren lurralde-berezitasunak eta erabiliko zen dinamika aurkeztu ziren eta, gero, taldeka LAGak berrikusteko gaiak landu ziren; azkenik, prozesua osoko bilkura batean azaldu zen.

LAGDOT parte-hartze tailerra taller participativo



		LEKUA / LUGAR	HELBIDEA / DIRECCIÓN	EREKU FUNTZIONALA / AREA FUNCIONAL
16/5/2016 18:00	ZALLA	Kultur Etxea	Euskadi Plaza, 9 Plaza Euskadi, 9	Enkarterri Balmaseda-Zalla
21/5/2016 10:30	DONOSTIA- SAN SEBASTIÁN	Amarako Kultur Etxea Kultur Etxea de Amara	Anoeta Pasalekua, 7 Paseo de Anoeta, 7	Donostia-Bettri Donostia-San Sebastián
25/5/2016 18:00	BEASAIN	Igartza Conjunto Monumental Igartza Monumentu Multzoa	Oriamendi Kalea, 41 Calle Oriamendi, 41	Goierrri Beasain-Zumarraga
30/5/2016 18:00	DURANGO	Landako Elkartegia	Landako Etorbidea, 6 Avenida Landako, 6	Durangaldea Durango
01/6/2016 18:00	EIBAR	Portalea	Bista-Eder Kalea, 10 Calle de Bista-Eder, 10	Debabarrena Eibar
06/6/2016 18:00	LAGUARDIA	Samaniego Jauregia Palacio Samaniego	San Juan Enparantza Plaza de San Juan, s/n	Arabako Errioxa Laguardia
08/6/2016 18:00	MARKINA-XEMEIN	Uhagon Kulturgunea	Xemein etorbidea, 10 Avenida Xemein, 10	Busturialdea-Artibai Gernika-Markina
11/6/2016 10:30	VITORIA-GASTEIZ	Europa Biltzar Jauregia Palacio de Congresos Europa	Gasteiz hiribidea, 85 Avenida de Gasteiz, 85	Araba Erdialdea Álava Central
13/6/2016 18:00	MUNGIA	Alkartasuna Aretoa	Trobika Kalea, 1 (Udalaren behean) Calle de Trobika, 1 (bajos del Ayuntamiento)	Mungia
14/6/2016 18:00	ARRASATE-MONDRAGÓN	Kulturte	Azoka kalea, 1 Calle de Azoka, 1	Debagoiena Mondragón-Bergara
15/6/2016 18:00	AMURRIO	Katekesi eraikina Edificio de la Catequesis	Araba, 10 (eliza ondoko eraikin) Araba, 10 (edificio amarillo junto a iglesia)	Alara Llodio-Amurrio
18/6/2016 10:30	BILBAO-BILBO	Zehazteke Por confirmar		Bilbo Metropolitarrak Bilbao Metropolitano
20/6/2016 18:00	ZARAUTZ	Sanz Enea Kultur Etxea	Nafarroa Kalea, 22 Calle de Nafarroa, 22	Urola Kosta Zarautz-Azpeitia
22/6/2016 18:00	GERNIKA-LUMO	Astra	Goikoibarra Kalea,1 Calle Goikoibarra, 1	Gernika-Markina Busturialdea-Artibai
27/6/2016 18:00	TOLOSA	Espazio Topagune (Kultur Etxea)	Triangelu Enparantza, 1	Tolosa Tolosaldea
28/6/2016 18:00	IGORRE	Kultur Etxea	Elexalde Kalea, 8 Calle Elexalde, 8	Igorre Arratia

EAEko Lurralde Antolamenduen Gidalerroa (LAG) Berrikuspenean <http://www.euskadi.eus/lag-berrikuspene/> Revisión de las Directrices de Ordenación Territorial (DOT) <http://www.euskadi.eus/revisión-dot>

Tailerrak antolatzeko hainbat lan egin behar izan dira. Lehenik eta behin, espazioak erreserbatu dira, eta tailerrak tokiko erakundeekin koordinatu dira datak eta lekuak zehaztu ahal izateko. Ondoren, Sailak berak babestutako komunikazio-lan handia egin da: tailer bakoitzerako prentsa-oharrak idaztea, tokiko hedabideei kontsultatzea, prentsa kitak prestatzea eta udal guztiei telefonoz deitzea tailerrak antolatzeko. Halaber, anfitrioi lanak egin dituzten udal guztiek zuzendariaren jakinarazpen ofiziala eta deia jaso dituzte.



LAG DOT
Euskadiko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroan (LAG) berrikuspenerako **parte-hartze tailerra**
Parte hartu Euskadiko lurralde estrategian zure eskualde edo eremu funtzionala


AMURRIO
Katekesi eraikina Edificio de la Catequesis
Araba Kalea, 10 (eliza ondoko eraikin horia) Calle Araba, 10 (edificio amarillo junto a la Iglesia)

Asteazkena 15 **Miércoles**
ekainak **junio**
18:00

PENSA DEZAGUN GURE LURRALDEAREN ETORKIZUNEAN
PENSEMOS EL FUTURO DE NUESTRO TERRITORIO

Aiara Eremu Funtzionala Área Funcional Llodio-Amurrio
Informazio gehiagorako: Más información:
www.euskadi.eus/lag-berrikuspena www.euskadi.eus/revision-dot

EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**



Zehazki, tailerrak honako programa honi jarraiki gauzatu dira:

- Hasierako informazioa eta saioa testuinguruan kokatzea (30')

Saio-hasierako sarrera politiko ofizialaz bestalde, tailer bakoitza banaka aurkeztu da, tailerraren testuingurua, tailerraren irismena eta lortu nahi ziren berariazko helburuak azaltzeko.

- Saioaren azalpen metodologikoa (15')

Saioaren baitan garatuko ziren dinamiken berri eman eta praktikan jartzeko argibideak eman dira. Azalpena laguntzaile tekniko batek eman du.

- Parte-hartze dinamika. Talde-lana (45')

Eragile desberdinen artean 21 azpigaien inguruko ideiak trukatzeko helburuarekin, taldeak arintasunez dinamizatu dira, bertaratutako guztiek iritzia emateko aukera izan zezaten. Bertaratutakoen kopuruaren arabera, 4 eta 7 parte-hartzaile bitarteko taldeak sortzeko ahalegina egin da. Eduki berberak zituzten koaderno pertsonalak eta taldean lantzeko panelak entregatu dira: galdera bat 5 koloreko 5 gaitan elkartutako 21 azpigaietako bakoitzarentzat. Talde bakoitzak gai bakoitzeko azpigai bat edo bi aukeratu ditu lantzeko eta sakontzeko. Ohar edo postiten bidez, kide bakoitzak taldeko gainerako kideekin partekatu eta eztabaidatu ditu bere proposamenak.

- Osoko bilkura (45')

Eztabaidaren ostean, talde bakoitzean bozeramaile bat izendatu da, zeinak landutako eduki nagusiak azaldu baititu. Talde bakoitzak 5-10 minutuko azalpena egin du eta, gero, iritzia emateko eta iradokizunak egiteko txanda iritsi da.



Materialak

Parte-hartze dinamika honetan datza: 5 gai eta 21 azpigairen inguruko panelak eta Dokumentu Exekutiboaren laburpenak. Era berean, LAGak azaltzeko aurkezpen labur bat prestatu da, Eremu Funtzional bakoitza zehazten duena. Honekin batera doa Entregagai gisa.

Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea
Paisaje, Medio físico e Infraestructura verde

Ze paisaia mota ezagutzen dituzu zuren ingurunean eta Euskadin? Baiotsuak direla uste duzu? Ze neurri proposatzen dituzu zure ingurunea babesteko eta inguruko edo Euskadiko paisaia hobetzeko? ¿Qué tipos de paisajes conoces en tu entorno y en Euskadi? ¿Los consideras valiosos? ¿Qué medidas propones para proteger o mejorar el paisaje de tu entorno y el de Euskadi?

- [illegible]

BABESTUTAKO NATURGUNEAK/ ESPACIOS NATURALES PROTEGIDOS

EAEn babestuta dauden Naturguneen egoera edo kudeaketa nola hobetuko zenuke? Egun, azaleraren %23a hartzen dute. ¿C6mo mejo-
raritz die situaci6n de la gesti6n de los Espacios Naturales Protegidos que hay en la EAPB? En la actualidad ocupan un 23% de la superficie.

- [illegible]

Mugikortasun jasagarria eta azpiegiurak
Movilidad sostenible e Infraestructuras

OINEZKOEN ETA BIZIKLETEN MUGIKORTASUNA MOVILIDAD PEATONAL Y CICLISTA

¿Qué propuestas harías para mejorar la movilidad peatonal y ciclista en tu entorno y en la CAPV?

- [illegible]

BIDE-MUGIKORTASUNA MOVILIDAD VIARIA


¿Qué importancia crees que ha de tener la movilidad vial o el tráfico rodado en el modelo de movilidad vasca?

- [illegible]


Jasotako informazioa

Herritar guztiei zuzendutako aurrez aurreko saio hauetan 301 pertsonek hartu dute parte 15 eremu funtzionaletan banatutako 16 tailerretan. Osoko bileretan 711 proposamen jaso dira, eta horiek guztiak Aurrerapenean txertatzeko baloratu ditugu. Ekarpenetako informazio guztia 6. Eranskinean (Aurrez aurreko Ekarpenen Txostena) jasotzen da.


Eremu funtzional bakoitzeko gai aipagarrienak, eremu funtzionaletan egindako tailerretako emaitzak aintzat hartuta



Eremu funtzionaletako tailerretan parte hartu duten pertsonen kopurua, jatorrizko udalerririk aintzat hartuta



Elkarrizketetan eta tailerretan parte hartzen duten eragileen izaera



4. FASEA: AMAIERA

Azken fase honetan, hainbat ekitaldi eta dokumenturen bidez jasotako informazioa itzuli da, eta bidea urratu da LAGen berrikuspenaren hurrengo faserako: Hasierako Onespena.

Tailerrak antolatu zirenetik igarotako denbora kontuan hartuta, jendaurreko aurkezpenak fase honetan sartu dira.



Euskal Hiria 2016 Kongresuak areto nagusia bete egin zuen.

13., 14. eta 16. Ekintzak. Jendaurreko aurkezpenak eta itzulketa

Helburua

Eremu Funtzionalaletako parte-hartzearen emaitzen eta Lurralde Historikoetan egingo diren hurrengo ekintzen berri ematea.

Jendaurreko aurkezpenak, Gaikako mahaiak eta Iritziak erkatzeko Azken Saioa, azkenean, 3 hiriburuetan egindako 3 jendaurreko aurkezpenetara mugatu dira, Zuzendaritza Teknikoaren eskariz.

Nola planteatu eta gauzatu den

Eremu funtzional guztietan egindako 16 tailerren itzulketa gisa, 3 aurkezpen antolatu dira, bat Lurralde Historiko bakoitzeko. Saileko Zuzendaritza Teknikoak eskatuta, irailerako antolatu zen itzulketa abendura arte atzeratu zen.

Azkenean, abenduaren 12, 13 eta 20an aurretik egindako parte hartzeko prozesuaren emaitzen jendaurreko aurkezpenak egin ziren; bertan, Lurralde Historiko bakoitzean egingo zen parte-hartze lana azaldu zen.

Jendaurreko aurkezpen horiek ordu eta erdiko iraupena eta honako programa hau izan zuten:

- Aurkezpen politikoa Zuzendariaren kontu (10')
- Parte-hartzearen emaitzen aurkezpena Aholkulari-taldearen kontu (20').
- LAGen Aurrerapena aurkeztea, zerbitzuburuaren kontu (30').
- Galderak eta eskaerak (30').

Materialak

Bertaratutako pertsonen erakusteko itzulketa gisa, parte-hartzaileen proposamenak laburbiltzen dituen aurkezpen bat prestatu da. Horrez gain, jasotako proposamen guztiak aktetan (Entregagaietan erantsiak) eta 6. Eranskinean aurki daitezke.

Datu benetan interesgarria da aurrez aurreko parte-hartzerako proposamenek adostasun-maila oso altua lortu izana.

Lortutako adostasun-mailak, gaiak aintzat hartuta



Era berean, parte hartzeko prozesua laburbiltzen duen bideo bat prestatu da, bai eta sare sozialetan hedatu ere. [LAGen berrikuspena. Parte hartzeko prozesuaren ondorioak](#)



18. Ekintza. Ekarpenen Txostenak

Helburua

LAGen berrikuspenerako prozesuan aintzat hartuko diren parte hartzeko proposamenei buruzko ondorioak ateratzea.

Nola planteatu eta gauzatu den


Hasiera batean, prozesuko dokumentazioaren trazabilitatearen mesedetan, aurreikusi zen ekarpenak laburtzen zituen txosten bat prestatzea eta hori Oinarrizko Dokumentuan sartzea. Azkenean, Saila bera eta erredakzio-taldea arduratu dira parte-hartzearen informazioa txertatzeaz.

Hortaz, 18. Ekintzan, prozesuko fase honetan egindako ekarpenak bi txostenetan jaso dira eta erredakzio-taldeari helarazi zaizkio. Kasu bietan gehien errepikatu diren ekarpenen laburpenak egin dira eta, aurrez aurreko ekarpenak Oinarrizko Dokumentuarekiko adostasun-edo desadostasun-mailaren arabera bereizi dira, txertaketa errazte aldera.

Aurrez aurreko Ekarpenen Txostena eta Ekarpen Digitalen Txostena osorik eransten dira 6. eta 7. Eranskinetan.

Materialak

Aipatu txostenak ulergarriago egiteko hainbat eduki prestatu dira, parte-hartze digitalaren grafikoak eta eskemak eta aurrez aurreko parte-hartzearen estatistikak, besteak beste; horiek guztiak txostenetan agertzen dira.



19. Ekintza. EUSKAL HIRIA 2016 Kongresua

Helburua

Herritarrei eta eragile parte-hartzaileei parte hartzeko prozesuaren emaitzen berri ematea.


Nola planteatu eta gauzatu den

Prozesuari amaiera emateko, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak Euskal Hiria 2016 Kongresua antolatu zuen azaroaren 21 eta 22an. Bi jardunaldi informatibo eta akademiko horiek prozesuaren emaitzak, hau da, LAG berrien Aurrerapena, ezagutaraztea ahalbidetu dute. Orobat, jardunaldia prozesuan parte hartu duten pertsonei eskerrak emateko eta ekarpenak itzultzeko aukera izan zen. Ekitaldia Donostian egin zen, Euskal Hiria kongresuen txanda jarraituta.

Ohikoa den bezala, jardunaldiak halaxe banatu ziren: hitzaldiak bi goizez eta arratsalde batez, kasu honetan, LAGen Aurrerapen-dokumentua protagonista izaki.



Aholkulari-taldeak, hitzaldiekin batera, parte hartzeko prozesua eta LAGen Berrikuspenaren Aurrerapena azaltzen eta laburbiltzen dituen erakusketa bat (hurrengo ekintzan azaltzen da) jarri zuen alboko lokalean. Aldi berean, argazkiak, elkarrizketa eta erreportaje grafikoak egin zituzten Kongresuaren sarreran horretarako prestatutako photocall batean (atzeko plano aurreko orrian ikus daiteke).



Era berean, ekitaldia Aurrerapenaren informazio-kanpaina eta 3 hiriburueta eraman den erakusketa abiarazteko baliatu zen.

Materialak

Ekitaldia dinamizatzeko eta aktibatze hainbat proposamen prestatu ziren. Horietatik, honako hauek egin ziren: photocalla, videocalla eta erakusketa. Erakusketa hurrengo ekintzan agertzen da, alboan Aurrerapenaren leloa (LURRALDEA 2040) kartoizko letra erraldoietan irudikatuta.

Jasotako informazioa

Irekia gunean, esteka [honetan](#) eta [beste honetan](#) jasotzen diren ekitaldiarekin lotutako adierazpenak eta argitalpenak ez ezik, Euskal Hiria 2016 Kongresuan zehar egindako elkarrizketak biltzen dituen bideo bat prestatu da, non bertaratutako zenbait pertsonari galdetzen baitzaien nola imajinatzen duten etorkizuneko EAE. Bideoa sare sozialetan partekatu da.

[#Lurraldea2040 Lurralde-estrategia: Nolako EAE nahiko zenuke 20 urte barru?](#)



Estrategia Territorial #Lurraldea2040: ¿Cómo quieres que sea Euskadi

20. Ekintza. Erakusketa ibiltaria

Helburua


Herritarrei eta Eremu Funtzionaletako eragileei parte hartzeko prozesuaren emaitzen berri ematea.

Nola planteatu eta gauzatu den

Euskal Hiria 2016 Kongresua eta Aurrerapenaren zabalkundea osatzeko, parte hartzeko prozesuaren emaitzak eta Aurrerapen-dokumentua hizkuntza xaloan ezagutarazteko instalazio informatzaile eta dibulgatzailea sortzea pentsatu zen, parte hartzeko prozesuan parte hartu dutenei itzulketak egiteko ere balioko zuena.

Horretarako, honako erakusketa hau instalatzea proposatu zen: 14 panel karratu 90x90cm-ko egurrezko kuboan gainean muntatuta, parte hartzeko prozesua eta Aurrerapen-dokumentua labur-labur azaltzeko. Erakusketarekin batera, 30cm-ko altuera duten kartoizko letrek Aurrerapenaren leloa, Lurraldea 2040, irudikatuz, eszenografia sortzen laguntzeko.

Gainera, erakusketaren alboan, prozesua aurkezten eta laburbiltzen duten bi bideoak etengabe proiektatu dira, LAGen Berrikuspena eta Aurrerapenean jasotako proposamenak ezagutzeko ikus-entzunezko erakargarri gisa.



Instalazioa EAEko hiriburu batetik bestera eraman zen 2016ko abendutik 2017ko otsailera arte. Behin betiko datak eta lekuak hauek izan dira:

- Donostia-San Sebastián. Carlos Santamaria eraikina. 2016ko azaroaren 21-28
- Vitoria-Gasteiz. El Pilar Gizarte Etxea. 2016ko abenduaren 5-11.
- Bilbao. COAVN Bizkaia. 2017ko urtarrilaren 17tik otsailaren 17ra.

Erakusketa bakoitzerako, sare sozialetan eta hedabideetan zabaltzen diren kartelak eta deialdiak prestatu ziren. Horrez gain, erakusketaren inauguraziorako, zerbitzuburuak aurkezpen ofiziala egiteko saio bat antolatu zuen, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Bizkaiko egoitzan.

Materialak

Erakusketa honetarako berariaz diseinatu eta eraiki dira: 60x60cm-ko egurrezko kuboak, PVCzko 14+8 panelak eta letra erraldoiak (enpresa espezializatu batek eskuz egindakoak). Gainera, deialdietarako kartelak, prentsa-oharrak eta materialak diseinatu dira, bai eta erakusketa birtual bat ere, [Prezi plataformaren](#) bidez.

LURRALDE 2040
presentación del Avance de las Nuevas Directrices de Ordenación Territorial (DOT) de la CAPV

EAEko Lurralde Antolamenduen Gidalerro (LAG) Berriko Aurrerapenaren gaineko aurkezpena

Jesús Mari Erquicia
Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza eta Hingintzaren Zuzendaritzako Lurralde-antolamendua eta Plangintzaren Arduraduna
Responsable de Ordenación Territorial y Planeamiento de la Dirección de Planificación Territorial y Urbanismo del Gobierno Vasco


18 urtarrilak enero
goizeko 12tan 12 de la mañana


Bukatzerakoan agapea zerbitzatu da. Al finalizar se servirá un ágape

BILBO-BILBAO
Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko Bizkaiko Ordezkaritza
Delegación en Bizkaia del Colegio Oficial de Arquitectos Vasco Navarro
Mazarredo Zumardia, 69. Bilbo
Alameda Mazarredo, 69. Bilbao

COAVN
BIZKAIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO





6. ENTREGAGAIEN, ADIERAZLEEN ETA EKINTZEN EGIAZTAPENA

6.1. Entregagaiak

9. Eranskinarekin batera doaz prozesuko entregagai guztiak, jarraian zehazten diren bezala.

Entregagaiak, 1. fasearen dokumentazioa

- **Parte hartzeko Plana.** Egitura metodologiko orokorra zein izango den ezartzen du eta dokumentuan deskribatutako ekintzak zehatz-mehatz azaltzen ditu, besteak beste, tenporalizazioa, egutegia eta ekintza bakoitzean parte hartuko duten eragileak, bai eta prozesu guztiaren kudeaketa-, bilketa- eta ikuskapen-sistemak ere.
- **Eragileen mapa.** Parte-hartzearen 3. Fasearen aurretik kontsultatutako entitateak, izan erakundeak edo gizarte-eragileak, zein diren erakusten duen Taula proposatzen da.
- **Parte hartzeko Gida.** Oinarrizko Dokumentutik abiatuta, Parte hartzeko Gida prestatzen da, parte-hartzea martxan jartzeko abiapuntua.
- **Komunikazioa.** Herritarrengana oro har eta kolektibo zehatzengana iristeko ahalik eta zabalkunderik handiena bermatzeko asmoz, egin beharreko lanak, komunikatu beharreko prozesuaren mugarriak, kanalak, protokoloak, mezuak eta estrategiak identifikatzen dira.
- **Webg-orria eta Bloga.** Hurrengo faseko eginkizunak bizkortzeko helburuaz, webgune eta blog bat, bitakora antzekoa, egitea proposatu zen. Zer egitura eta zer atal izango dituzten, bertako edukiak eta eguneraketa-egutegia zein izango diren ere zehaztu zen.
- **Dibulgaziozko materialak.** Hurrengo asteetan egingo zen sentsibilizazio-ekintzarako beharrezko dokumentazioa prestatu da fase honetan:
 - + Parte hartzeko prozesurako irudia (logorik sortu gabe). Ereduzko kartela eta dokumentua.
 - + “Zer dira LAGak” izeneko dibulgaziozko bideoa, kartela eta liburuxka.

- **Jarduera-memoria.** Prestakuntzako fase honetan oraindik ere ekintza ugari gauzatu gabe badaude ere, hasiera-hasieratik dokumentu hau sortzea proposatu zen. Unera arte egindako guztiaren memoria da eta fase bakoitzaren amaieran eguneratu eta zabaldu egin da.

Entregagaiak, 2. fasearen dokumentazioa

- **Bildutako informazioaren erregistroa.** 2. eta 3. faseen amaieran eguneratu den beste dokumentuetako bat da. 5.2 atalean azaltzen den bezala, ez da bakarrik eragileen iritzia eta proposamenak jasotzen dituen datu-base bat; izan ere, erregistro-sistema hau eta lotutako bistaratzeek orain arte prozesutik ateratako ondorio partzialen laburpen gisa funtzionatzen dute:
 - o Faseko emaitzen matrizea
 - o Bileretako aktak
- **Jarduera-memoria.** Fase honetan egindako jarduerekin eguneratua: Eragileei egindako Kontsulten inguruko batzarrak, Kanpo Foroaren Batzarra, Irekieraren aurkezpena, Prentsa-kanpaina eta egindako lanen txostena.

Entregagaiak, 3. fasearen dokumentazioa

- **Bildutako informazioaren erregistroa.** Parte-hartze fasearen amaieran, bildutako informazioaren erregistro-dokumentua ondorengo emaitza hauekin osatu da: Postontzi fisiko eta digitalak, Jarduera pedagogikoak, Eremu Funtzionaletan Jardunaldi parte-hartzaileak, Jendaurreko aurkezpenak, Lurralde Historikoetan antolatutako Gaikako mahaiak, Sareetako informazioa biltzea eta prozesatzea eta Iritziak erkatzeko Azken Saioa.

Jarduera bakoitzerako, honako hau entregatu da: Jarduera bakoitzaren emaitzen matrizea, Parte-hartzaileen ezaugarriak.

- **Dibulgaziozko materiala.** Txostena garatutako dibulgaziozko materialarekin osatu da.
- **Jarduera-memoria.** Fase honetan egindako jarduerekin eguneratua: postontzi fisiko eta digitalak, ekintza pedagogikoak, LAGetan parte hartzeko jardunaldiak, erakundeek eta gizarteak parte hartzeko bilerak, jendaurreko aurkezpenak, gaikako mahaiak, iritzia erkatzeko saioa eta parte-hartze digitala.

Entregagaiak, 4. fasearen dokumentazioa

- **Parte-hartzearen ekarpenen amaierako dokumentua.** Dokumentuak prozesu osoaren ondorioak jasotzen ditu eta Zuzendaritza Teknikoak LAGen Berrikuspenerako baliatu duen dokumentu nagusia da. Parte hartzeko Gidaren egitura bera du, bertatik garatutako dokumentua baita.
- **Dibulgaziozko materiala.** Txostena fase honetan garatutako dibulgaziozko materialarekin osatu da, liburuxka bat eta dibulgaziozko azken materialak barne.
- **Jarduera-memoria.** Fase honetan egindako jardurekin eguneratua: iritzia erkatzeko azken saioa, lurraldearen eguna, dibulgaziorako espazioak.

6.2. Adierazleak

EKINTZA		ADIERAZLEA	
01	Erakundeen parte-hartze espazioak eratzea	1	Fase bakoitzean bilera bat egitea EAELAB eta Lurralde Politikarako Aholku batzordearekin
		2	> Haien proposamenak Oinarrizko Dokumentuan txertatzea
02	Prozesuaren aurretiko informazioa garatzea	3	> Parte hartzeko Plan osoa aurkeztea, ele bietan eta adostua
		4	> Parte hartzeko Gida osoaren zirriborroa aurkeztea, ele bietan
		5	> Eragileen Mapa osoa sortzea
		6	> Komunikazio Plana, dibulgaziozko materialak eta irudi digitala prestatzea
03	Prozesuaren irudia sortzea	7	> Zuzendaritza Teknikoarekin adostutako ereduzko irudi bertikala diseinatzea
		8	> Irudia kartel bertikalekara zein horizontalekara eta liburuxketara egokitzea
		9	> Irudia prozesuaren web-orrira eta blogera egokitzea.
04	Zer dira LAGak? kanpaina	10	> Dibulgaziozko liburuxka eta materiala sortzea, hizkuntza xaloa darabilena
		11	> Zuzendaritza Teknikoarekin adostutako dibulgaziozko bideoa
		12	> Kanpaina herritarrengana 6 kanal baino gehiagoren bitartez iristea
05	Oinarrizko Dokumentuko Kontsulta-plana	13	> Gutxienez ere 30 erakunderekin harremanetan jartzea > 57
		14	> Hautatutako eragileei informazioa bidaltzea eta haiengandik informazioa jasotzea
		15	> Gutxienez ere 15 erakunderekin bilerak izatea > 10
06	Prozesuaren web-orrria eta identitate digitala sortzea	16	> 2. fasea amaitu baino lehen, Irekia webgunearen baitan adostutako bloga sortzea
		17	> 2. fasea amaitu baino lehen, webgunean prozesuari dagokion atala eratzea
07	Parte-hartze digitalaren irekiera	18	> Gutxienez ere Irekian, Twitterren y Facebooken iritziak jasotzeko aukera zabaltzea
		19	> Gutxienez ere 5 interakzio egitea sare digital bakoitzean
08	Hasiera: prozesua hasteko jardunaldia	20	> Prentsaurrekora gutxienez ere 4 komunikabide bertaratzea lortzea
		21	> Gutxienez ere 4 komunikabidetan prentsaurrekoari buruzko argitalpena azaltzea.
09	Hasiera: komunikazio-kanpaina prentsan	22	> Prentsa-oharra gutxienez ere 2 agentzia eta 3 komunikabidetara helaraztea
		23	> Gutxienez ere 4 komunikabidetan prentsa-oharraren berri azaltzea
10	Herritarrentzako postontzi eta panelak	24	> Irekia webgunean iritziak jasotzeko online formulario bat sortzea
		25	> Udalsarearen bitartez zabalduko den kita sortzea
11	"LAGak Eremu Funtzionaletan" Jardunaldi parte-hartzaileak	26	> Jardunaldiak gutxienez ere Eremu Funtzional guztiak estaliko dituen 18 kokalekutan egitea > 16
		27	> Kokaleku bakoitzera batez beste gutxienez ere 20 pertsona bertaratzea
		28	> Bertaratutako emakumeen edo gizonen kopurua %30 baino gutxiago ez izatea
12	Erakundeek eta gizarteak parte hartzeko bilerak	29	> Eremu bakoitzari gutxienez ere bilera baterako deialdia egitea fase honetan
13	Lurralde Historikoetan antolatutako jendaurreko aurkezpenak	30	> 3 lurraldeetan 3 aurkezpen antolatzea eta horietara gutxienez ere 30 pertsona bertaratzea
		31	> Eremu Funtzionaletan egindako ekarpenak behar bezala itzultzea
14	Gaikako Mahaiak	32	> Lurralde bakoitzean batez beste gutxienez ere 30 pertsona bertaratzea
		33	> Bertaratutako emakumeen edo gizonen kopurua %30 baino gutxiago ez izatea
15	Sare sozialetako informazioa biltzea eta prozesatzea	34	> Gutxienez ere komunikabide digitaletan utzitako 100 iritzi jasotzea

		35	> Iritzi digitalen matrizea sortzea	
16	Iritziak erkatzeko Azken Saioa	36	> Lurralde bakoitzean batez beste gutxienez ere 30 pertsona bertaratzea	
		37	> Bertaratutako emakumeen edo gizonen kopurua %30 baino gutxiago ez izatea	
		38	> Gutxienez ere edukien %50ean ados jartzea	
17	Parte-hartze espazioekin azkenekoz iritziak erkatzea	39	> Eremu bakoitzari gutxienez ere bilera baterako deialdia egitea fase honetan	
18	Parte-hartzearen ekarpenen amaierako dokumentua	40	> Erregistro-sistemaren 20 iturritan oinarritzea Amaierako Dokumentua prestatzeko	
		41	> Behin betikoa eman baino lehen, Zuzendaritza Teknikoari dokumentuaren zirriborro bat ematea	
		42	> Prozesurako, parte-hartzeari buruzko gomendioak dituen dokumentua osatzea	
	Lurraldearen Eguna EUSKAL HIRIA 2016 kongresuan	43	> Ekitaldiaren zabalkundea egitea eta, ondorioz, gutxienez ere 50 pertsona bertaratzea	
		44	> Dibulgaziorako instalazioa eta prozesuaren ondorioak aurkeztea	
20	Dibulgaziorako espazio ibiltaria	45	> Batetik bestera mugitzeko aukera ematen duen instalazio egonkorra eta iraunkorra sortzea	
		46	> Instalazioa 3 lurralde historikoetara eramatea	
21	Tokiko informazio-kanpaina	47	> Prentsa-oharra gutxienez ere 2 agentzia eta 3 komunikabidetara helaraztea	
		48	> Gutxienez ere 4 komunikabidetan prentsa-oharraren berri azaltzea	



Adierazlea: Ondo osatu da / Neurri batean osatu da / Ez da osatu / Ez da konputagarria

6.3. Egutegia

		MARTXOA	APIRILA	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA
		1. HILA	2. HILA	3. HILA	4. HILA	5. HILA	6. HILA	7. HILA	8. HILA	9. HILA	10. HILA
1. FASEA: PRESTAKUNTZA											
0	Erakundeen parte-hartze										
1	espazioak eratzea										
0	Prozesuaren aurretiko										
2	informazioa garatzea										
0	Prozesuaren irudia sortzea										
3											
0	Zer dira LAGak? kanpaina										
4											
2. FASEA: KONTSULTA											
0	Oinarritzko Dokumentuko										
5	eragileei kontsultatzea										
0	Prozesuaren web-orria eta										
6	identitate digitala										
0	Parte-hartze digitalaren										
7	irekiera										
0	Prozesua hasteko jardunaldia										
8											
0	Komunikazio-kanpaina										
9	prentsan										
3. FASEA: PARTE-HARTZEA											
1	Herritarrentzako postontzi eta										
0	panelak										
1	Jardunaldi parte-hartzaileak										
1	Eremu Funtzionaletan										
1	Parte hartzeko bilerak										
2											
1	Jendaurreko aurkezpenak										
3											
1	Gaikako mahaia										
4											
1	Sare sozialetako informazioa										
5	biltzea eta prozesatzea										
1	Iritziak eratzeko Azken Saioa										
6											
4. FASEA: AMAIERA											
1	Parte-hartze espazioekin										
7	azkeneko iritziak eratzzea										
1	Amaierako Dokumentua										
8	garatzea										
1	Lurraldearen Eguna EUSKAL										
9	HIRIA 2016 kongresuan										
2	Dibulgaziorako espazio										
0	ibiltaria										
2	Tokiko informazio-kanpaina										
1											

 Ekintza gauzatzeko aurreikusi den data
 Ekintza benetan gauzatu den data

6.4. Jarduera-memoria

01. Fasea. Prestakuntza

Lan honen oinarrian dagoen lizitazioa 2015eko udazkenaren hasieran egin zen. Aurreikuspenen arabera, ia 12 hilabete iraungo zuen eta 2015eko azaroaren inguruan hasiko zen. Azkenean, hainbat arazo administratibo sortu ziren eta lana 3 hilabete inguruko atzerapenarekin hasi zen, aurreikusitako datari erreparatuta. Horiek horrela, EAEko LAGen berrikuspenean parte hartzeko prozesua egiteko laguntza teknikoa 2016ko martxoaren 1ean hasi zen.

Lehenik eta behin, gelditzen ziren prozesuko faseak gidatuko zituen lan-programa birplanteatu behar izan da. Parte-hartze Planaren dokumentua elkarrekin landu zuten Aholkulari-taldeak eta Zuzendaritza Teknikoak eta, funtsezko hainbat aldaketa egin ostean, behin betiko dokumentua definitu eta gaztelaniara itzuli egin zen.

Gauza bera gertatu zen Parte hartzeko Gidarekin, hasieran Parte hartzeko Esparru izenaz ezaguna; izan ere, gidaren helburua da parte hartzeko prozesuak beharko dituen edukiak eta metodologia azaltzea.

Aldi berean, prozesu osoa laguntzeko komunikazioa prestatu eta Komunikazio Planean islatu egin zen. Komunikazioaz arduratzeko, tokiko enpresa bat, Horregatik, eta Estatu-mailako beste bat, 30 letraz, kontratatu dira; biek, Paisaje Transversalekin batera, koordinazio-lanak egin dituzte komunikazio-kabinetearekin, prentsa-oharrak eta -artikuluak idatzi, sare sozialak kudeatu, mezuak gainbegiratu, eta prozesua ikusgarri egiteaz eta komunikatzeaz arduratu dira.

Era berean, ondoren diseinatu diren material guztien atzeko planorako irudi soil bat sortu zen, euskal herritarren iritzia sinbolizatzen duen bunbuilo edo testu-koadro batean oinarrituta.

Aipatu lan horiek guztiak antolatzeke eta gauzatzeke, Zuzendaritza teknikoarekin, Udalsarearekin eta Sail bereko komunikazio-kabinetearekin hainbat bilera egin dira.

Orobat, Saileko webgunearen aurremaketa diseinatu egin zen, bai eta Irekia gunearen barruan parte hartzeko orria ere. Lehen bilerak egin ziren plataforma horietako arduradunekin eta hasierako proposamenak egitura egingarrira moldatu ziren.

Hasiera batean martxorako aurreikusitako fase hau ia garaiz amaitzea lortu zen, baina komunikazio-kanpaina bi hilabetez atzeratu zenez, tailerretarako materialen prestakuntzarekin batera egin zen.

Egindako ekintzen zerrenda

2. Ekintza. Prozesuaren aurretiko informazioa garatzea. 2016ko martxoa-apirila

Helburua bikoitza zen, alde batetik, prozesua definitzen zuten edukiak biltzeko dokumentu bat prestatzea eta, bestetik, prozesu osorako Parte-hartze Plana berrestea eta definitzea. Fase honen bitartez lortu zen prozesua modu koordinatuan egiteko hasieran behar den konfiantza.

Prozesua prestatzeko bilera

Martxoaren 7an bildu ziren lehenengoz Udalsarea, Zuzendaritza Teknikoa eta Aholkulari-taldea. Lehen bilera hartan, behin egutegia aldatuta, prozesu berriaren egitura planteatu zen.

Komunikazio Plana prestatzeko bilera

Martxoaren 7an bilera egin zuten baita ere Zuzendaritza Teknikoak, Aholkulari-taldeak eta Irekia guneko arduradunek.

Batzorde Teknikoa eta LAGen Berrikuspenaren Aurkezpen Teknikoa

2016ko martxoaren 16an aurkezpen bat egin zen Udalsareko Batzorde Teknikoaren testuinguruan. Udalsareko teknikariak eta Zuzendaritza Teknikoko zein Aholkulari-taldeko ordezkari bana bertaratu ziren.

Parte hartzeko Planaren itxiera

2016ko apirilaren 08a: Aholkulari-taldea.

Parte hartzeko Gidaren itxiera

2016ko apirilaren 12a: Aholkulari-taldea.

3. ekintza. Prozesuaren irudia sortzea. 2016ko martxoa

Azal, kartel eta aurkezpenetarako irudia sortzea

2016ko martxoaren 21a: Aholkulari-taldea. Proiektu guztirako irudi koherentea sortu zen, LAGen berrikuspenerako prozesuaren balioak islatzen dituen.

4. ekintza. Zer dira LAGak? informazio- eta sentsibilizazio-kanpaina. 2016ko apirila-maiatza

Herritarrei EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen eta EAEko Lurraldearen balioen berri emateko eta horien inguruan sentsibilizatzeko helburuaz, jarduera hau atzeratzen joan zen lurraldeetara gerturatzeko prozesuarekin lotu ahal izateko. Hala, 3. fasean zehar argitaratu eta zabaldu ziren bideoak, liburuxkak eta materialak prestatu ziren.

Zer dira LAGak? bideoa diseinatzea eta aurkeztea

2016ko apirilaren 18a: Aholkulari-taldea. Apirilean zehar Zuzendaritza Teknikoak eta Aholkulari-taldeak bideoa berrikusi eta zuzendu egin zuten, hurrengo faseko 8. Ekintzarako behin betiko bertsioa itxi ahal izateko.

02. Fasea. Kontsulta

Prestakuntzaren atariko fasearen edo 1. Fasearen ostean, apirilerako aurreikusi zen bigarren aldi honetan, parte-hartze digitalerako metodoak abian jartzea eta aurrez aurreko parte-hartzerako lehen urratsak planteatu ziren.

Hasieratik, fase honetarako parte-hartze mugatuagoa aurreikusi zen, prozesua herritarrei jakinarazi aurretik, erabilitako metodologia, jardueren egitura eta parte hartzeko edukiak egokienak ote ziren baloratu ahal izateko.

Ekintzak lanaren garapenera moldatu ziren eta, beharren arabera, aurreratu edo atzeratu egin ziren. Erabilitako egutegi berria egiaztapen-dokumentuan deskribatu egin da.

Apirileko egun batzuk aurreko faseko hainbat ekintza amaitzeko eta hasteko erabili ziren. Lehenik eta behin, hasierako dokumentazioaren, hau da, Parte hartzeko Planaren, Parte hartzeko Gidaren eta Komunikazio Planaren, eta komunikazioarekin lotutako guztiaren (esaterako, bideoa, prentsarekin harremanetan jartzea, etab.) berrikuspen ugari eta

gaztelaniarako itzulpena. Bigarrenik, prozesua, LAGen kontzeptua eta ondoren etorriko ziren parte-hartze publikoko ekintzak zabaltzeko materialak. Hemen prestatutako bi liburuxkak (Zer dira LAGak? eta Zer gaitan har daiteke parte?), ohiko galderak eta prentsa-oharrak sartu ditugu.

Apirilean egin ziren fase honetako jardueren artean, aipagarriak dira prentsaurrekoa eta aurretiko zein geroako prentsa-oharra. Horrek barne hartzen du diskurtsoa prestatzeko eta bideoa doitzeko laguntza, bideoa bitan luzatu egin baitzen.

Era berean, apirilean eta maiatzaren hasieran, lehen kontaktuak egin ziren eragileekin. Ekintza hori prozesurako interesgarri ikusten ziren erakunde, elkarte eta kolektiboengana iristeko eta, aurrez aurreko bileren bidez, haiei ekarpen zuzena egiteko aukera emateko aurreikusi zen. Hasiera batean, elkarte ekonomikoak, sozialak, ingurumenekoak eta emakumeenak kontaktatu ziren; eta, bigarren txandan, sindikatuak eta beste talde ekonomiko batzuk. Orotara, 50 eragile eta kolektibo kontaktatu ziren telefonoz, maiatzean eta ekainean zehar bilera egiteko helburuarekin.

Jarduneko bi plataforma digitalak, Saileko webgunearen barruko orria eta Irekia foroa, apirilean zehar garatu eta abiarazi egin ziren, edukia maiatzean zehar osatu zen arren.

Hala, <http://www.euskadi.eus/revision-dot> web-orrian, prozesua azaltzeko oinarritzko edukiak, parte hartzeko prozesua, jarraipena, parte hartzeko kanalak, dokumentuak deskargatzeko atala eta Zer dira LAGak? izeneko atal bat irauli dira.

Bestetik, Irekia (<http://www.irekia.euskadi.eus/es/eztabaida/%10>) plataforma irekiagoa da eta 3 ataletan banatuta dago: aurkezpena egiten duen eta LAGak zer diren azaltzen duen atal bat, ekarpen digitalak egiteko aukera guztiak ematen dituen Eztabaidarako atal bat, gaikako eztabaidak barne, eta, azkenik, Oinarritzko Dokumentuan zuzenketak eta proposamenak egin ahal izateko Ekarpenen atala.

Egindako ekintzen zerrenda

Fase honen asmoa zen, prozesuaren planteamendutik bertatik, elkartutako eragile eta elkarteak tartean sartzea, haien ekarpenei eta iradokizunei tokia eginez. Horrez gain, prozesuko materiala eta edukiak prestatu ziren eta hasteko pistola-tiro ofiziala bota zen.

2. Ekintza. Prozesuaren aurretiko informazioa garatzea

Prozesua prestatzeko bilera

2016ko apirilaren 5a: Zuzendaritza Teknikoa eta Aholkulari-taldea.

6. Ekintza. Bloga, web-orria eta Prozesuaren identitate digitala sortzea

Sailaren web-orriaren gaineko bilera

2016ko apirilaren 5a: Euskadi.eus-eko teknikariak, Zuzendaritza Teknikoa eta Aholkulari-taldea.

Irekia web-orriaren eta Sareen gaineko bilera

2016ko apirilaren 7a: Irekia eta Aholkulari-taldea.

5. Ekintza. Eragileei kontsultatzea

Eragileei kontsultatzeko kontaktuak egiten hastea

2016ko apirilaren 11: Aholkulari-taldea.

Bilerak egiten eta ekarpenak jasotzen hastea

2016ko apirilaren 18a: Aholkulari-taldea.

Ekarpenak jasotzeko epea ixteko planteamendua

2016ko maiatzaren 20a lehen txandarako. 2016ko ekainaren 03a bigarren txandarako.

8. ekintza. Hasiera: prozesuaren hasieraren aurkezpena

Prentsaurrekoa eta Prozesuaren hasiera

2016ko apirilaren 25a: Zuzendaritza Teknikoa eta Aholkulari-taldea.

7. Ekintza. Parte-hartze digitalaren irekiera

Irekian galdeketak eta ekarpenak egiteko epea irekitzea

2016ko apirilaren 29a: Irekia eta Aholkulari-taldea.

9. Ekintza. Hasiera: komunikazio-kanpaina prentsan

Prensa-oharra eta Parte hartzeko prozesua irekitzea

2016ko maiatzaren 25a: Zuzendaritza Teknikoa eta Aholkulari-taldea.

03. Fasea. Parte-hartzea

Hirugarren fase honetan, iritzi gehienak jaso eta prozesuan parte hartzeko jarduera nagusiak garatu ziren. Jarduerak bai aurrez aurrekoak bai digitalak izan ziren.

Fase hau maiatzean, ekainean, irailean eta urrian zehar egin zen. Hasiera batean, uda aurretik egitea proposatu zen, baina epeak moldatu ondoren atzeratu egin behar izan zen. Uztaila eta abuztua aurrez aurreko parte-hartzerako baliogabeak direnez gero, fase hau bi unetan banatzea erabaki zen: zati bat uda aurretik, maiatzean eta ekainean, eta beste bat ondoren, irailean eta urrira artea luzatuta.

Fase honetan zehar egin ziren hainbat lan 1. eta 2. Faseetan egindako prozesuaren prestakuntzarekin lotuta zeuden hasiera batean, hots, web-orri ofiziala, Irekia webgunea, sare sozialetarako protokoloa, prentsa-kanpaina, Zer dira LAGak? kanpaina eta bideoa, edota eragileei egindako kontsultak.

Luzatutako bideoaren diseinua eta edizioa amaitu ziren, webgunean sartzeko eta sareetan zabaltzeko.

Orobat, prentsa-oharrak idatzi ziren egindako ekitaldiak iragartzeko eta zabaltzeko.

Sailaren web-orria pixkanaka osatu egin zen. Hainbat atal hobetu egin ziren informazio argiagoa emateko, beharrezkotzat jo ziren beste atal batzuk (Ohiko Galderak, Tailerrak eremu funtzionaletan, Egutegia) txertatu eta jasotako ekarpenak barne hartu ziren, Gizarteak egindako Ekarpenak eta Erakundeek egindako Ekarpenak izeneko azpiataletan banatuta.

Irekia gunean hobekuntza txikiak egin ziren zenbait atal hobeto azaltzeko eta galdeketak egiteko hainbat galdera txertatu ziren zegokien atalean.

Sare sozialetarako protokolo bat sortu zen, prozesuarekin lotutako erakunde eta enpresen kontu guztiak zabaltzeko mezuetan sartuz, eta egindako ekitaldiak argitaratu ziren. Uda igaro ondoren, irailean eta urrian zehar, sare sozialen dinamizazioa eta internet bidezko ekarpenak

nabariki areagotu ziren, bitartekotza- eta bultzada-lan jarraitua eginez; eta horrek, eremu guztiz desberdinetako ekarpen ugari eragin zituen.

Iritziak erregistratu gabe errazago jaso ahal izateko, online formulario bat sortu zen, Google Forms baliatuta, non betetako 35 galdeketa jaso ziren.

2. Faseko ekintza garrantzitsuena, Eragileei kontsultatzea, luzatu egin zen kontsultatutako erakundeek ekarpenak bildu ahal izateko. Lurraldearekin harremana duten 57 euskal erakunde, elkarte eta kolektibori dei egin zitzaien eta 3 idazki bidali zitzaizkien. Ekarpenak egiteko ekainaren amaierara arteko epea eman zen, baina hainbat erakundek uda oso behar izan zuten txostenak prestatzeko. Denera, 16 ekarpen jaso eta 10 elkarrizketa egin ziren.

Prozesuaren muina, batik bat aurrez aurreko parte-hartzeari dagokiolarik, eremu funtzional bakoitzean egindako tailer parte-hartzaileak dira. Guztira, 16 tailer planteatu eta gauzatu ziren, bat eremu funtzional bakoitzeko, gehi beste bat Markina-Xemeinerako; izan ere, Gernika-Markina, nola edo hala, bi eskualde dituen eremu funtzional bat da-eta.

Tailerrak antolatzeke hainbat lan egin behar izan ziren. Lehenik eta behin, espazioak erreserbatu ziren, eta tailerrak tokiko erakundeekin koordinatu ziren datak eta lekuak zehaztu ahal izateko. Ondoren, Sailak berak babestutako komunikazio-lan handia egin zen: tailer bakoitzerako prentsa-oharrak idaztea, tokiko hedabideei kontsultatzea, prentsa kitak prestatzea eta udal guztiei telefonoz deitzea tailerrak antolatzeke. Halaber, anfitrioi lanak egin zituzten udal guztiek zuzendariaren jakinarazpen ofiziala eta deia jaso zituzten. Tailerrak kudeatzeko parte-hartze dinamika bat prestatu zen: 5 gairen inguruko panelak eta Dokumentu Exekutiboaren laburpenak. Era berean, LAGak azaltzeko aurkezpen labur bat prestatu zen, Eremu Funtzional bakoitza zehazten duena.

Era berean, ikuspegi instituzional eta teknikoago batetik, 2 tailer egin ziren Udalsareak elkartzen dituen udaletako eta erakundeetako profesional teknikoekin. Tailer horietan, eremu funtzionaletako tailerretan jasotako proposamenen antzekoak jaso dira, baina, lan-saio hauen balio erantsia da parte-hartzaileek egunerokoaren kudeaketari buruzko ezagutza dutela.

Hala 11. Ekintzarako (Tailerrak eremu funtzionaletan) nola 15. ekintzarako (Parte-hartze digitala), ekintzen garapena aztertzeke berariazko txostenak prestatu ziren, sakontasun eta interes handia eskatzen zuten-eta. Honi erantsita daude bi txosten horiek.

Azaroaren 21ean eta 22an Donostian egin zen Euskal Hiria 2016 Kongresurako 14 panelez osaturiko erakusketa bat diseinatu zen, Kongresuan aurkeztu zen LAGen berrikuspeneko Aurrerapen-dokumentuaren edukiekin.

Egindako ekintzen zerrenda

Maiatzean eta ekainean zehar egindako kanpoko ekintzen artean, nabarmentzekoak dira batez ere eremu funtzionaletan egindako tailerrak, bai eta Udalsareko Ekitaldearen tailerrak ere.

11. ekintza. LAGak Eremu Funtzionaletan

- 2016ko maiatzaren 16a _ Tailerra > Balmaseda-Zalla > Zalla
- 2016ko maiatzaren 21a _ Tailerra > Donostia-Beterri > Donostia
- 2016ko maiatzaren 25a _ Tailerra > Beasain-Zumarraga (Goierri) > Beasain
- 2016ko maiatzaren 30a _ Tailerra > Durango > Durango
- 2016ko ekainaren 01a _ Tailerra > Eibar > Eibar
- 2016ko ekainaren 06a _ Tailerra > Laguardia > Laguardia
- 2016ko ekainaren 08a _ Tailerra > Gernika-Markina > Markina-Xemein
- 2016ko ekainaren 11 _ Tailerra > Araba erdialdea > Vitoria-Gasteiz
- 2016ko ekainaren 13a _ Tailerra > Mungia > Mungia
- 2016ko ekainaren 14a _ Tailerra > Arrasate-Bergara > Arrasate
- 2016ko ekainaren 15a _ Tailerra > Laudio > Amurrio
- 2016ko ekainaren 18a _ Tailerra > Bilbao Metropolitarra > Bilbao
- 2016ko ekainaren 20a _ Tailerra > Zarautz-Azpeitia > Zarautz
- 2016ko ekainaren 22a _ Tailerra > Gernika-Markina > Gernika-Lumo
- 2016ko ekainaren 27a _ Tailerra > Tolosa > Tolosa
- 2016ko ekainaren 28a _ Tailerra > Igorre > Igorre

05. Ekintza. Eragileei kontsultatzea

- 2016ko maiatzaren 31 _ LAGak berrikusteko Ekitaldea_Bilboko bilera
- 2016ko ekainaren 8a _ Herritarrentzako postontzi eta panelak. ehuGune. Akademiaren eta gizartearen arteko elkarrizketa
- 2016ko ekainaren 30 _ LAGak berrikusteko Ekitaldea_Donostiako bilera
- 2016ko ekainaren 30a _ Ekarpinak jasotzeko epearen itxiera

15. Ekintza. Parte-hartze digitala

2016ko urriaren 14a _ Sare sozialetako informazioa biltzea eta prozesatzea

04. Fasea. Ondorioak

Azken fase honetan, hainbat ekitaldi eta dokumenturen bidez jasotako informazioa itzuli zen, eta bidea urratu zen LAGen berrikuspenerako hurrengo faserako: Hasierako Onespena.

Fase honetan jendaurreko aurkezpenak egin ziren 3 hiriburuetan, eremu funtzionaletako tailerretako ekarpenen itzulketa egiteko. Euskal Hiria 2016 Kongresua antolatu zen baita ere, non LAGen Aurrerapen-dokumentua aurkeztu baitzen. Ekitaldi honekin batera, Aholkulari-taldeak emaitzak erakusten dituen erakusketa ibiltari bat antolatu zuen; eta erakusketa hiru euskal hiriburuetara eraman da dagoeneko.

Ekitaldi hauek prentsa-oharren eta komunikazio-ekintzen bidez zabaldu ziren.

Hasieran aurreikusitako ekintzetatik azkenean zeintzuk egin diren

2016ko urriaren 5a _ Parte-hartzearen ekarpenen amaierako dokumentua _ Parte-hartzearen ekarpenen amaierako dokumentuaren entrega

2016ko azaroaren 21a _ Lurraldearen eguna EUSKAL HIRIA 2016 kongresuan _ Euskal Hiria 2016

2016ko azaroaren 21a _ Dibulgaziorako espazio ibiltaria _ Dibulgaziozko materiala prestatzea

2016ko abenduaren 6a _ Dibulgaziorako espazio ibiltaria _ Dibulgaziozko kanpaina

2016ko abenduaren 6a _ Tokiko informazio-kanpaina _ Zabalkundea sareetan, prentsan eta emaitzen toki mailan

AURKEZPENA

2016ko otsaila eta urria bitartean, euskal herritar guztion artean, EAEko Lurralde-estrategia eraikitzeko kontsulta-, elkarriketa- eta partaidetza-prozesu ireki bat zabaldu da.

Eztabaidatutako, entzundako eta jasotako guztia baliagarria izan da 2016 Euskal Hiria Kongresuan aurkeztuko den EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) Berrikuspenaren aurrerapena hornitzeko.

Berrikuspena bideratzeko beste bi urte beharko dira gutxi gorabehera, hurrengo 20 urteetarako EAEko Lurralde-estrategia ezarriko duten gidalerro berriak behin betiko onartzen diren arte.

Gogoan hartu behar dugu partaidetza-prozesu sozial eta instituzional hau berrikuspenaren Aurrerapena baino lehen gauzatu dela eta, ondorioz, ez dela legeak hala agintzen duelako egin, baizik eta EAEko gizarteak, prestatzen ari den Lurralde-estrategia berrian, parte hartzeko gogoak bultzatuta:



PRESENTACIÓN

Entre febrero y octubre de 2016 se ha desplegado un proceso abierto de consulta, diálogo y participación para construir entre toda la ciudadanía vasca la Estrategia Territorial de la CAPV.

Todo lo debatido, escuchado y recogido ha servido para nutrir el Avance de la revisión de las **Directrices de Ordenación Territorial (DOT)** de la CAPV que se presenta en **Euskal Hiria Kongresua 2016**.

La Revisión continuará su tramitación durante aproximadamente dos años, hasta la aprobación definitiva de las nuevas Directrices que establecerán la Estrategia Territorial Vasca para los próximos 20 años.

Debe recordarse que este proceso de participación (tanto social como institucional) ocurre de forma previa al Avance de la revisión, y por tanto, no se realiza por imperativo legal, sino con el propósito de hacer partícipe a toda la sociedad vasca de esta nueva Estrategia Territorial:

próximos
20 años

datozen
20 urtetan

Lurraldea 2040.

Lurraldea 2040.

LAG-en BERRIKUSPENA
AURRERAPENA

EUSKO JAURLARITZA

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

REVISIÓN de las DOT
AVANCE

Prozesuko ekarpenen itzulketaren erakusketa aurkezteko panela.

7. PROZESUAREN ONDORIOAK ETA IKASITAKOAK

LAGen Aurrerapen-dokumentuaren prestakuntzaren barruan, LAGen berrikuspenean parte hartzeko prozesua gertaera gogoangarria izan da EAEn lurraldea kudeatzeko eredu berri bat konfiguratzeko. Halako garrantzia duen tresna baten prestakuntza herritarren parte-hartzera irekitzea aurrerapauso handia da demokratikoagoa den lurralde bat sortzeko ahaleaginean.

Prozesu bera egin izana soilik kontuan hartzeko lorpena da, eta alde guztiek (administrazio publikoak, eragileak eta herritarrak) harro egon beharko lukete bertan parte hartu izanagatik.

Emaitza kuantitatibo eta portzentajeetatik haratago, esan dezakegu prozesuak mukuruka erdietsi duela bere helburua: euskal herritarrekin etorkizunerako garrantzia handia duten gaiak partekatzea eta lantzea.

Alabaina, ekimen aitzindari guztiekin gertatzen den bezala, inplementazioak hainbat ondorio ateratzeko eta asko ikasteko aukera ematen du; eta komeni da horiek aintzat hartzea geroko izapidetze-faseei begira. Jarraian zenbait ondorio eta ikaskuntza nabarmen xehatuko ditugu.

7.1 Hasierako erronkak

Prozesu honen hasierako erronketako bat indarrean dauden lurralde-tresnen multzoa abiapuntutzat hartzen duen lurralde-eredu berria, eguneratua, adostua eta etorkizuneko ikuspegia duena, proposatzean datza. Baina are handiagoa da berrikuspenerako prozesuaren erronka: euskal herritarrek maila handiagoko lurralde-plangintzarako tresna horren (LAGak) prestakuntza bere egitea.

Jarraian parte hartzeko prozesuaren erronka nagusiak laburbiltzen dira:

Jarduteko eskala

Euskal Autonomia Erkidegoa bezalako esparru batean beharrezkoa da parte hartu nahi duten pertsonek ikuspegi zabala edukitzea. Horrek herritarrek hobeto ezagutzen dituzten auzo- eta

hiri-mailako parte-hartzearen ohiko logikak apurtzen ditu. Oro har, mota honetako dinamikak tokiko prozesu txikietan erabili ohi izaten dira; beraz, ohiko mailatik maila handiago batera pasatzeak parte-hartzea oztopatzen du.

Gai abstraktuak

Goikoarekin batera, eskala handiak berekin dakartzan gaiak eta abstrakzio-mailak aurkitzen ditugu. Lurralde-antolamendua kontzeptu abstraktuak eta orokorrak integratzen dituen diziplina da, eta errealitate horrek tirabirak eragiten ditu parte hartzeko kultura orokorrarekin, azken honek gai zehatz eta murriztuagoak landu ohi baititu. Era berean, hasierako informazioa ez da hain ulergarria parte-hartzaileentzat, eta haien iritziak, sarri gertuko lurraldeari lotutakoak, zabaldu eta zuzendu egin behar dira landutako agirian txertatu ahal izateko.

Erreferenterik eza

Ez da ohikoa maila handian parte hartzeko prozesuak egitea; LAGen Berrikuspenean parte hartzeko prozesu hau kasu isolatu samarra da eta aurretik egin diren erreferentziako prozesu txikiagoekin lotura gutxi du. Ondorioz, egindako ekintzak “esperimentazio” kutsua izan dute askotan, eta hori bereziki nabaria izan da parte-hartze digitalaren kasuan.

Lengoaia eta kanalak

Esandakoa kontuan hartuta, aurreikus zitekeen erakundeek eta profil teknikoko pertsonen modu aktiboagoan parte hartzea. Egoera horri aurre egiteko, parte-hartzea kanal ezberdinen bidez erraztea eta informazioa lengoaia inklusiboa baina ez teknifikatu batera itzultzea da gakoa.

Bada, parte hartzeko prozesu osoan zehar, prozesuan erabiltzen diren kontzeptu teknikoak “itzultzeko” eta herritarrentzat ulergarri egiteko ahalegina egin da. Parte-hartze digitalaren kasuan, gainera, sare sozialetako komunikazioaren izaera “instituzionala” gehitu behar zaio. Sare sozialen bidezko interakzioen eta parte-hartze digitalen arrakasta lortzeko, hurbiltasuna eta erregistro ez hain formalak behar dira.

Eraitza ez da beti espero bezalakoa izan, ezin izan baitira beti LAGetako edukiak lengoaia errazago batera itzuli, hori egiterakoan “mezuaren funtsa galtzen zelako”. Bestetik, zaila izan

da LAGen eta Eusko Jaurlaritzaren tonu teknikoaren eta herritar guztientzat irekitako parte hartzeko prozesu baten tonuaren arteko aldea libratzea.

Eszeptizismoa

Herritarrek parte hartzeko prozesuen dinamizazioan zehar sarri jasotzen den erantzunetako bat hauxe da: “ez du ezertarako balio”. Parte-hartzeak eragin dezakeen frustrazioa prozesuan zehar landu bada ere, herritarrek mesfidati agertzen dira oraindik mota honetako prozeduretan denbora eta energia inbertitzeko orduan. Horregatik, talde guztiak eskertu egin ditu herritarren dedikazioa eta bildutako ekarpenak.

Etorkizuneko begirada

Berrikuspen honen helburua da hurrengo 20 urteetako EAE ikuskatzea, eta hori nekez kudea daitekeen denbora-tartea da. Batik bat aintzat hartuta gizarte garaikidea berehalako aldaketetara ohituta dagoela. Epe luzeko erronkei aurre egitea ez da batere erraza inorentzat.

Gardentasuna eta trazabilitatea

Prozesuan ahalik eta gardentasun- eta irekitasun-mailarik handiena lortzea planteatu da. Horretarako, hainbat mekanismo sustatu dira, pertsona guztiek egindako proposamenen trazabilitatea erraz jarraitzeko aukera izan zezaten.

7.2 Ondorioak

Aipatu erronkak eta prozesuaren garapena erreferentziazat hartuta, honako ondorio hauek atera ditzakegu erabilitako parte-hartze kanala aintzat hartuta.

Parte-hartze digitala

Denborari dagokionez, parte-hartze digitalean hiru fase bereizi daitezke:

1. Fasea: 2016ko martxotik uztaile arte. Estrategia digitalaren lehenengo denboraldi hori tailerren komunikaziora bideratu zen batik bat. Hala ere, Irekia plataforman proiektu bat sortu zen baita ere parte-hartze digitalari hasiera emateko. Parte-hartze digitalerako atariak eta haren sareek emandako laguntza oso garrantzitsuak izan ziren fase honetan.
2. Fasea: 2016ko uztailetik irailera arte. Parte-hartze digitalerako estrategia ahalik eta modu intentsiboenean zabaldu zen, hainbat ekintzen eta Irekia plataformaren lankidetzaren bidez. Lehen fase honen tonua instituzionalagoa izan zen. Orobat, Irekia plataformak laguntza eskaini zuen.
3. Fasea: 2016ko irailetik urrira arte. Udatik bueltan, estrategiaren garapena ebaluatu ondoren, inpaktu handiagoa lortzeko ikuspegi berri bat proposatu zen. Horretarako, hurbileko ikuspegi zuzenago baten bitartez, sareen dinamizazioa areagotu zen. Era berean, funtsezko profilei eta iritzi-liderrei laguntza eskatu zitzaien eta kanalak erabiltzeko jarraibideak banatu ziren parte-hartze digitala errazteko. Aurrerapen-faseko parte-hartze digitala 2016ko urriaren 5ean amaitu zen.

Hala, hainbat ondorio orokor atera ditzakegu parte-hartze digitaletik eta prozesuko fase bakoitzetik.

Orokorrak

- Digitalki parte hartzeko ohitura gutxi daukagu: Eusko Jaurlaritza Irekia atariaren bitartez parte-hartze digitalean aitzindari den arren, izan ere, kontu hauetan erreferente bihurtu da, egia da ere Irekian bultzatutako kanpainen emaitza kuantitatiboak apalak izan direla. Horrek adieraz dezake euskal herritarrek ez dutela parte-hartze digitalerako kanalak erabiltzeko ohiturarik.

- Esfera digitaleko parte-hartzeari dagokiolarik, parte-hartze gogoangarria ahalbidetu duten zenbait kanal ireki dira. Beharbada hainbeste kanal ikusteak jendea izutu egin du hainbat kasutan eta, zenbaitetan, nahastu ere egin du, baina oro har sare sozialen bidezko parte-hartzea aktiboa izan da.
- Litekeena da lehen fasean ahaleginak aurrez aurreko parte-hartzerako tailerren komunikaziora bideratzeko beharrak, gero, parte-hartze digitalaren dinamikak eragozteak.
- Saileko sareen presentzia eta oihartzun eskasak eta prozesurako sare propio bat sortzeko beharrak (Twitter) parte-hartze digitalaren hasiera azken fasera arte oztopatu egin zuten.
- Lehen bi faseetan zehar izandako erantzun eta interakzio kaskarraren ostean, agerian jarri zen sareen dinamizazioa areagotzeko beharra.
- Hirugarren faseko dinamizazioaren emaitzek nabarmendu zuten beharrezkoa zela jarduera horietan kualifikatutako pertsonak kontratatzea, landu beharreko gaiak eta sareetan eragina duten pertsonen testuingurua ezagutzen zituztenak, alegia.
- Goiko puntu honen harira, sareetan eragin handia duten pertsonen ekosistema aurretik aztertutako behar zen, pertsona horiek prozesuan argiago txertatu ahal izateko.
- Edukiak lengoaia hurbilago eta errazago batera itzultzeko lana erabakigarria da parte-hartzea errazteko, eta gerora begira emaitza oso onak ematen ditu.
- Jendearen “atzetik” ibili behar izan dugu parte har zezaten, oro har, lurralde-antolamenduaren gaia urrun baitago. Sareetan gehien eztabaidatzen diren gaiak hiriarekin lotutakoak dira.

1. Fasea

- Sareetan, bereziki Facebooken, tailerrekin lotutako ekitaldiak sortu eta sustatu zitezkeen.
- Agian, komenigarria izan zitekeen hasieran sareak modu intentsiboagoan kudeatzea eta dinamizatzea.
- Twitterreko profila sortzeko beharra.

2. Fasea

- Uda garai txarra da sareak dinamizatzeko eta, horren ondorioz, abiatutako estrategiak inpaktu gutxi lortu zuen.

3. Fasea

- Sareen dinamizazioa arrakastatsua izan zen eta inpaktu handia lortu zuen; izan ere, hamaika interakzio eta ekarpen bildu ziren.
- Apika interesgarria izan zitekeen edukiak sustatzeko elementuak sartzea. Baina elementu horiek ez dute efektu aipagarriarik lortu ondorengo deialdietan -esate baterako, Bilbon, Donostian eta Gasteizen egindako Aurrerapenaren aurkezpenak-. Horrenbestez, komeni da inbertsio horien efizientzia birpentsatzea.

Aurrez aurreko parte-hartzea

- Prozesuko emaitza kuantitatiboetatik haratago, ondoriozta dezakegu lorpen handienetako bat izan dela euskal herritarren eskura parte-hartze kanal zein espazio ugari eta anitzak jarri izana.
- Halaber, azpimarratu beharra dago lurraldean kokatuta dauden pertsona eta eragile anitzen ekarpenak lortzeko egin den ahalegina. Hala, pertsona horien ordezkagarritasun- eta ekintza-maila banaka parte hartzen duten pertsonekin elkartu behar da, erregistratutako parte-hartzearen magnitudea ondo ulertzeko.
- Maila kualitatiboan, agerian jarri behar da erregistratutako ekarpenek balio eta interes handia dutela. Bai Eremu Funtzionaletako tailerretan erregistratu diren ekarpenak, bai kontsultatutako eragileek egindako ekarpenak. Izan ere, eragileek hamabost txosten osotik gora prestatu dituzte, dokumentu guztiek planteamendu sakonak egiten dituztelarik.
- Komunikazio-mailan, tailerrek harrera ona izan dute tokiko hedabideetan, eta horrek parte-hartzea erraztu du.
- Hamaika kanal eta estrategia erabili badira ere, zenbait deialdik ez dute espero zen oihartzuna lortu.
- Lurralde-antolamenduaren gai nagusiak herritarren iritzitik urrun daude, eremu teknikoetan bakarrik jorratzen dira eta zaila da horiek jendearengana helaraztea. Berriazko ezagutzarik ez duten herritarrekin egindako lana eta ezagutza aditua duten pertsonentzako tailerrak hobeto bereizi beharko lirateke.
- Maiatzeko eta ekaineko tailerren ondoren, udan prozesua gelditu egin zen, eta udazkeneko programatutako hauteskunde autonomikoen itzalak prozesua behar

bezala ixtea galarazi zuen. 4 hileko isilunearen ondoren, aurkezpenak eta erakusketak ez ziren abendura arte hasi.

- Tailerretako aktak azkar bidali ziren, zuzenketa gutxi egin ziren eta harrera ona jaso zuten. Itzulketaren parte hori oso positiboa izan da.
- Gehiago azpimarratu eta landu behar den potentzial handiko lan-ildo bati heldu zaio. Ikasitakoak LAGen berrikuspenerako prozesuaren hurrengo pausoak gidatu behar ditu, etengabeko hobekuntzarako bide honetan.
- Hedabideak parte hartzeko prozesuekin nekatuta daudela dirudi, eta horrek zailtzen du prozesuak oihartzun gehiago izatea. Horrez gain, hedabideak mesfidati agertzen dira ordezkari politikoak elkarrizketatzeko orduan; beraz, inpaktu gehiago lortzeko hurbiltze-estrategia desberdin bat erabili beharko litzateke.
- Zailtasun horiek gorabehera, hedabideetako komunikabide-estrategiak, prentsa-oharren bidalketek eta ondoren egindako jarraipenak ahalbidetu zuten prozesuak oihartzun aipagarria lortzea.

Lurralde-plangintza sarean egitea xede: bottom-up logika LAGetan

Parte hartzeko prozesuan eta atal desberdinetan azaldutako ondorio berezietatik haratago, hausnarketa globalagoa egin behar da lurraldea kudeatzeko eredu demokratikoago bat, tokiko erakunde eta eragile desberdinak tartean sartzen dituen, planteatzeko moduaren inguruan.

Ildo horretan, nabarmentzekoa da tokiko erakundeek eta eragileek lurralde-arazoez erakusten duten inplikazio eza maila handiko plangintza-tresnak oso “urrun” ikustearen ondorioa dela. LAGak edota LPPak inposiziotzat jotzen dira. Horregatik, LAGen mailakako plangintzaren top-down (goitik beherako) logika bottom-up (behetik gorako) ikuspegitik berrikusi beharko litzateke, tokiko erakundeek eta eragileek gehiago parte hartu dezaten.

Zehazki, ikuspegi aldaketa hori honako planteamendu honetan itzul liteke: Alde batetik, ulertzea LAGek adina garrantzi duen tresna bat berrikusteko prozesua, dokumentua bera bezala, bizirik mantendu behar dela eta, hortaz, ezin da 20 urtero gauzatzen den unean uneko prozesu baten ondorioa izan, lurralde- eta hiri-plangintzako hainbat tresna berrikusteko beste prozesu batzuetan landu daitekeen gai bat baizik. Hala, plan horiek (LPP, LPS, HAPO, etab.)

garatzeko parte-hartze espazioak eta mekanismoak erreserba litezke, hausnarketa egin eta LAGei ekarpenak egin ahal izateko.

Prozedura horiek logika pedagogiko eta parte-hartzaile batetik gauzatu beharko lirateke, LAGen irismena eta dokumentuko edukiak eztabaidatzeko aukera emanez, berrikusi behar den plangintza-tresnak LAGetan dituen eragin zehatzetara egokituta.

Adibidez, udalerri baten Plan Orokorra berrikusterakoan, jardunaldiak antola litezke azaltzeko nola eragiten dioten LAGek Plan horri, eta une horiek toki mailako eragileekin tailerrak eta eragileei kontsultak egiteko aprobetxa litezke. Ekarpenguzti horiek parte hartzeko prozesu honetan ezarritako irizpideei jarraiki bildu, laburtu eta sailkatu litezke. Horrela, mota honetako prozesuetan informazioa sistematizatzeko metodo bat izango genuke, ondoren LAGen Berrikuspenean irauli litekeena.

Horrek ahalbidetuko luke tokiko nodoek (udalerriak, eskualdeak, Eremu Funtzionalak, etab.) lurralde-plangintzarako sare bat osatzea, eta, hortik, LAGetan aldatzeko alderdiak modu proaktiboagoan proposa litezke. Horretarako, zalantzarik gabe, sare horretako estekak aztertu beharko lirateke, egindako ekarpenen lotura- eta transferentzia-sistemen bidez.

Gainera, sareak maila anitzeko logika balia dezake, ekarpenak lehenbizi udal-optikatik landuz eta, ondoren, udalerriaz gaindiko mailako plangintzen arteko elkarreragin-egoeretara iritsiz. Eremu Funtzionalen mailan, udalerrietan egindako ekarpenak bateratzeko mekanismoak ezarri beharko lirateke, LPPen berrikuspenarekin lotutako prozesuen bidez.

Prozesu honetatik haxe lortuko genuke:

- Herritarrek eta tokiko erakundeek LAGen garrantzia hobeto ulertzea.
- Herritarrek eta tokiko erakundeek etorkizuneko berrikuspenerako prozesuetan gehiago parte hartzea.
- LAGek ezarritako xedapenek onarpen gehiago lortzea.
- Kultura eta sentsibilizazio gehiago sortzea lurralde-gaien eta plangintza-tresnen inguruan, bai eta haien garrantziaren inguruan ere.
- LAGen berrikuspenerako mekanismo erresilienteago bat, gerta daitezkeen aldaketetara moldatu daitekeena.
- Bottom-up logikak baliatzen dituen lurralde-plangintzako sistema bat, egungo “mailakako plangintzaren” logika “sareko lurralde-plangintzarekin” ordezkatzeko duena.


Hala, harmonia gehiago sortuko litzateke lurralde- eta hiri-plangintzarako tresna ezberdinen artean.

7.3 Ikasitakoak

- Tailerren deialdiak egiterakoan, udalerriak oinarri hartuta lan egin behar da. Udalerriek zabaldu behar baitituzte deialdiak haien komunikazio-kanal eta datu-baseen bitartez. Horretarako, kiten jarraipen intentsiboa egin behar da, Udaletan deialdiak zabaltzeko kita erabiltzen duten funtsezko pertsonak antzemateko helburuarekin.
- Hasierako fasea luzatu behar da, sentsibilizazioa eta pedagogia hobeto lantzeko.
- Onuragarria litzateke komunikazio-estrategia integral bat garatzea, estrategia garatzeko beharrezko baliabideak eta autonomia eskainiz.
- Sareak dinamizatzeko hurbileko lengoaiak erabili behar dira, ez hain instituzionalak, eta eragin handiko profilen ekosistema aztertu behar da aurretik.
- Parte-hartze digitalerako hainbat kanal existitu behar badira era, kanalen eraginkortasuna lortutako emaitzen arabera birplanteatu behar da. Agian eraginkorragoa da kanal gutxiago irekitzea eta zabalkunde-ahaleginak hor ardaztea, emaitza kuantitatibo handiagoak lortzeko.
- Kolektiboki ikasi dugu maila handiko parte-hartzea nola garatzen den. Hala, prozesu berak lurralde-antolamenduarekin lotuta parte hartzeko prozesuak sustatu ahal izateko behar den oinarria sortu du.
- Eskuragarri dauden baliabide teknikoak, giza eta denbora-baliabideak kontuan hartu behar dira, haietara moldatuz.
- Ekintzak helburuarekin bat etorri behar du, energia alferrik ez galtzeko.
- Existitzen diren bideak aurretik aztertu, ezagutu eta ulertu behar dira, prozesua testuingurura eta bide horietara moldatu ahal izateko.

PARTE-HARTZE PROZESUAREN GARAPENA

AURREIKUSITAKO EKITZEN GAUZATZEA
datuen eta ekarpenen gaitasun arabera



8. HASIERAKO ONESPENA IZAPIDETZEKO PARTE-HARTZE PROPOSAMENA

LAGen berrikuspenerako prozesua tramitazioak irauten zuen bitartean egingo zen prozesu parte-hartzaile baten bidez garatzeko asmoz sortu zen. Halaxe jaso dute Aurrerapena prestatzen zen bitartean prestatutako dokumentu eta komunikazioek. Hortaz, komeni da 2016ko martxoan hasitako bidetik lan egiten jarraitzea.

Gainera, 3 hiriburuetan egin ziren Aurrerapen-dokumentuaren aurkezpenetan, Berrikuspena bideratzeko gelditzen diren bi faseetarako prozesu bana egiteko beharra azaldu zen.

Jarraian, Hasierako Onespenaren fasea barne hartzen duen parte hartzeko prozesu bat garatzeko proposamena zehazten da. Arriskutsu samarra dirudi, ordea, Behin Betiko Onespenaren faserako proposamen bat ere egitea, neurri handi batean, hori Hasierako Onespenaren parte hartzeko prozesuaren garapenaren eta lortutako emaitzen mende egongo baita.

Haatik, kontuan hartu behar da komenigarria izango litzatekeela Behin Betiko Onespenaren fasean parte hartzeko prozesua Hasierako Onespenarekin jarraitutasuna mantenduz abiaraztea. Horretarako, prozesua abiarazteko diseinua eta antolaketa Hasierako Onespenaren amaierako fasean zehar prestatu beharko dira. Hori aurreikusi beharra dago.

Hemen jasotzen den proposamena Sailburuordetzak Berrikuspena oro har garatzeko ezarri dituen epeetara eta LAGek Hasierako Onespenaren faserako zehaztutako epeetara moldatzen da. Egoera horrek Aurrerapeneko parte hartzeko prozesuak baino garapen azkarragoa eta laburragoa duen prozesu bat planteatzera behartzen du. Hortaz, proposatutako epeak eta mobilizatu beharreko baliabideak errealistak dira, bai eta horiek exekutatze biziak bizkortasuna ere.

Hasierako Onespenaren fasean parte hartzea

Goian esandakoarekin bat, LAGen Hasierako Onespenaren faseari lotutako parte hartzeko prozesurako proposamena egiterakoan, honako baldintzatzaile hauek aintzat hartu dira:

- LALak xedatutako zehaztapenak: EAEko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen eta Lurralde Politikarako Aholku Batzordearen txostenak oinarri hartuta, 3 hileko epea ireki da Administrazio guztiek ekarpenak egiteko. Aurrerago, dokumentu berri bat prestatu ostean, EAEko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak eta Lurralde Politikarako Aholku Batzordeak beste txosten bat igorri dute, eta hortik Hasierako Onespenera pasa da.
- Garatzeko denbora-tarte txikia: 2016ko abenduan EAEko hiru hiriburuetan egin ziren Aurrerapen-dokumenturen aurkezpenetan adierazi bezala, aurreikusten da parte hartzeko prozesua Legeak xedatutako administrazio-prozedurarekin batera garatuko dela.
- Baliabideen mobilizazioa: goiko puntua aintzat hartuta, bizkortasun apur bat behar da prozesua hasieran aurreikusitako epeetan gauzatzea ahalbidetzen duten baliabideak mobilizatzeko.
- Aurretiko prozesua: Aurrerapenerako egindako parte hartzeko prozesutik ateratako ondorioak eta han ikasitakoak hartu beharko lirateke oinarri, bai eta prozesuaren garapena bera ere. Zentzu horretan, komenigarria litzateke eskera bera errepikatu ordez, jada lortutakotik abiatzen den prozedura aurreratu bat planteatzea.

8.1. LALaren zehaztapenak

EAEko Lurralde Antolamenduari buruzko Legearen 10. artikulua, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) formulatzeko eta onesteko prozedurari erreparatuta, hauxe xedatzen du:

- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politikarako Aholku Batzordeak eta EAEko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak Gidalerroen Aurrerapenari buruzko txostena egin beharko dute.
- Gidalerroen Aurrerapena izapidetutako txostenekin batera bidaliko zaie goiko ataletan aipatutako Administrazioei* eta interesa izan dezaketen erakunde publiko eta pribatuei, 3 hileko epearen buruan, egokitzen jotzen dituzten oharrak, proposamenak eta alternatibak aurkezteko.

**Administrazio eta Lurralde Plangintza Sailburuordetzak bilduko ditu Eusko Jaurlaritzako beste Sailetatik, Lurralde Historikoetako Foru Organoetatik eta, kasu bada, Udaletatik Udalerrien Elkartearen bitartez (...)*

Hasierako Onespenarekin lotutako parte hartzeko prozesuak, gutxienez, eremu instituzionaleko xedapen hauekin bat etorri behar du; “interesa izan dezaketen erakunde publiko eta pribatuez” hitz egiten dutenean izan ezik, horiek gizartearen parte-hartzearekin lotuta baitaude.

Horrek bi estrategia paralelo ezartzera bultzatzen gaitu, Aurrerapenarekin egin zen bezalaxe, alde batetik, gizartearen parte-hartzea eta, bestetik, erakundeen parte-hartzea lantzeko.

8.2. Erakundeen parte-hartzea

Administrazio eta Lurralde Plangintza Sailburuordetzak garatu du erakundeen parte-hartzea, LALak xedatutako baldintzei jarraiki. Horrela, Aurrerapenarekin hasitako lan-dinamika mantendu da.

Sailburuordetzak bilerak egingo ditu eta txostenak eskatuko dizkie aipatutako organoei: EAEko Lurraldearen Antolamendurako Batzordea, Aholku Batzordea, Eusko Jaurlaritzako beste Sail batzuk, Ogasunak, Udalerrien Elkartek, etab., bai eta beharrezkotzat jotzen diren instituzio edo erakunde publikoak ere.

Prozesu honetan zehar bildutako ekarpenak LAGen webgunean argitaratuko dira eta zerbitzu teknikoak arduratuko dira ekarpenak Hasierako Onespenaren agirian txertatzeaz.

Parte-hartze horren osagarri gisa, gizartearen parte-hartzea honako baldintza hauetan garatzea proposatzen da.

8.3. Gizartearen parte-hartzea

Goian deskribatutako elementuak kontuan hartuta, proposatzen da, Hasierako Onespenaren fasearekin lotutako gizartearen parte-hartzerako, ahalik eta pertsona gehien biltzea eta ahalik eta oihartzun handiena eragitea lortzen duen jardunaldi parte-hartzaile bat egitea.

Jardunaldiaren aurretik Aurrerapeneko gaiekin erlazionatutako hainbat topaketa sektorial egingo lirатеke. Topaketek helburu bikoitza izango lukete: jardunaldirako prestatzeko eta eragileei kontsultatzeko foro gisa. Aldi berean, parte-hartze digitala garatuko litzateke prozesu osoan zehar, Aurrerapeneko parte-hartzean zehar ikasitakoaren arabera moldatuta.

Honako ekintza hauek egingo lirатеke:

1. 3 bilera sektorial
2. Jardunaldi parte-hartzaile 1
3. Parte-hartze digitala

Bilera sektorialak

3 bilera sektorial egingo lirateke Aurrerapeneko atalei lotuta, zeinak lau “modulu tematikoren” inguruan multzokatuko liratekeen. Bilera horietan profil teknikoko eragile sozial eta instituzionalek hartuko lukete parte. Hala, Aurrerapenean parte hartu duten eragileen eta eztabaidatuko diren gaiekin lotura duten Administrazio Publikoko langile teknikoen (adibidez: Udalsarea) aukeraketa egingo litzateke, haiekin bilera egiteko.

Helburuak

Topaketa hauek bi helburu nagusi dituzte:

- Ekarpinak berariaz itzultzea eta Aurrerapenaren prozesuan parte hartu duten eragileei (behar izatekotan, interesgarritzat jotzen diren eragile berriak sar daitezke) berriro ere kontsultatzea.
- Eragileekin batera jardunaldi parte-hartzailean landuko litzatekeen modulu tematiko bakoitzeko edukiak diseinatzea, batzorde zientifiko antzeko bat sortuz.
- Txostenen bidalketa eskatzea eta zehaztea.

Edukiak

Bileretan Aurrerapeneko edukiekin erlazionatutako kontuak jorratuko dira. Parte-hartzearen hurbilketa integralagoa errazteko eta prozesua sinplifikatzeko, dokumentua osatzen duten 8 bloke tematikoak (Ingurune Fisikoa eta Azpiegitura Berdea, Landa-habitata, Hiri-habitata, Paisaia, Ondare Kulturala eta Naturala, eta Baliabide Turistikoak; Baliabideen kudeaketa jasangarria; Mugikortasuna eta Logistika; Zeharkako Alderdiak eta Gobernantza) hurrengo 3 moduluetan biltzea proposatzen da. Erabilitako izenak aldatu edo kendu daitezke nahasgarri ikusten badira. Euskal Hiria 2016 kongresuan planteatutako egitura tematikoa hartzen da erreferentzia gisa.

1. Ingurune fisikoa, landa-ingurunea eta paisaia: Ingurune fisiko eta Azpiegitura berdea + Landa-habitata + Paisaia, Ondare Kultural eta Naturala, eta Baliabide Turistikoak
2. Hiri-habitata
3. Abiapuntuak eta Zeharkako Alderdiak: Zeharkako Alderdiak eta Gobernantza

Goian iradokitakoarekin bat, bilera sektorialak, alde batetik, modulu bakoitzerako Aurrerapenak jasotzen dituen edukien gainean, eragileei ekarpenak berariaz itzultzeko baliatuko dira. Bestetik, eduki horien inguruko ekarpenak biltzeko edo beharrezko txostenak eskatzeko baliatuko dira. Eta, azkenik, jardunaldi parte-hartzaileko edukiak biribiltzen amaitzeko guneak izango dira baita ere.

Garapena

Bilera sektorialen egitura lau zatitan banatuko da:

1. Modulu tematiko bakoitzeko edukien azalpen laburra
2. Galderak eta iruzkinak
3. Ekarpenak eskatzea eta txostenak prestatzea
4. Jardunaldiaren antolaketa: jardunaldi parte-hartzaileko edukien gaineko ideiak eta ekarpenak biltzea modulu tematiko bakoitzerako. Osoko bileran xedatutakoari dagokiolarik, garatuko diren eduki zehatzak hausnartuko dira.

Bilera sektorialen aurretik Zuzendaritza Teknikoarekin batera lan egingo da, bileretan parte hartzeko profil egokienak zeintzuk diren erabakitzeko. Aukeraketa egin ondoren, nahitaezko kontaktuak egingo dira eta, horien bitartez, bertaratukoei landu beharreko edukien gaineko dokumentazioa bidaliko zaie. Era berean, kontaktuen jarraipena egingo da.

Jardunaldi parte-hartzailea

Goian azaldutako baldintzatzaileak aintzat hartuta, jardunaldi bakarra egitea planteatzen da, ahaleginak elkartzeko eta deialdiaren eraginkortasuna handitzeko asmoz. Gainera, Aurrerapeneko eskema berdina errepikatzeak parte-hartzea etsiarazi lezake, errepikakorra dela iritzita.

Hasiera batean, planteatzen da egun oso bateko jardunaldia egitea. Halere, gaia ezagutzen duten pertsona zein teknikarientzako eta aurretiko parte hartzeko prozesuan parte hartu duten pertsonentzako berariazko deialdi bat egingo da. Horretarako, udalen, Udalsarearen eta beste hainbat erakunderen laguntza eskatuko da.

Helburuak

Jardunaldiaren helburuak hauek izango lirateke:

- Aurrerapen-dokumentua oro har eta herritarrentzat pedagogikoa eta ulergarria den moduan aurkeztea.
- Hasierako Onespenaren agiriaren gainean hausnartzea eta eztabaidatzea, Aurrerapena eta haren edukiak oinarri hartuta.
- Gizartearen parte-hartzearen ekarpenak jasotzea, Hasierako onespenaren dokumentuan txertatzeko.
- Hasierako Onespenaren gainean oinarriak ezartzea eta adostasun soziala definitzea, agiria prestatzeko ibilbide-orri komun bat zehaztuz.
- Parte hartzeko gainerako bideak azaltzea: txostenak igortzea eta parte-hartze digitala.

Edukiak

Jardunaldia aurretik ezarritako 3 bloke tematikoren inguruan egituratuko da, Euskal Hiria 2016 kongresuan hasitako diskurtso-ildoari jarraipena emanik. Blokeak bileretarako proposatzen diren berberak izango dira:

1. Ingurune fisikoa, landa-ingurunea eta paisaia: Ingurune Fisikoa eta Azpiegitura Berdea + Landa-habitata + Paisaia, Ondare Kultural eta Naturala, eta Baliabide Turistikoak
2. Hiri-habitata, Mugikortasun jasangarria eta baliabideen kudeaketa jasangarria
3. Abiapuntuak eta Zeharkako Alderdiak: Zeharkako Alderdiak eta Gobernantza

Eduki hauen inguruan hasierako erakusketa bat eta, gero, taldeka parte hartzeko lan bat egingo dira.

Jardunaldia egin aurretik izena ematea eskatuko da; horrek aukera emango du parte hartu nahi dutenei Aurrerapenari buruzko dokumentazioa bidaltzeko. Halaber, jardunaldiaren aurretiko asteetan erakusketa ibiltaria berriro egiteko aukera aztertu daiteke. Erakusketa udalerrri berean egingo litzateke, ahal izanez gero, jardunaldia egiten den esparru berean.

Garapena

Egun osoko jardunaldi bat egitea planteatzen da. Goizeko saioa (gutxi gorabehera 9:00etatik 14:00etara) Aurrerapen-dokumentuaren edukiak azaltzeko eta, deskribatutako 4 bloke tematikoen arabera, taldeka lan egiten hasteko erabiliko da.

Parte-hartze digitala

Aurreko prozesua osatzeko, zeharka, parte-hartze digitalerako estrategia bat garatuko da. Estrategia diseinatzerakoan kontuan hartuko dira bereziki Aurrerapeneko parte hartzeko prozesuan ikasitakoak. Zehazki, parte-hartze digitalerako kanal anitz irekitzeak erakutsi duen eraginkortasunari dagokiolarik.

Ondorioz, kanal kopurua murriztea eta abian jartzen diren kanalen erabilera areagotzea proposatzen da, komunikazio-ahaleginak aukeratutako kanaletan ardatzuz.

Horretarako, proposatzen da parte-hartze digitalerako bi kanal, Irekia eta inkesta, bakarrik erabiltzea, Twitter eta Facebook bi kanal horiek zabaltzeko eta sustatzeko erabiltzen diren bitartean.

Edukiak

Irekia gunea eta Inkesta digitala erabiliko dira, honako irizpide eta eduki hauen arabera.

- Irekia: parte hartzeko prozesurako proiektu bat prestatuko da, parte hartzeko bi espazio sortuz.
 - o Proiektuaren aurkezpena: alde edo kontra bozkatzeko; hala nola aurkezpenaren amaieran, proiektuaren aldeko edo kontrako argudio bat idatz daiteke, gehienez ere, 255 karaktere erabilita.
 - o Eztabaida tematikoak, Aurrerapen-dokumentutik ateratako kapituluaren eta edukien inguruan. Bertan, kapitulu bakoitzaren eduki laburtuak agertzen dira (Lurralde-gidalerroen bidez) eta, amaieran, horien gaineko iruzkinak egin daitezke: azaldutako puntuei buruz idatz daiteke, edo azaldutako puntuetan jasotzen ez diren ideia edo eduki berriak proposatu.
 - o Ekarpenen atala sortzeko aukerarik dagoen aztertzea, non Aurrerapen-dokumentua agertuko litzatekeen iruzkinak egin ahal izateko.
- Inkesta digitala, Aurrerapen-dokumentuko eduki eta gaiei lotutako galderekin.

Prozesu honekin guztiarekin batera, komunikazio digitalerako estrategia bat diseinatu beharko da, parte-hartze digitalaren edukiak zabaltzeko tresna nagusi gisa, batik bat, Sailburuordetzak sare sozialetan (Facebook eta Twitter) dituen kontuak erabilita.

Garapena

Parte-hartze digitala eta bileren zein jardunaldi parte-hartzailearen bidezko aurrez aurreko parte-hartzea aldi berean garatzen dira. Lotura-eta berrelikadura-puntuak ezarri beharko dira, sareetako komunikazio digitalari lotuta batez ere, bi eremuen artean zubi-lanak egin ditzaten. Eta hori hedabideetan eta eragileen bidez egindako komunikazio-lanarekin osatu beharko da.

Hasiera batean, parte-hartze digitala antolatu beharko da: behar diren materialak prestatzea, komunikazio digitalerako estrategia definitzea, eta parte-hartze digitaleko kanalak (Irekia, Inkesta) abiaraztea.

Kanakak eta materialak prest daudenean, parte-hartze digitaleko kanpaina abiatuko da. Kanpaina aurrez aurreko parte-hartzearen prozesu osoan zehar garatuko da eta zenbait aste edo hilabete gehiago luzatuko da.

Egutegiari erreparatuta, aurreikusita dago kanpaina ekainera edo uztailean arte iristea. Horrela, irailean lortutako emaitzak jasotzen, laburtzen eta sistematizatzen dituen nahitaezko txostena prestatu liteke.

Komunikazio digitalak aurrez aurreko parte-hartzeari lotutako ekitaldien zabalkundea barne hartu beharko du, eta ekitaldiak hedabideen bidez ere zabalduko dira.

